

EGĀN



1-3

1970

Suplemento de Literatura del Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País
Redacción: Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo», Palacio de la Diputación de Guipúzcoa

SUMARIO

Págs.

| | |
|--|-----|
| P. F. IRIGARAY GOIZUETA "LARREKO" (1869-1969). E. Erkiaga | 3 |
| PRO DOMO: Mitxelena | 11 |
| MONDRAGOE SUTAN: M. Le- kuona | 27 |
| BAZTAN DANTZAK: A. Iriga- ray | 49 |
| UNAMUNO EUSKERAZ: L. Ake- solo | 52 |
| IXILIK: Iñaki de Lete | 55 |
| ETXAHUN'EN "OFIZIALE- NAK": Yon Etxaide | 56 |
| AITONA TA BILLOBA: Pelay Orozco. Trad. Bozas-Urrutia ... | 63 |
| DENBORETATIK ZEHAR: X. Kintana | 72 |
| KRABELIN GORRIAK: J. Az- peitia | 79 |
| KAPANEN GAIZTAKERIE: J. Goikoetxea | 86 |
| KONTU KONTARI: Bitaña | 90 |
| JAN-EDANAK: A. A. | 92 |
| ADABAKIAK: N. A. G., Juan San Martín | 98 |
| OAR-LABURRAK: Markue | 104 |
| LURRUNPEAN: A. Zubikaray ... | 107 |
| LIBURUAK: J. Goikoetxea | 128 |
| BIBLIOGRAFIA: Jan San Mar- tín | 133 |

DIRECCION Y REDACCION:

A. Arrue, A. Irigaray y L. Michelena

EGAN

DEPOSITO LEGAL: S. S. 289 - 1958

Impreso en Gráficas Colón, S. L. - P.º Colón, 4 S. S. -, Junio, 1970.

EGAN

SUPLEMENTO DE LITERATURA DEL BOLETIN
DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS

Dirección y Redacción: A. Arrúe, A. Irigaray y L. Michelena

Redacción: SEMINARIO URQUIJO DE FILOLOGIA VASCA
Palacio de la Diputación de Guipuzcoa - SAN SEBASTIAN

II Epoca

Vol. XXX

Enero-Junio 1970

PABLO FERMIN IRIGARAY GOIZUETA

“Larreko”

(1869 - 1969)

Beltzez jantzia, kapela ta eskularruak ere; alkandora ezik. Bizar txuria, murriz. Euskal-basoko txoria genuen. Txoria erran dut, eta berberak eman dit hortarakotz aurrerapidea. P. Caballero kalean, Iruñe zahar huntan, ba zen 1938 gn, urtean, beste askoren artean, etxe polit bat, «Larreko» -ren egoitza, atalburuko orman, itz hue-
txek zituena: «Edozein txoriri, eder bere kabia».

Gipuzkoako Mutrikun, 1935 gn. urtean ikusi nuen lehenbizi «Larreko» gurea.

Euskal-idazle Batza sortu nai genuen. Ta batzarrera deituak izan ziren idazleak oro. Biltzar hartan, elkarte berria eratzeko giza-oïñari bezala, lagun-sorta autetsi zuten. Sorta hortakoak, Gipuzkoako idazleen izenez, A. Arzeluz «Luzear» ta Joxe Zubimendi izan ziren autatuak; Nafarroakoen izenez, «Manezaundi» ta «Irular» Larreko zenaren semea; ta Bizkaikoengandik, Beñat Garro «Otxolua» ta nire burua. Orduan 22 urte nituen. Sei gizon haietarik, beraz, bi soillik gagoz bizirik.

Euskaltzaindiak lehen oreneko Urgazle izan zuen Fermin Irigaray. Harekin halaber, Teodoro Arburua, Aita Kaparrosokoa, Aita Eusebio Etxalarkoa ta Nikolas Ormaetxea, «Orixe» aundia. Aldi hartako Euskaltzain osokoak, Arturo Campion eta Aita Intzakoa izan ziren, hain zuzen gure oraingo aiton bakarra.

Auritze-Burgueten jaio zen «Larreko», 1869 urteko ilbeltzaren 25-ean, eta Iruñean il, 80 urte zituelarik, 1949 gn. urtean. Aita, eskola maisua izan zuen. Madrillen egin zen Larreko, miriku ta osatebakile. Bidasoako Beran asi zen bere egikizun hortan, Iruritan jarraitu, eta geroago, azkenerarte, Iruñean, Barañain delako Nafarroako Geisotegi nagusian ziruganu ta zuzentzaile buru ere.

«Larreko» -ren jaiotetxea, etxe ederra da -dirausku N. Alzolak. (EGAN, 1-6, 1967, 19-20 gn. orrialdeetan). Gerrate aurrean barriztaua. Etxaurreko goiko bizitzan, orma-arrian euskeraz; «Martin Zurginenea 1933-URTEAN-VERRITUA». Emen imini bear jako oroigarriren bat Eunurteburuan, gitxiagorik eztau merezi-ta, euskal-idazle ta osagille aundi arek.»

Orain ogetamairu urte, anai-arteko burruka luzea asi zenean, nork ez ditu-ta, Irigaray zaharrak ere, ba zituen etsaiak, noski. Haren kaltetan, behin eta berriro izan ziren salakuntzak. Hoiien berri, gobernadoreak eman omen zion obispuari; hain zuzen, hunen etxe-ko mirikua «Larreko» izaki.

Obispuak eman zion jardespena gobernu-gizonari:

—Untsa ezagutzen dut Irigaray mirikua. Baiña, erran ezadazu, otoi, Nafarroa osoan, haren pareko gizon onak, zenbat ote ditugun...

1938 gn. urtean, udaran, soldadu jantzia ni, Maestrazgo mendietan artu balaz osatu ondoan, berriro ere Levante aldeko gudu-oiñetarantz ninjoalarik, Iruñe huntan, kalean idoro nuen gure gizona. Behin baizik ikusi ez nuena, ikusi-ala bertarik ezagutu nuen, ene zorionez. Beltzez jantzia dena, eskularruak ere bai; bizar txuria murriz.

— «Larreko» jauna! —erran nion.

— Nor zaitut? —erantzun zidan, arrimenez.

— «Endaitz» nauzu, Bizkaikoa.

— Ta, bizirik?

— Eiki; anitz ilak, gu bizirik.

— Eta nurat zoaz?

— Gudutokira berriro ere, Castellón alderantz.

Geroago, bere txalet polit hartara eraman ninduen. Solasaldi luzea izan genuen, urte bi haietako gertakarietaz, eta batipat, gure errialdeko hainbat eta hainbat euskal-idazleen zerzeladak jakin go-

goz ikusi nuen. Gure idazle zaharren artean, Haraneder zuela kutun antzeman nion. Haraneder ta haren laguntzaille biak, agian.

Labur eta murriz eman digu L. Mitxelenak «Larreko»-ren berri, bere liburu «Historia de la Literatura vasca» izenekoan, 154 n. orrialdean, prosagileetaz ari dela: Aldizkari, asteko-paper ta eguneroko zenbaiten euskal-orrialdeetan ezagunak ziren, hala merezi-ta Fermin Irigaray «Larreko» nafarra, ta «Luzear» giputza.»

«Lizardi»-ren ITZ LAUZ liburuan, 61 gn. orrialdean, irakur dezakegu, «Euskera aundiki soiñekoz» artikuluan:

«Eusko-aundiki guziek euskeraz ariko balira, euskera gaizkatua, salbatua, omen genduke. Amaika bider entzun diotegu orixe «Larreko» ta «Txadon Zaia» idazleei.»

Ta geroxeago jarraitzen:

«Geren buruon yazte osoa erderaz egin baitegu, alperrik litzake besterik eskatzea; nai ta nai ez bear alegin zalla, geronen artean bederik, gai biurri-samarrak euskeraz erabiltzeko. Ta emen dator elkarri esatea:

— Au eztiagu aski. Orain euskeraz ari bear diagu. Ba al dakizute nolako nekea genduan ori? Euskera umetan erdi-ikasi, gero erdi ortatik iru laurden atzendu...

«Masaillak gorritzen zitzaizkigun ederki, beti elkarrekin erderaz ari izanok, ordudanik euskeraz ari bearrez. Baña egiñal latz askoen bidez yaundu ginduzun geure buruez, ta geroztik, ostera, ezin erderaz ari gaituzu.»

Bai esanaldi giarra, estilu txukuna, argia, euskalduna «Lizardi» ahantzigabearena!

Izan ere, hain dira pareko «Larreko» zaharra ta «Lizardi» gaztea, euskera gurea zeatz, jator, aberats, bipil jakin naiean. Euskera erdi jakin, ta gero zearo jabetu arteraiñoko izan zuten nekea, lana, malkarra ta aldatza, erriaren aotik belarrira ta idazle onentxoenen liburu ta lanetan xurgatuez, izkera jatorrarengana antsi ta minbera.

Beti zabarkeriaren igesi, erdalkeriaz herabe, mintzaira trakets eta mordoilloari aitz, euskerarentzat jokabiderik onuratsuena horixe zela uste izanik.

Euskerarenganako ospe, itzal eta begirapena errian aizatu nairik, euskaldun ikasiak, letradunak, apain jantziak eta buruan kapela ta guzti, euskeraz ari izatea, txit ongarri iduritzen zitzaion «Larreko»-ri, mintzaira zaharrak gero ta eremu zabalagoa iritxi zezan. Izkera errikoia, ugaria, bizi-bizia, jator ta bakana, arau eta erran zuzenak

kontuan izanik, jakiña. Baiña baita gai goitarrak, jakintza gaiak ere, erabiltzeko gertu ta zertu behar zen mintzaira. Zaharraren eta gaztearen garra ta gogo, berdintsua genuen.

Liburu hartan bertan, 114 gn. orrialdean, Lizardik, «Urli» adiskide erreminduari erantzunaz, diotsa:

«Ondoz, etzenduan «Larreko» agurgarria ta ni elkarren aurkez aurke zertan yarria. Orretzek, geienbat, erantzupen au egiñarazten dit.

«Larreko»-ren iritziak maiz txorrotxegiak iduritzen zaizkidan arren, gizonez maite det; idazlez ederresten; abertzalez, gorasarre dagiot. Bikaintasun oiez nere eskuek ez ukitzeko diñan goitia ez balego ere, ille urdiñarenganako itzal samurra bear nuke aski. Aren aurrean bai, atera dezakegu txapela biok, eta beste zenbaitek ere.

«Itz oietzek zor nizekizun, aiton burutxuri, begikoa; ta artaratu nauen abagunea atsegiña ez izanda ere, ongi etorri bedi, biotza lasatuaren ordaiñez.»

Horra hor borobil eta deplauki esan Lizardi gazte zenak, «Larreko» agure xaloaren elesaririk mardulena: *gizonez, maite; idazlez, ederretsi, ta errizalez, gorasarre egin.*

Sarri askotan izan dut buruan, aranots eta durundu barnekoi gisa, zarauztarraren bertsu hauxe:

«Baña nik, izkuntza larrekoa...

(BIOTZ BEGIETAN, 136 orr.).

I I

Bihotzaldia eskini diogu, ordea, ta egin dezaiogun orain haren lerro-sailari aginka ta ozka urtsua. Iruzpallau arlotan bana dezakegu idazle nafarraren jardun osoa.

Sinismenez, kristau erromatarra genuen, elizkoia oso, mezarara egunero joaiten zena. Haren artikulu «Feminismoaz» delakoan, Andre Dena Mariatz erran zuena: «Aldiz, amaberjina (Jainkoak) bere amatzat berexi zuelarik, ez da izan sortu direnetan, hura baino handiagorik, ederragorik eta sainduagorik.» Kronikarik geienak, hunela bukatzen zituen: «Urbilen aldi arteo, Jainkoak hala nai duelarik.»

Haren euskalzaletasuna erraitea, ez da aski. Bere Erriarenganako zaletasun bipila agertu izan zuen. Euskalerrri osoarenganako, ta jakiña, Nafarroa barne zuelarik. Haren itzetan ikusiko dugu geroago.

Ez zuen inoiz bere ez izlaritzat ez idazletzat jo. Aldi hartako «euskal-idazlea» zen, xoilik. Izenordez geienbat lanean ari ziren erriko seme apal haien artekoa, albistak igorri, iruzkiñak egin, asmoak agertu, erriaren alde eta izkeraren alde jardun.

Hunela, gogoan ditugu orduko izenorde zenbait. Bidasoaz haraindiko Oxobi, Anxuberro, Zerbitzari, Haur prodigoa. Eta hunaindiko Manezaundi, Larreko, Irular, Urtsuia; Orixe, Luzear, Lizardi; Kirikiño, Otxolua, Arrugain, Lemoarra, Nabarriztarra, Lauaxeta... Azkuek berak ere, eta Txomin Agirrek, zeinbat izenorde beuren lanetan!

Literatura-zelaietan bazkazale ez zirudian arren, halaere Larrekok lan polita utzi zigun, eleder-joera aztarnaz ornitua. Zera, «Euskaldun biozduna Mexikon» deitu jarduna, literatura puxketa atsegin da; berak ezertxo ere asmatu gabe, inorengandik zearo jasoa dela aitortu digu, ordea, apaltasunez. Tokiak eta egoerak poliki azaltzen ditu, eta jardun-aria, txukun eta argi arildu.

Euskerarenganako zaletasun hortan, atxikia ta zintzoa izan zen. Umezaroan eta gaztezarroan ez zuen izan mende, agiri danez, arbasoen mintzaira. Horregatik, haren nekea etengabea izan zen, beti ikasten, beti kezketan izkera jatorra, garbia, egokiena, bere esanetara makurtu beharrez.

Horra hor argi jarri, «Larreko»-ren izkera zergatik ez zen, ez bere sorterrikoa ta ez Baztanekoa. Beste izkelgietariko emaitzak bildu baizituen, bere estilu bakan hori borobiltzeko.

Min hartu ohi zuen «Larreko»-k, hainbat euskalseme ta hainbat euskal-alaba erdararen mende ari izana. Min hartu ohi zuen, euskera moldakaitza entzutean eta irakurtean. Orobat, mintzoaren izaitea, itz xoiletan zetzala uste zutenak asko zirela oharturik. Horregatik, haren garbimina ez zen, batipat, itz jatorren aldekoa xoilik; esanaldi, itzurren eta erri-joskera ta erran bekanen erabiltzaile ta gordetzailea baizik.

Haren erran bat, hauxe dozue: «Leenik, euskeraren garbitasuna eztago itzetan bakarrik, baizik-eta izkera erabiltzeko eran, euskararen joskeran, esakera borobiltzean, aditzaren bereixten eta behar den eran ematen.»

Egungo egunean ere, aditza ta atzizkien joko ohituak ikasi premia ba dugu gure artean, idazleon artean; eta itzurrena, Jainkoak daki.

Sebero Altubek, «Erderismos» liburuan, erranaldi erduez ari dela, birritan aipatua du «Larreko». Batzuetan, erraneran, aditza aienatu egiten dela, ta esanaldi txairo ta txukuna izan ohi dela indar-

tuaz. Eredu: «Ostatuan idazteko maitxo batean nindagola, bertze mai batetik emakume gazte apain batek eni buruz, euskaraz: «Gabor, jauna; emengo aldi?» Ta geroxeago: «Orduan arek: ni Iruñako... alakoa, anai batekin gaur etorria.» (ERDERISMOS, 19 orri-aldea. E.9-VI-28).

Izen-ordezko berritzaileak gaiaz ari dela, esanaldi hau ezarten: «Utzi bear zaio bakoitzari *berak* nai duen elez iardesten.» (ERDER, 92 orr. Napartarra, n.º 39).

Gure elederraren beste historigile batek, Aita Villasantek alegia, idazlea, erriaren elemolde arruntean lotuegi ezin ditekela ari, erran digu. Jakina! Idazleak, gai sakonakoak eta goragokoak izango ditu; baiña ez du eskubiderik izkera bera, erriak baiño traketsago ta illunago ta aldrebesago bilakatzeko.

Lanak daramazkian gaiak eta laguntzailleak eta gorabeherak nola elkartu, idazleak jakingo du, noski; halarik ere, idazleak, ari dan izkuntza, darabilen izkera zaitu, gorde, osatu ta txukun agertu behar duela uste dugu, beste errietako idazle gailenak eta azkarrenak egin duten bezala.

Beste alderdi bat, eta «Larreko»-rengan goragarriena ta axola nagusikoa, bere saileko gaiez, euskaraz idatzi izana: osasun gaiak, miriku arloko jakingarri zenbait, garbitasuna, edariak, gizonen eta emakumeen lanak, eta abar. «Andre ona duen senarra, etxezulo agertuko zaiku: andre ona ez duen senarrak, ostatuan bazkalduko du maiz samar, ostatuan afalduko ere, ta gero... ondokoak.»

Gizarte saileko axolaz jardun zuen. Hala, emakumeen lana nolakoa izatea komeni den, erraiten digunean.

Entzun dezagun haren mintzoa: «Legearen arabera, eskubidez, zuzenez, gizona ta emakumea berdin badire ere, izatez gizona, gizon, eta emakumea amagai eta ama. Gizonak, arra den aldetik laster du lana bukatzen. Emakumeak, aldiz, eme den aldetik, arrak beretuez geroz, miñak eta lanak ditu beregain, amatzeko bideetan eta gero.

«Hortarik ageri da gogo-almen berberak ditugula gizonen eta emakumeek; emakumeek gizonen aña lan egin dezaketela jakintza arazo eta esku lanetan. Egia ori ukatuko duenik, ez dut uste izan den. Damurik, Euskalerrian dakusagu emakumeek gizonen aña eskulan egiten, bidezkoa ez dela guziek ikusten dugularik.

«Egiatzko *feminismo*, hortan dago; ama on bat izateko, etxe-koandere bear bezalako bat egiteko bideetan azi eta ezi. Neskatza guziek artu behar duten bidea hortik eldu da; hori da guzien ibilbidea.

«Jakina, alditan, bide hortarik ibiltzeagatik ibili daitekela bertze

bide batzuetan barna, irakasle, eri artazale, salzale, sal-erospenetako kontu-artzale eta holakoetan.

«Gizondu naiezko hortan, zer geiago egin dezake emazte batek, senarrari bihotzarekin nagusitzea baño?»

Duela urte anitz idatzi lerro hoietan, egungo egunean gure artean ere, ontzat emaiten diran asmoak direnez, «Larreko» gizarte saileko arloan aintzindari izana dugu. Izan ere, haren iritziz, emaztekiak ez luke lurreko lanetan jardun behar. Iritzi zuhurra ezarri zuen baitezpadako agerpen hortan.

Jan-edan kontuan ere, ohar zorrotza eman zigun. Alegia, abereak jan eta edan, banan, berexi egiten zutela; eta gizonok, ordea, nahasmenduan ari gara jan eta edan, edan eta jan. Izpirituaren, ots, alkoholaren arrisku ta kalteak ere, azaldu zituen. Aditu dezagun haren erranaldia.

«Hipokrates delako sendakinetik asi eta sendakin geienek goretzi dute ardoa gizonarendako, berdin osasundun delarik edo erigaxo dagolarik.

«Untan ere, ezpairik gabe, guziek diote: ardoaren izpirituari dagokionez, bakotxaren negurri artarik landa, pozoina dela. Bakotxak zenbaterainokoa du, negurri ori? Batbederak ezagutu dezala. Arek litro bat artu, eta ongi; nik, aldiz, litro bat artu, eta mozkor-arraildua.

«Bizkitartean, edarikoiek nahiz sendo iduri, erdolla barnetik dute. Erdoil orren nabarmentzeko, gaitza batek jotzen duelarik. Orduan, sendoenak nolaz? Oso gaizki; burutik naasten ezpadire, giltzurrietik edo biotzetik mainguka dabilta; eta borrokan edo garaikerrian mainguka dabilena, laster lurrean dago. Ori, sendo iduri dutenek; aldiz, kezketan asiak direnak, urdailletik ala gibeletik, unela lasterregi nekatzen dena, atsanditzen dena, gizenegi dagona, oriek guziak arjoak ditezke, eta kontu.»

Andigo ta edadura areagoko lana izan zitekeana dugu, harako «Sendalari baten argiak» lanttoa. Egia da gai hori, gaztelaniaz ere eman izan zuela, liburuxka batean.

Huna hemen ataltxo bat:

«Eri-handi batek, *ezagutza* edo *burua* nola daukan jakitea, garmendu andiko gauza da. Ilundua ezagutzeko bideak bilatu nai ditut eta ahal dutan argiena, erien laguntzaleari erakasteko.

«Baiki; askotan, gauza zalla eri-handi baten ezagutza, guti aski ilundurik dagonean, noraraño dagon ilundurik jakitea. Gertatzen ohi da: eri-handitu baño lehen, burutik ez ongi egotea: orduan ez da erraz berexen lehengoetan erituez gerozko nahasturia, osotara nahasirik kausitzen ditugularik.

«Behin, eri xahar bat, bedidanik *gizon bitxia* zenez geroz, grippe delakoaren sukarraikin *biriak ukiturik*, oso nahasia zagon.

«Egin nion agerraldi batean, etxean sartu ta gaxoaren emazteari nik:

— Zer dio, nahasirik dago?

Eta emazteak, bizi-bizia:

— Noiz dago berexirik?

Eritu aitzinetik ongi ezagutzen bazuen bere senarra, erituz gero, etzakien burutik makurrago ote zagon.»

«Larreko» gurea udako oporretan, atsedean eta atsegin eta osasun billa, hor goiko lurretara joaiten zen, Pantikosara alegia. Handik ere, kronika politak eta berri jakingarriak igorri ohi zituen egunkari eta astekarietara. Hango ikusiaren ederrez, hango aizearen garbiez loriatuak egon ohi zen, urtero, birrikak indartzen eta azkortzen zituelarik.

Eta azkenez, haren lerroketa bortitz hauxe irakurriko dizuet:

«Euskerak, izkuntza guztiek bezala, bere dituen bideak eta orkoiak ditu; bide oriek, euskaldun garbien artean dagozi; idazti zaharretan ere bai.

«Orain, lehen bezala, euskera garbi ikasteko, erdara ez dakiten euskaldunekin behar da ikasi, edo erdaraz zerbait jakinik ere, gogoan, pentsamoldea euskaldun dutenekin.

«Huntaz landara, euskaldun garbi, ikasiak dira nagusienak guri irakasteko. Ez bakarrik itzeginez, baizik eta beren idazti eta irakurgaiak. Euskararen erro garbienak, euskaldun zaharretan daude. Gramatikaz eta irakurtuz xoilik, beinere ezta euskaldun garbienen joera erdiesten. Entzunez, aurrek ikasten duten bezala asi nintzen ni ere.

«Baino orduan, norbaitek ohartuarazi zidan nere deiturak eta nere jatorriko leku-izenak, erri hartakoak bezala, euskarazkoak zirela. Orduan, argitasun handi bat egin zen nere gogoan, argi ta garbi ikusi bainuen nere izatea euskaldun dela, eta nere arbasoen izkuntza EUSKARA izan dela.

«Orai, gure gogoak arrotzu ondoan, egin nai dugu euskara bat gure ortoki eta moldetara, eta hori ez da bide zuzena. Gure gogoak bihurtu behar ditugu euskeraren moldetara. Aldi untako euskal-idazle geienen gaitz makurrena, erdalera dugu...»

«Letradunek dugu euskara oinperatu —erran zuen «Larrekok»—; letradunek, jaun eta anderek, dugu euskara goratu eta gaitu behar.»

1969 abenduaren 3 -an.

EUSEBIO ERKIAGA

PRO DOMO

Lehen, hain aspaldi ez delarik, eliz-gizonak genituen, mundu guztiak dakienez, latinez mintzatzeko gai zirenak, latinez zekitelako, noski. Orain, eliz-gizonen latina mututu dagoen mementu honetan, laikoek hasi beharko latinez mintzatzeko, lege zaharreko usarioei lotuak eta atxikiak geran laikoek behinik-behin. Egia da ez naizela sekula izan latin-zale amorratu horietakoa, egia ere da ez dudala inoiz esan latinaren alde Aita Errandonea-k esan-erazi zidan gauzarik. Baina, halaz guztiz ere...

Goi-aldean doan izenburu dotore horrekin gerta ez dedin maiz, baita Donostian bertan ere, *Alma Mater* sonatuarekin gertatu ohi dena, diodan, bestetara jo gabe, ez naizela honera agertu neure etxerako edo neure etxearen alde mintzatzeko asmoetan. Geure etxearen alde, guztion etxearen alde, mintzatu nahi nuke.

Paris-aldetik etxera naizenean, hemen aurkitu ditut pilaturik, besteak beste, hiruren bat hilabetetako *Zeruko Argia*-k. Banan-banan irakurri ditut eta edozeinek asma dezake, irudimen aberatsegiaren jabe ez bada ere, nolako sendimendu gazi-gozoz irakurri ditudan.

«Tentazioan» erortzeko bidean ikusten haut, esango du honezkeru adiskideren batek (bat edo bestetxo oraindik gelditzan zaidalakoan bait nago, benturaz oker). Bide horretan barrena abiatu naizenez gero, esan dezadan, luzamendutan ibili gabe, neure izena hain sarritan gora eta behera (ala behera eta gora) erabilia izan denez gero, nik ere ez ditudala hemen izenak tintontzian utziko, makina honek tintontzirik ez duelako behar bada. Tira, ba..., nik aski aldiz somatu dut, gizakia naizenez (eta latinarekiko zorra kitatua bait dugu, ez naiz *Homo sum* eta darraionarekin hasiko), tentazio bizi bat: maizegi pentsatu dut euskalduntasunari edo delako arbasoengandik datorkidan grina horri hain loturik ez banengo, lasaiago biziko nintzakeala eta are agian nagoen baino diruz hornituago nen-

gokeala. Baina, tentazioa bizia baino biziagoa izanik, ez diot amorerik eman, *bien malgré moi* (Parisen hartu dudak jakite-usain urria hemen agertzea lizentzi baldin bazait), maiztegiko hotz-aldiak eta ilun-arteak gora-behera, estekatzen nauten lokarriak eteteko kemenik izan ez dudalako.

Beste hori, ordea, Artetxe-ren «tentazioa» alegia, ez dut konprenitzen. Ez dut konprenitzen horrelakorik inori gogoak ematea eta are gutxiago, besterik gerta baledi ere, jendartan horrelakorik esatea. Neure herriak (eta neurea dela diot, ez haren jabe eta nagusi naizelako, baizik eta ni naizelako herri horretakoa, herri horrek sortua, hazia eta hezia) hutsik eta tatxarik badu ugari: ugariago apika neronek lehengoz gainera aski eta gehiegi erantsi diodalako. Nik (eta barka behin eta berriz harri horretan behaztopa egiten baldin badut, baina *Le moi est haïssable* esan zuena ez zen Artetxe-ren gogokoa, bere *Saint-Cyran* irakurri duenak dakienez) ez ditu gauzak horrela ikusten. Herriaren alde egin behar nituenak eta egin ez ditudanak ikusten ditut, lotsaz nahiz beldurrez, eta, horiek nahikoa ez balira, egin behar ez nituenak eta beldurrez nahiz lotsaz egin ditudanak. Nor naiz, beraz, herri oso bati kontuak eskatzeko?

Bide txarretik sartu gera eta ezin orain bestetara itzul, azkenbururaino hel gaitezen arte: bigarren estazioa Artetxe beraren «Arrixku bat» izango da. Belaunaldi batetik bestera, gurasoengandik seme-alabengana, jatxi gabe ere ikusi da horrelako aldakuntzarik: hor dugu lekuko, beste milaren artean, Doriot. Baina bideak bestetara narama: Pero Grullo eta La Palisse jaunaren gisako egiak behin eta berriro azaltzera behartzen gaituen alde horretara. Hona zenbait andanan, lerro-lerro ipiniak.

Hizkuntza bat, gurea nahiz inorena, ez da gizarteko mintzabide eta adierazpidea besterik. Ona da, beraz, elkarrekin mintzatzeko eta elkarri gogoetak adierazteko delarik, mintzatzeko eta adierazteko balio duelako; horrexegatik beragatik da ona aizkora zorrotza, eba-kitzeko sortua delarik, eta aizkora amutsa, berriz, txarra. Gehi dezagun ez dela berez hizkuntza amutsik, horrelako hutsik ageri baldin badu, zorrotz zezaketean adina zorrotzu ez dutenena dela soil-soilik errua, behiala Axular-ek zionez.

Bitartekoa da hizkuntza, ez ontzia: ez du deus barrenen eta zer nahi izan dezake. Adieraz ditzake, bada, asmakizun argiak eta kirtenkeria «itzelak», gogoeta zoragarriak eta total-esaldi baldanak, garbiak eta lizunak, lirinak eta gordinak. Ez batzuek ez besteak ez ditu «hizkuntzak» esaten ez bait du, beste norbaitek edo zerbaitek bezala, horretarako «nortasunik»: mutu da, ez bait du ez ahorik ez eztarririk, are gutxiago bururik. Hizketan dakitenak beste norbaitzu dira: eztarridunak, ahodunak eta (hala-holako) burudunak, haren

bitartez, hura dela medio, mintzatzen direnak. Garbitasuna eta zinkeria ere hauen aho-buru-eztarrietan datza, ez hizkuntzak ez dituenetan.

Ez dela egia diozu «gauza bat euskeraz egiña baldin badago... ondo dagola oso-osoan, dan-danean». Ez, arraioa! Nor da horrelakorik uste duena? Erakuts zadazu, mesedez, horrelakoren bat, bere izena eta itxura hemendik aurrera gogoan ongi gorde ditzadan.

Bada, ordea, diozun beste zerbait: «Ez dezagula gaurko gure jokaerarekin euskerarenganako gorrotorik sortu erazi. Arrixku gogorrean gaude. Au esan bearra zegoan, eta ala bear eta nik esan».

Ez dakit zure arrazoibideaz ongi jabetu naizen eta, hartu dudan bezala eta hartu dudan neurrian, hemen zabaltzera noa. Inoiz «gure izkuntza... izan zitekean garbiena» zelako puntuan ez duzu, oker ez banabil, zerorren iritzia azaltzen, besterena baizik. Garbitasun horrezaz mintza gindezke luzaroan, hemen mintza naitekean baino luzazkiago: garbitasunaz beraz eta garbitasunaren iturburuez. Baina ez da orain dihoakun hauzia.

Arrazoibidea honela ikusten dut: a) zenbait (gazte edo) ari dira gure artean inon sor ditezkean barrabaskeriak idazten; b) zenbait horiek euskeraz idazten dituzte barrabaskeriak; c) munduaren azken-fina hurbil ez badago, izango dira gazteagoren batzu oraingoen ondorengo; d) gazteago horiek, behar bada eta Jaunak nahi badu, hobeak izango dira, hots, ez gurasoak bezain aldrebeskerietara emanak; e) gazteago horiek euskeraz jakingo dute, gurasoenak irakurtzeko lain, behintzat. *Ergo*, f), gazteago horiek gorroto izango dituzte gurasoak (hori gaitz erdi litzake) eta, bidenabar, gorroto izango dute gurasoek erabili duten hizkuntza.

Kate-maila ahul xamar bat bederen aurkitzen diot arrazoibide horri, eta esplikatatu dudana besteren gogoetan ispilu zuzen izan ledin nahi nuke. Hona. Gazte horiek euskaldun hutsak izango dira ala (ez edo!) beste hizkuntzaren bat, ingurukorik edo ez hain ingurukorik, dakitenak, bereaz gainera. Bestela, oraingoek ez bezala, pentsatuko dutela segur da, ez hain segur zer-nolakoa izango den «bestelakotasun» hori. Nolanahi den, hor nonbait pilatuak dauden bonbak airean barrera bidaltzen hasten ez badira, inolazko dudarik gabe esan dezakegu besterik ere jakin beharko dutela, euskeraz gainera. Eta azken esaldi honek dudazkorik baldin badu, azken partea bakarrik izan dezake duda-mudakoa.

Zer aurkituko dute, batekoak eta bestekoak irakurtzeko gaitasuna eta gogoia dutelarik? Garbiak oro erderaz, inongo erderaz, idatziak eta lizunak oro euskeraz? Gogoeta zuzenak besteren hizkuntzan beti eta okerkeriak, berriz, gurean? Are gehiago. Likits eta gor-

dinkeria ugariago aurkituko dute, ehuneko horrenbestean, euskeraz edozein erderaz baino? Eurantzunik gabe utziko dut galdera: zuk dakizulako zein den, nik dakidalako eta mundu zabal osoak dakielako, begien bistan bait dago. Ez dute, beraz, gure hizkuntza hutsa higuinduko, hizkuntza guztiak izango dituzte higuin eta, beste biderik ez dutelarik, gogozko mutu bihurtuko dira, hain galgarri den mintzatzeko gaitasuna erdeinuz baztertuaz.

Aski dena aski da, eta noan bidez-bide Sagarzazu'tar Joseba-ren kezka larriak zertxobait arintzera. Ez, zaude trankil, ni ez naiz euskera. Are gehiago, ez dugu zientifikoek (gizatalde zantar horretan ni ere sartzen banauzu) hizkuntza hori, euskaldi ta guzti, asmatu. Ez da gehiegizko harrokeria, sinista zadazu, baina, inoren obra zuzentzeko eta hobetzeko gogorik gabe, guk asmatu bagendu, egungo eguneko premietarako prest sortu bagendu, euskalkirik gabe sortuko genduen. Batasun hori zer den jakin nahi zenduke. Horrenbeste jende, hain aspaldidanik —ta alferrik, dirudienez— horrezaz mintzatu ondoren, nola nahi duzu nik izkutu sakon hori azaltzea? Behin batean, Pikabea zenak, bestetaz ari zelarik, esan zuena datorkit gogora: «Batasuna zer dan galdatzen didazu, Pello Errota?» Badira, Jainkoari nahi dakiola, oraindik erantzunaz oroitzen direnak.

Hortxe bertan jakinduriaz eta sakontasunaz diozunak ez du (barkazio eske natorkizu, berriz ere) ez bururik ez zentzurik. Ez da hori pilota-partida, ez ajedrez-jokoa, ez Urtain-en burrukaldia, eta ez nabil inor gutxietsi beharrez. Nor-gehiagoka hauetan, irabazlerik ez duten edo hala-holako erabakien ondoren eramanak izan diren zenbait jokaldi baztertzuz gero, bat gertatuko da irabazian eta bestea galduan, bataren eta bestearen aldekoen aldekoen atxakiak gora-behera. Ahotan hartzen dituzun gaiak, berriz, ez dira ez metroz ez kanaz neuritzen, ez kiloz ez libralaurdenez pisatzen. Bestela esan, ez dira txapelketak; ezin daitezke zehazki neur ez konta.

Gure hizkuntza erabiltze aldetik (eta mila esker zuk usteduzun baino merezimendu gutxiagorekin, hobeak bazterturik, aitortzen didazun izenagatik), bada, zaude lasai, handiagorik: hitz-neurtuz, lanbide horretan jardun duten guztiak eta prosaz, beste ezin kontahalen artean, bestetan esan nuenez, Aita Villasante eta aski jorratua izan den liburu agertu berri aski baten egilea. Nork uka nik behintzat ez, gainera, izan dela euskalari sakonagorik eta jakintsuagorik?

Zure arrazoibide horrek, ordea, eta begira nolako makurkeriak asma litzakean zenbait lanbidetan luzaroan aritzeak (teknikoak eta zientifikoak, bidenabar, ez dira gauza bera, zuk besterik uste izan arren: horixe bakarrik behar genduke!), aspaldiko hura dakarkit gogora: «Baditu Eliza Ama Santak...» Ez, adiskide, zu zaude ene

kontra, eta *zuk* duzu hauzia enekin, ez direlako sakonagoek, jakintsuagoek eta gure hizkuntza hobeki erabiltzen dutenek. *Zuk* erakutsi behar duzu zertan eta zergatik dauden kontra eta, oraingoak ez balira, zertan eta zergatik egongo lirakean *orain*, etungo egunean, kontra. Inork baino hobeki ezagutzen ditut agertu ditudan iritziek dituzten alde txarrak eta okerrak. Argitara diren paperetan, eta dirudienez inork gutxi irakurri dituenetan, ikus ditzakezu ene dudak eta zalantzak. Hobe dagokit besterengandik argia hartzea, besteri eskaintzea baino. *Zure* argien eske natorkizu, ez beste sakonago eta jakintsuago horien eske. Ez ditut behar adina ezagutzen, baina uste ahal duzu zinetan alde handia ateratzen didazunik gai horretan?

Ez nuke, baina inondik ere ez, bidez-bide nabilen bitartean, hain ozenki eta buruzki mintzatu zaigun «Zaloña» jauna hitz bi esan gabe utzi nahi. Atariko gisa, gainera, ohar desegokiren bat edo badut beretzat. Gerla-aurretik, artikuluen behe-aldean izengoitia edo izenordea ipintzeko ohidura arras hedaturik zegoen: etxekoen artean genbiltzan, xuriak eta garbiak ginan guztiok, eta bakoitzak bazekien nor zen nor. Orain, berriz, gazte maltzurak direla medio edo, itsuski xamar dirudi horrela jarduteak. *Zuk* badakizu nor naizen, baina nik ez dakit nor zaitudan, edota, baldin badakit, zeharbidez dakit. Horren iritzi zorrotzak, horrenbesteko oihu eta deihararrak, zorrotzagok eta ozenagoak lirake, azpian zure izen propioa baleramate.

Baina, gatozen harira, eta haria ez da hemen listaria, baizik soka lodia. Harrimena izanik filosofiaren lehen iturburua, Platon-ek zionez, gure herrian izan den filosoforik gogorrena izateko bideetan dugu delako «Zaloña». Begira zerk harritzen duen. Duela zenbait urte, Donostiako *El diario vasco*-k galdera batzuek egin zizkion zenbait pertsonari, ni ere horien artean nintzalarik, euskeraren etorkizunaz. Funtsez, ederki jaso du hitz bitan nik erantzun nuenaren muina, baina, ordukoak eta oraingoak elkarrekin erkatuaz, bere buruari, eta bere buruaren bitartez Euskalherri osoari, zerbait galdatu nahi lioke «Zaloña»-k: «Eta or dago gustiz arritzen nauen koxka! Orain bost-sei urte, ogei bat jaun ospetsu [sic] artetik, *bat* bakarrik ere kontuan ez erortzea, *il-edo-biziko* estualdi ontan, alegia, euskera bateratzea zala gaitzaren kontrako erremerio santua!... Iritziak, noiz-nolakoak izaten dira-ta, litekena da, gaur euskera bateratua aldezkatzan duen jaun jakintsuak [sic] arrazoi izatea. Baiñan baserrian jaio, azi eta ezitako ez-jakin bat naizen aldetik, ori beia baiño leenago uztarria ekartzea dala uste det... Nola nai dala ere, jaun oietako batzuen muiñean zer darabilen jakitea guttiz onurakorra izango litzakeala deritzat, bai euskera eta Euskalherri osoarentzat. Misterio batzuek larru gorrian jartzea ere komeniko litzakeala uste det.»

Goazen, bada, «Zaloña»-ren gogara, misterio beltz hori biluztera edo, nahiago badu, larru gorritan ipintzera. Halaz ere, bihoa aurretik nik, edozein Internazionalekin har-emanik baldin badut, sortzeko den Bostgarrenarekin dela: egunen batean gobernatu guztiek gobernatzaile guztien kontra sortuko dutenarekin, alegia. Hori esanik, diodan gainera, uste zuzenez nahiz okerrez, etxeko arropa zikina nahiago dudala etxean garbitu, etxetik kanpokoen aurrean baino. Hots, gure hizkuntzaz, erdaldunen aurrean mintzatzen naitzanean (euskaldunak ere irakur dezaketelarik, noski), ez ditudala aipatzen ere izan ditzakean ahuleriak eta gaitzak. Batasunik eza, edozeinen begietan («Zaloña»-renetan izan ezik, behar bada), ahuleria eta makurra denez gero, ez nuen ahotan hartu ere, harako *nec nominetur in uobis* hartaz baliatuaz. Gainera, eta hemen datza delako «koxka», ene eta edozeinen iritziz, nahi nuen irakaspede den euskera, ikastoletan eta ikastoletarik gora erabiltzen den euskera, ez daiteke izan, *eta ez da*, inoren «amaren hizkuntza». Hizkuntza nolarebait batua da, nahiz batasun hori herri batekoa izan eskualde batekoa edo Euskal-herri osokoa. Bai, «Zaloña». Ez diote ez zure haurrei ez besterenei ikastolan «amaren hizkuntza» irakasten, baizik eta mintzaera horretarik hurbilagoa edo urrutiagoa, baina bestelakoa, halaz guztiz. Zuk, esate baterako, *semiana* esango duzu eta zure haurrei *semearena* irakasten diote.

Gauza bat da aho-hizkuntza eta bestea, arras bestea, hizkuntza idatzia, ez hau edo hori, baizik edozein hizkuntza idatzi, gehiagoko edo gutxiagoko neurrian. Frantsesez, ikasi berria dut, esan dezakezu, ahoz esan, *tandis que s-rekin* edo *s-rik* gabe, *peut-être t-rekin* edo *t-gabe*. Baina zorigaiztokoa *s-rik* gabe bata eta *t-rik* gabe bestea idazten dituen haurra eta pertsona hazia!

Ez du inork esan —nik behinik-behin, ez— gure hizkuntzaren batasuna dela soinean daramazkien gaitz guztien erremedioa: besterik diona, ez da egiazki mintzatzen. Baldintzak, jakina denez, bi eratakoak dira: beharrezkoak eta nahikoak edo, giputz zaharrek ziotenez, aski diren adinakoak. Bigarrenak, esan beharrik ez, zorrotzagoak dira lehenbizikoak baino. Ez da aski gure hizkuntzaren batasuna euskerak iraun dezan, ez urrik eman ere; ez da aski, baina premiazkoa da, batasunik gabe ez bait du iraungo, bizi geran oraingo eta biharko mundu honetan. Batasuna eginik ere, gal daiteke; batasunik gabe galdua dago alde aurretik. Eta hau ez da ene uste ustela, euskaldun anitzena baizik. Galda ezaiozu edozein hizkuntzaririri eta ikusiko duzu zer erantzungo dizun.

Batasun-asmoa sortzetik bertatik zekarren Euskaltzaindiak. Are gehiago, sortu baino lehenagotik. Eleizalde zenaren izen maiteak baiditu zenbait kutsu, berak ez bait zituen bere usteak, iritziak eta joe-

rak izkutuan gorde sekula. Nolanahi ere den, badakizu zuk nik bezain ongi ez zebilela haren muinetan zuk susmatzen dituzun jobabide makur horien aztarrenik.

Eleizalde bazekien, eta bat nator zalantzarik gabe, bi alde berezi dituela gure hizkuntza jasotzeko lanak: gizarte-aldekoa eta hizkuntzarekikoa berarekikoa. Berak 1918-an Oinatin egin zuen hitzaldi ezagunean «aspecto social» eta «aspecto literario» izendatzen dituenak. Bigarrenaz dioena (eta bigarrenaz bakarrik ari gera mintzatzen azken-aldi honetan) aldatuko dizut honera, eta zegoen gisa erdaraz eman, bai bait dut halako susmo gaizto bat horrelakoak, gure hizkuntzara aldatzen direnean (eta hauek oraindik orain aldatu nituen) ez direla inoren belarrietara iristen:

«Se sigue de ahí [de la falta de tradición literaria] que todas las diversificaciones populares en cuanto a dialectos, fonética, etc., se reflejan inmediatamente en el Euzkera escrito [hori duzu «amaren hizkuntza»]. Resulta, por ejemplo, que una misma palabra, de las que pertenezcan al acervo común de todos los dialectos como caso más favorable, recibe diez, doce o más transcripciones gráficas distintas, según las variaciones fonéticas, más o menos legítimas, que al escritor se le ocurran emplear. *Esta situación me parece sencillamente insostenible, porque creo que es un postulado ineludible de toda literatura* [eta aritmetika, gramatika, edo erlijiozko eskolaliburuak «literatura» dira, idatziak daudenez, «letrak» dituztenez] *que la transcripción gráfica de cada palabra sea en lo posible estable. En las lenguas muy cultivadas literariamente, las palabras escritas tienden cada vez más a ser signos ideológicos y a apartarse de su primitivo carácter de meras transcripciones fonéticas. Para la vista del lector ejercitado, la transcripción gráfica de cada palabra tiene su relieve especial, su perfil, digamos su "fisonomía", que se percibe de un simple golpe de vista, que evoca al instante la idea correspondiente, según la sencilla experiencia que cada uno puede hacer en sí mismo. La verdadera facilidad en la lectura está ahí, y esa facilidad no puede existir en la lectura euzkérica mientras subsista la fantástica variabilidad en la transcripción de las voces vascas.»*

Hor duzu zer den beti ahotan duzuten haurarentzako «erraztasun» hori. Irakurle trebetuarentzat (*el lector ejercitado*) erraza denak, nekagarria izan behar, nahi ta ez, haur trebe-gaiarentzat, hots, irakurtzen ikasi behar duenarentzat. Ikastoletako haurrek irakurtzen eta idazten ikasi behar bait dute euskeraz, ez mintzatzen, bai bait dakite mintzatzen gehienetan gurasoei eskerrak. Eta «la letra con sangre entra» delako hura —ez dut euskal-ordainik ezagutzen— ez

zen alferren bati, denbora eman beharrez, burura zitzaion aterakari hutsala.

Baina Eleizalde urrutiago doa: «...la cuestión batallona ha de ser, seguramente, la relativa a *la necesaria unificación dialectal*. Esa unificación, como la unificación fonética, no se pretende para el uso vulgar, sino tan sólo para el uso literario, y principalmente para el escrito [bestela esan, Zaloña, ikastoletarako hain zuzen, han irakasten bait dute idazten]. Tenemos hoy, para una población de medio millón de euzkeldunes, tres principales dialectos literarios. *Es evidente que esto no puede subsistir*, es evidente que llegará un momento, y deseo que sea muy pronto, en que la fuerza de las cosas nos obligue a elegir un solo dialecto como literario... La mayor parte de los vascos, *por lo menos los que han pensado algo en estas cuestiones* [eta argi dago euskaldunen multzoa eta gai horrezaz inoiz pentsatu duten euskaldunena ez direla bat Eleizalde-rentzat, bigarrena lehenaren zati-multzoa dela], ven ya [1918-an] la necesidad de llegar a esa unificación; pero las divergencias de apreciación consisten en el modo de alcanzar la unificación deseada. Creen unos que la unificación deberá consistir en la preponderancia que uno de los dialectos adquiera sobre los demás, por evolución natural si se nos permite decirlo así, por motivo del número y de la excelstid de las obras literarias [begira nondik nora *h* «nazkagarri» horrek baduen zenbait indar, Auxular-ek eta bestek *h*-dun euskalkia erabili zutelako, besteak beste] que ese dialecto privilegiado produzca, y que lo hagan imponerse sin violencia a los demás... En cambio otros..., opinan que el caso del Euzkera se sale de esa normalidad, que es un caso verdadera y angustiosamente urgente [bazen orduan ere «beia baño uztarria leenago» ekarri nahi zuen bat behintzat], que necesitamos tener muy pronto una literatura completa, *muy pronto las escuelas*, y que como estas dos magnas obras —producción literaria y *sistema escolar*— *están condicionadas por la unificación dialecta, la primera* [bai, horixe dio Treveris-ko Karlos-en kutsu gutxi zuen Eleizaldek] *labor que se impone, y con mayor urgencia, es esta misma unificación. Personalmente me adhiero a la opinión de estos últimos.*»

Honeraino Eleizalde, eta gehiago nahi baduzu hor daukazu Oina-tiko Batzar-ondoan argitara zuten liburu lodia, 428-439 horrialdeetan. Nik ez dut esan, ezta esango ere, neronek proposatu (badakizu orain honelako mintza-moldeak sartzen ari zaigula, gazte jendea edo) eta aldeztu berria dudan batasunerako izan ditekean bidea Eleizaldek orduan gogoan izan zezakeana denik. Segur naiz ezetz: orain zer esango lukean, horixe da ez dakidana eta jakin gogo nuk-eana. Segur dakidana besterik da: ez Eleizalderen, ez neronen, ez

hark dion bezala hortaz, beste hizkuntzei begiralditxo bat emanaz, noizean behin bederen pentsatu duenaren ustez, ezin dezakeala iraun gure hizkuntzak oraingo heinean, bakoitzaren «amaren hizkuntza» delarik, ama horiek gehiegi direlako eta desberdinegiak dituzten mintzaerak

Batasun-bidez abiatzekotan, nahi-ta-ezkoa da, aldez aurretik, zer batu nahi dugun jakitea; zein diren euskalkien arteko bereizkuntzak ezagutzea. Euskara *norberaren* «amaren hizkuntza» dela uste duguino, eta ez hauzokoaren amarena, batasun-bidean gera beti. Bidean ez ezik, batasunean bertan: aski da, eta hori da uste duguna nahiz aitor ez dezagun, beste guztiak *guregana* makurtzea, gainerakoek *guri* amore ematea. Gauza errazagorik!

Izenak gora eta izenak behera hasi geranez gero, eta ez naiz ni lehenik hasi, liburu bat aipatuko dut, azaldu nahi dudana grafikoki adierazteko ez bait dut bitarteko erosoagorik aurkitzen: joan den urtean, Donostian, Oñatibia'tar Jonen argitara duen *Iztegi berria*. Horren zatietarik «irugarrena, BIZKAI'ko gure anayak maiz erabili ta gureztat arrotz diranen iztegia da».

Ni baino miresle zintzoagorik ez du Oñatibiai gure hizkuntzaren alde egin duen eta atertu gabe egiten ari den lanagatik. Baina, nola esango dit oiartzuar horrek errenteriar honi batarentzat eta bestearentzat «arrotz» direnik, esate baterako, *beta* 'asti', *ede* 'uhal' (*ere* esaten duzute zeuok!), *erein* eta *iñozo* 'ergel'? Nondik atera dai-teke *idor*, Oiartzungo mugetan bertan hasirik ipar-sortalderantz hedatzen den hitza, Bizkaikoa denik? Bereziak bagaude zorigaitoz hizkuntzaren aldetik, ez ditzagun bederen bereizkuntza horiek geurok gehi eta nahasteka. Besterena zer den behar dugu jakin, ez bait da «besterena», geure-geurea baizik.

Biderik onena, berez, besterik litzake: gure hizkuntza dagoen dagoenean gordetzea, euskalki eta euskalkitxo, hiri eta hirixka guztietako ñabardurak bizirik dauzkala. Bide horrek ere badu, haatik, bere «koxka». Mundurik onena hautatu omen zuen Jainkoak, Leibnizek zionez, gure hau sortzekoan; ez, ordea, erabat onena, baizik eta *inter possibilia* onena, izan zitekean mundurik onen hori mundu zelarik eta ez hutsik gabeko, Jainkoaren beraren pare. Hutsez eta makurrez betea sortu zuen, bada, baina ahal zitekean neurrian hutsik eta makurrik gutxien zituena, halaz ere.

Batasunik ez horrek, hain ederra izanik, geure bizkarrek inolaz ezin eraman dezaketan karga ezartzen digu gainean. Batasunik ezak behartzen gaitu, nor bagera, euskalki guztien —handi eta txikien— berri jakitera, euskaldun bakoitzaren «amaren hizkuntza» ezagutzera. Inork jakitekotan, hizkuntzalari trebe eta euskerari bakarrari emana dagoen batek jakin dezake, gehienez ere, horrelako zerbait.

Bestela esan, pertsona hazi, hezi eta arras trebatua denak. Nola eska horrelakorik gure haurrei?

Hori ezinezkoa izanik, batasun-bidea gelditzen zaigu soil-soilik. Batasunak, edozein batasunek gero, galera berekin dakar: ez da, hasi berrian behintzat, inoren «amaren hizkuntza» izango, esperanto-usaina itsatsiko zaio nora-ezean, ñabardura aberatsik gabe agertu beharko du jendartean. Zer dugu, halaz ere, hobe. Horrelako euskera eskasa ala inolazko ez dena, hilik datzalako?

Hona, ni ere harritzen hasia bait nauzute, zerk harritzen nauen gehien eztabaida honetan guztian. Arantzazurako lanak prestatzeko hautatu zuten batzordea (eta ni bestek hautatu ninduen, ez nuen neure burua hautatu eta, egia esan behar baldin badut, nahiago nuen hautatu izan ez baninduten), bete-lan gisa, batasunerako balio zeza-kean eredu baten zenbait ezaugarri nagusi markatzen hasi zen, besteak —gehienak— beste baterako utziaz. Eskubide osoa du nor nahik eredu horren akatsak eta aldrebeskeriak (bai bait ditu, dudarik gabe) erakusteko, eredu erabat baztertzeko eta arbuizatze ere bai. Baina («Baña... O baña madarikatuba! Baña infernukua!», Astarloa frantziskotarrak zion modura) eskubide osoa du eredu eskas horren kontra beste eredu hobe bat aurkezten baldin badigu. Beste eredurik ez baldin badakar, ez du, ene ustez, mintzatzeko eskubiderik. Bestela esan, ez dut nik ixil-eraziko, bere kontzientzian eraman behar duen harrak ixil-eraziko du. Batasun-bide horren kontrako agertzen zeran horrek, *beste* batasun-bide hobeagoa zor diguzu. Ez baduzu hoberik eskaintzeko, bazoazke bakean zeure bidetik. Eta hau, hain zuzen, Euskaltzaindiaren beraren izenean esan daiteke, Euskaltzaindia, gainerako helburuak gainerako, batasun-beharrez sortua izan bait zen.

Euskaltzaindia aipatu dudanez, hitzak hizpidea ekarririk, diodan zerbait Euskaltzaindiari berari buruz. Arantzazuko batzarren gaia *h* sartzea ala *h* kentzea izan zela dionak ez da egiaz ari. Diodan garbiago, eta ez dakit zergatik hain indar bortitza egozten zaion biribiltasunari: gezur biribila dio eta, gezurretan mintzatzeaz gainera, ezin-sendatuzko ezjakintzat dauka bere burua, ez bait ditu irakurri nahi izan batzarre horrezaz argitara diren paperak. Erabakiak, egia, horrezaz bakarrik hartu ziren, besterik gero hartuko zelakoan, baina ez ginan horrezaz bakarrik mintzatu, ezta gutxiagorik ere.

Erabaki horiek, eta geldi bedi hau argi eta garbi, *hartu* egin bait ziren, eta *Euskaltzaindiaren erabaki gisa hartu*, gainera. Aita Akosolok ere orain «franko-tiratzaille» antzera ibili beharrean orduan behar zukean lekuan mintzatu izan balitz, balekike zergatik ez zen izan «Azaroan Oñatiko Unibersidadean Euskaltzaindiaren urre-ez-taiak ospatzeko izango diran» jai-aldirik. Nik behintzat gogoan dau-

kat nola izan ginan han Oinatiko alkatearekin, zer esan zigun eta zertan gelditu ginan. Horrelako formalismo hutsak orain ateratzea ere! «Entzuteko belarridunak bentzu», Aita Olabidek itzuli zue-
nez, eta ahoduna mintza bedi behar den lekuan eta garaian, ez des-
sorduan eta deslekuan. Ez du lotsaizunik, beste eginkizunik gabe,
Salamanca-tik etorri zenak. Lotsaizuna lotsaizunik inork baldin ba-
du, Euskal-herrian zegoelarik agertu ez edo mintzatu zenak du, soil-
soilik. Hori, nik uste, behar bezain argiro esana dago Satrustegiren
ahoz.

Hizkuntzalarien egitekoaz hitz bi erantsi nahi nituzke. Ni ez
naiz teknokraten aldekoa: deus baldin banaiz, etsai amorratua nau-
zute. Erabakiak, nik uste, ez dituzte inolaz ere teknikoek hartu be-
har, politikoez (hitz honek izan dezakean adierarik zabalenean) bai-
zik: herriak horretarako hautatu dituen politikoez, noski. Tekni-
koez lana erabaki horiek ahalik errazen, lasterren eta ekonomikoen,
nolarebait esan, eragitea da. Hizkuntzalaria ere, hizkuntza-gaietan, ez
da tekniko bat besterik. Euskal-jendeak, gero eta ugariago, zerbait
nahi zuela iruditu zitzaidan. Jo-muga horretara jotzeko erosoan uste
nuen bidea hartu nuen, besteren mandatari bezala, ez neure kabuz.
Ez nintzan, beraz, teknokrata izan, baizik tekniko soil. Gaitasuna,
tekniko izateko beharrezko dena, edonork uka dezake: edonork, nik
neure aldetik (eta bestek beretik, ez bait nintzan, ez urrik eman
ere, ni bakarrik mintzatu han) aurkeztu nuenaren aldamenean, nik
aurkeztu nuenaren kontra, nahiago baduzute, beste zerbait aurkez-
ten baldin badu. Hona ene «desapioa»: kontu hauek jendaurrean
astindu nahi dituenak, prest gauzka, uda-aldean edo, jendaurrean
ahoz-ahoz eta aurpegiz-aurpegi aztertzeko. Donostian, bestetan ez ba-
da, idoroko dogu leku egokia horretarako. Baina, hau bego garbi,
bere aldetik zerbait ekarri beharko du eskaintzeko, okerragoaren truk.
Ez dedila esku-hutsik ager, aski esku-hutsik bait gaude euskaldun
guztiok.

Medikurik ez nuke hemen aipatu ere nahi. Medikuak, sasi-me-
dikuak, enplasteroak eta petrikilloak maizegi hartu dira ahotan az-
ken aldi honetan, batetik, eta gora begira nago beti, bestetik, ea noiz
mugituko den buruaren gainean Garate jaunak, Damoklesen harako
hura baino zorrotzago, ipini didan ezpata. Badakizute, noski, nor
dugun Garate hori: bere lanbidean mediku on baino besterenean
enplastero izan nahiago duen bergaratar (inoiz) ezagun hura. Ber-
bera da, hain zuzen ere, euskaldun bati bere hizkuntzaz mintzatzeko
(hemen ez dihoazkun hauzietan) arrotzen baimena, alemanena bal-
din bada hode, eskatzen diena.

Ezin ditzaket, ordea, gogorik ez badut ere, medikuak bakean
utzi, Hipokratesen zina gogorazi digun Arenaza jauna dela medio:

«lenengo eta bein, ez [eriari] kalte aundiagorik egin.» Garbi dago hori xehetasunetan sartzen ez geran bitartean, baina ilun, arras ilun, horrelako erabateko oinharriekin gertatu ohi den bezala, aurrean daukagun eri hau edo hori gogoan dugunean. Ez ote da egia zuek, medikuok, sarritan gainera, zirt-edo-zart, hil-edo-biziko erabakiak hartu beharrean aurkitzen zeratela? Maiz aski ez dakizutela zer izan litekean onen: eria dagoen dagoenean uztea, ea bere kabuz (zuen laguntzarekin, noski) gaitza garaitzen ote duen, ala, arriskurik baldin bada ere, senda dezakean bide gogorragoren bat (operazioa, adibidez) hartzea? Nik behintzat horrela uste dut: ez dakizutela, asmorik onenarekin, zenbait aldiz, zein bide hauta. Pentsatzekoa dirudi beraz ez ote ditekean beste horrenbeste hizkuntza baten egoerarekin gerta. Batez ere, orain arte, luzaroan gainera, erabili diren sendabideek ondore onik izan ez dutenez gero.

* * *

Bistan da, bada, darabilgun hauzia ez dela erraza, ezta ere aise erabaki ditezkean horietakoa. Gure hizkuntzarentzat kaltegarria gainera, esango du agian norbaitek. Hori, egia esan ez dut uste. Probetxuzkoa deritzat, aitzitik. Deus kaltegarririk, are hilgarririk, baldin bada hizkuntzarentzat, antsikabekeria da, arduragabekeria, eza-xola. Kezkatzen geran bitartean, amorru bizian elkarrekin sesioan ari geran bitartean, hizkuntza bizi da eta gu ere, euskaldun geran aldetik, bizi gera. Borrokarako gogoia eta kemena barrenen sutan dugun biziak ematen digu.

Komeni ere da, hizkuntzaren aldetik, harako «barrabaskeriak» euskeraz argitaratzea, bizi delako seinale nabarmen bait dira. Ingu-ruan somatzen ditugun ideia eta iritzien arteko gerla garratz-suminak gure herrian eta gure hizkuntzan somatuko ez bagenitu, hilik ginake edo gure hizkuntza bederen hilik legoke. Hori, esango du norbaitek, gaitzaren ordeztu gaitzagoa sartzea da. Bai, nahi baduzu, baina ni hizkuntzaren biziaz ari naiz, besterik gabe. Ez besterik ez delako munduan, baizik eta munduko zer bakoitzari zor zaiona aitortu behar zaiolako, besteak beste.

Duela zenbait urte, 1957-an, «Sarrera-hitz batzu» ipini nizkion, lehen aldiz ene bizian, *Leturia-ren egunkari ezkutua*-ri: adiskide dudan egilearen izenik ez dut emango, iskribau jaun ezagun bat eta bere aldizkaria are gehiago aserra ez ditezen. Ez dut uste garai hartan igerle miresgarri nintzanik; urrutarako betaurrekorik gabe nork nahi ikus zezakeana baizik ez nuen esan, hain zen nabari. Baina oraindik ere ikusi nahi ez dutenik aski denez gero gure artean, honera aldatzera noa zenbait pasarte ortografia, hori bai, zertxobait

aldatuaz, gezurra badirudi ere ez bait naiz sekula, oraintsu arte, *h-zalea* izan:

«Ez da zalantzarik Lizardi-gan. Pozik dago biziak eskeintzen dionaz eta fedea agintzen dionaz. Alferrik bilatuko duzute beragan Europa eta mundu guztia dardarazten hasia zen lur-ikararen berri-rik. Dardarak ez ginduen artean ukitu edo, ukito baginduen ere, begi-belarri erneak eta arima urduria behar ziren zirrara sumatzeko. Bizileku sendoan bizi zen. Zimenduetan ez ezik, ez zen paretetan artesiturik ageri. Axalean zertxobait aldaturik ere, bizimodua, uste, irtitzi eta sinesteak ohiturazkoak ziren, gurasoengandik zetozenak, eta gizaldi berriek aztertu gabe bereganatzen zituzten, beste edozein ondasun bezala. Inguruan, Euskal-herria zeukan, euskal-lurraldea, zuzgaitz ugariz jantzia. Ez zuen inongo amets-herritara ihes egin beharrik. Aski zuen aurrean zeukana kantatzearekin.

«Engainatua zebilen. Gaur badakigu astindu gaituzten lur-ikarak sortuak zirela ordurako, eta ez direla berehalakoan baketuko. Zorioneko gorrieria orduko, alde batetik, hari zor bait diogu ihartuko ez den Lizardi-ren poesia, gure eta ondorengo atsedentoki baketsu izateko sortua. Baina ez Leturia-k ez X-ek ez gaurko nor nahik ez dezake entzungor egin. Bizibeharra eta ezinbizia aurrean ditugu, ezin ditzakegu besterik gabe guregana usteak, sinesteak, bizibideak, ohiturazkoak direlako bakarrik, zehatz eta astiro esaminatu gabe.

«Trankilago bizi gaitzke uholdeek eta hize-erauntsiek ere iharrosten ez duten etxean, oinharriak berak koloka dauzkanean baino. Egia. Atseginagoa zen Lizardi-ren mundu geldia gaurko gozogabe hu baino. Egia hori ere. Ez du ordea inork bere mundua, giroa eta sorteguna hautatzen. Nor geure aldi eta tokian gertatzen gera, nola ez dakigula. Eta gurekin jaiotzen da, gure aldiko seme jatorrak bagera, harako antzinakoen *amor fati* hura, gure denbora —gure sorteria bezalaxe— beste edozein baino maiteago bihurtzen diguna. Gurea delako nonbait, guretarrekin itsatsirik gaudelako.»

* * *

Deus gutxi ikusten dut miresgarririk egungo egunean gure herrian. Zenbait euskaldun hainbesteraino asaldatzen dituzten esanak mila aldiz entzunak eta irakurriak ditut bestetan. Miresgarria besterik da: Lizardi bat sortu zen garaian sortzea, Orixe bat bizi zen aldietan bizitzea. Hura da harrigarri, ez hau. Hor aipatzen nuen lur-ikara etxean dugu orain eta nola ez genduke izango horrelakorik? Ez gaitzen gehiago mundu honetako, garai honetako munduko, ez diren Paradisu galduen bila ibil.

Ez gendukean sekula, ardurarik izan bagendu, utzi behar gizaldien eta belaunaldien arteko borroka heldu den punturaino hel zedin. Elkarrekin bizi behar dugu, zenbait urtetan behintzat, herri berean bizi behar dugu, guztiok —nork batera, nork bestera— maite dugun herrian. Eta irekirik egon behar du elkarren arteko mintzabideak, nahiz mokoka ari, nahiz errietan ekin.

Gazteek ez omen dituzte gure alde onak ikusten, ez omen dute ezagutzen egin dugun lanaren balioa. Badaiteke; are gehiago, horrela da. Guk, zaharragoek ez omen dugu haien berri jakin ere nahi. Ezin uka, hori ere.

Zaharragoetarik zenbait ez ote gaude beti prest gazteek egin dezaketen edozein gauza ez haintzat hartzeko, gutxiesteko edo arbuiaitzeko? Ez ote gabilta guztiok elkar ezin-ikusirik, lekua kenduko diguten beldurrez batzuek, lekurik uzten ez diotegulako amorruez besteak?

Gure artean sutan dauden ezin konta ahala istilu horiek (aldizkarietan dela, liburuetan dela, bazkuntetan dela, ikastoletan dela, erlijio-gaietan dela, politikan dela) funtsezko belaunaldi-borrokaren ageriko ezaugarriak besterik ez dira, ene ustez. Gure artean ditugunak bezainbeste non nahi, edozein herrialdetan, ikusten direnak. Adin-kontua ez balitz, nola igertzen diogu lehen ikusten dugun norbaiti, eta % 90-etarik gora zuzen igerri, zer pentsa dezakean honetaz eta hartaz.

Har ezazute linguistika, berez politika edo erlijioarekin zer ikusi gutxi duen gai elkorra. Halarik ere, gauza jakina da. Nonbait, Parisen edo hizkuntzalari edo hizkuntzalari-kumeren batekin mintzatzen bagera, ez dugu luzaroan zain egon beharrik zein bidetarik dabilen antzemateko. Gaztea bada, Chomsky, McCawley, Fillmore edo are berriagoren baten deabrukeriak aterako dizkigu hasi orduko; zaharra delarik, berriz, horrelako izenik aipa baledi, berehalaxe zimurtuko dizkigu ezpainak erdeinuzko nahi lukean irriparez. Egia da, bai, Chomsky-k eta oraingo ezker-aldera jotzen dutela gehienbat politika-gaietan; egia ere da, zaharrago horietarik, franko eskuindar direla (P.C.F.-koak eta). Bi joera horiek ez dira, ordea, bata bestearen seme, lokaririk aski ez dutenez gero elkarrekin, erro bakar batetik sortuak baizik.

* * *

Dagoeneko pentsatua izango du norbaitek demagogiarik errazeari amore emanaz jarri naizela (dirudienez) gazteen alde. Ez dut hala uste. Zenbaitek, lanbidez edo nahiago baduzute ofizioz, etengabeko har-emanak ditugu gazteekin: hala beharrez gertatzen zaigu

hori, ezin-bestean, ez inor baino irekiagoak eta gogo- zabalagoak geralako. Hala beharrez, bai, baina horrela gertatzen zaigu. Gogoan zer darabilten jakin beharrean aurkitzen gera, erremediorik gabe, haien artean bizi behar dugunez gero.

Nola nahi ere den, hori demagogia baldin bada, bada beste demagogia mota bat ere, gure artean aski hedatua, oker ez banabil: «herria» eta «baserria» jende ikasiaren kontra asaldatu nahi luke-tenena, batez ere jende ikasi hau *euskaraz* mintzatzen baldin bada.

Leturia-ren «sarrera-hitz» haietarik pasarte bat aldatuko dut honera, han egileari eskaintzen niona: «Pozik gaude, berriro ere esango dut, «X» euskal-soro meharrean ari zaigulako. Eta orain, inor ez banaiz ere, ongi-etorria egin nahi nioke buru-langile edo direlako-koen sail nardatu honetara, nahiz ongi-etorria baino gaizki-etorria zuzenago esana legokean. Mintzatu berriak dira Donostiako egune-rokoetan horrelakoek gure artean maiz jasotzen dituzten zehar-begiratu eta susmo txarrez. Baina, nahi ez baditugu ere behar ditugu ta gaur, gainerontzekoei ezer kendu gabe, inoiz baino gehiago. Ur lasterraren erdian goaz, ez gaude ia ertzetik begira. Mendi-tontorretara igotzarekin ere, Domingo Agirrek nahi zuenez, ez dugu deus askorik aurreratuko. Gauza asko eta asko ikasi, onhartu eta gureganatu beharrean gera. Damurik, ez da dena irabazi hutsa izango: kendu beharko da, soildu, idoki, ebaki, ezin-bestean baita maiteen duguna ere.»

Entzuna dugu «baserrian jaio, azi ta ezitako ez-jakin bat naizen aldetik» dion gure «Zaloña». Zein baserritan ikasi ote du, horixe nahi nuke jakin, *kontuan erortzen* esaten? Eta, aho-betea —hantustez, dirudienez— dionez, ez-jakin arrunta baldin bada, nondik du eskubidea irakasleei *zer* irakatsi behar duten agintzeko nahiz debekatzeko?

Harrigarri badirudi ere, bat nator berarekin puntu batean: nik agerian diodana ixilpean gorde nahi luke berak, soil-soilik, ikusten bait du adin-hauzia dugula oinharriz gurea. Zergatik gurasoak, alde batetik, eta irakasleak, bestetik? Har dezagun, eta hau ez da nik asmatua, apezpikuen multzoa eta pipa-hartzaileena. Ez daude, nabari da, Txinakoaren antzeko harresiz elkarrengandik bereziak, bai bait dira, urri edo ugari, pipa hartzen duten apezpikuak ere.

Ba dira ere guraso diren irakasleak edo irakasle diren gurasoak: nerai nauzu bat, seme-alaba aski haziak ditudana. Baina «Zaloña»-k darabilen salta horretan ez dira irakasleak gehienbat gure adinekoak; zaharragoak dira, batez beste, gurasoak irakasleak baino. Eta hortik, hain zuzen, zaharrago nahiz gazteago izatetik, ez bait da jaio oraindik aldi berean zaharrago eta gazteago izan ditekean mutilik, dator agertzen duen ezin-eramana, ez irakasle nahiz guraso izatetik.

Beste norbaitek ere ekarri du bere harri-koxkorra guztion artean eraikitzen ari geran jauregi ederra hornituago ager dedin, Euskalherrian ez-jakinak dituen alde onak goraiapatuaz. Erdara izan ohi dugunez jakite-bide, zenbat ere ez-ikasiago, hainbat ere euskaldun jatorrago. Hori ez da adarra jotzeko gogoia baizik. Hizkuntzak ez du iraungo euskaldun eta ez-jakin gauza berdinak baldin badira. Eta ikasiagoren bat gure artean, ez dakit zer-nolako mirariz, euskaraz mintzatzen hasten bada, ez dezagula, Jainkoarren, guregandik hastan eta gaitzets.

* * *

Lehenago batean, Arantzazun izana naiz. Ez nintzan hara agertu 1968-ko (zorioneko, zorigaiztoko?) batzarre haren ondoan. Han zeuden, bada, eliz-atarian zutik Oteizaren apostoluak; gorago, Oteizaren Ama Birjina. Bazen jenderik aski, ezkontza batera joanak bait ginan, bai Gipuzkoatik, bai Bizkai-aldetik, bai bestetarik bilduak.

Eta jende horrek, aho batez, atseginak, ederrak, eliza baten sarrerako egokiak aurkitzen zituen Oteizaren irudiak. Irudi horiek berberak dira, oroitzen bazerate, hain traketsak, baldanak eta desegoikiak, duela zenbait urte, iruditzen zitzaizkigun askotxori. Zer aldatu da geroztik hona? Irudiak berak ala gure begiak?

Saia gaitzen, eske hori egiten diot ene buruari eta besteri, oraingo gauzak oraingo begiz ikusten, oraingo hauziak oraingo buruz xuritzen. Ez gaitzen gal amets-bideetan barrena; utzi ditzagun ametsak lo gaudenerako. Bereizten gaituzten hauziei deus ere kendu gabe, ez ditzagun behintzat, setaz eta elkarri ezin amor-emanetz, gehi eta zabal. Bizi geralako gabiltza borroka. Eta oihi nabarmenen azpitik, ez ote dugu somatzen elkarrengana garamatzien barren-barrengo dei ixil bat? Hala uste dut nik, behinik-behin, eta gaizki esanak barka.

MITXELENA.



MONDRAGOE SUTAN (*)

(1448)

I

Jaun eta Andreak:

Aurtengo urtean betetzen zaizkitzute *zazpireun urte* Mondragoeko Erri au «Erri bildu», ots, *Villa* egin zala. Erri bildu... len Erri zabal eta Erri banatua zana, Erri bildu, Erri moltsatua... eta Erri *ormaz inguratua* gañera. Artean, Mondragoe etzan Mondragoe, «Arrasate» baizik; eta Arrasate ura Leintz-balladako auzo baztar bat zan.

Ez diteke esan, orratik, Arrasate ura «ezer etzanik». Etzan ez leku patar eta lekaro; etzan basamortu. Bizi zan jenderik asko inguru otan. Eta ez bizi bakarrik, oxta-oxta bizi, basati bezela bizi; ba zuten beren aberastasun, ba zituzten beren Legeak... oiturazko Legeak, ori bai, ez iskribuz idatzitako Legeak; Lege Zaharrak; erderaz mintzatzean *buenos usos y costumbres* esan oi zituztenak... artean ez bait-zan gure artean Legeak iskribuz idazteko oiturarik; baizik-eta Erri bakoitzeko «Erriko gizonak» buruz zekizkiten, buruz gordetzen zituzten; eta orixe izaten zan, ain zuzen, orduko gizonen jakinduri ederra: Legeak buruz jakitea, auzi ta ezta-baidaren bat sortzen zanean, ezta-baida ondo ta legez erabakitzeko.

Alakoxe izaera zuan, beraz, garai artan Arrasateko auzo edo baztar onek Lege-izaeraren aldetik. Aberastasunari eta bizibidearen izaerari begiratzen badiogu, berriz, orduko arrasatetarrak artzantzatik —pastore izatetik— bizi ziran batez ere; borda ta baserri banatuetan bizi gañera. Orixen zan orduko bizi-bide eta etxe-kontuko izaera. Artzantza eta baserri-biziera.

(*) Mondragoen egindako itzaldia (1960).

Ala ere, ez degu uste izan bear, artzantza beste ogi-biderik eza-
gutzen etzutela orduko arrasatetar aiek; nekazaritza ere ezagutzen
zuten, eta baita poliki asko, lurrak landu ere, lantzen zituzten emen-
go erriberaetan, Musibar-tik asita Musakola arteko soro bikain oietan.
Geiago oraindik; burdingintza ere ezagutzen zuten, burdiña lantzeko
Olaak ere ba zituzten; eta baita ortarako minak ere; eta ez burdin-
txarrezko minak, galtzairurik fiñena egiteko menastarik ederreneta-
koak baizik.

Guzti ori kontuan euki bear da, ta zintzo euki ere. Ez degu
pentsatu bear gaur Mondragoek daukan gutzia, zazpireun urtetik
onuzkoa duanik, eta mondragoarrok dezuten gutzia, dana, orduko
Errege Jaunari zor diozutenik. Errege ura, Alfonso X (ez-izenez «Ja-
kintsua» zeritzana) izan zan. Eta, ain jakintsu zanez, berak zekian
ondotxo zer eta zer egin zuan: len zegonari neurri berri bat eman,
alegia. Gauza berririk etzuan sortu; len sortuta zegonari izaera berri
bat, «neurri» berri bat eman zion, ots, lengo urari erreten berri bat
ipiñi. Orixe da ark egin zuana; eta orixe, zuek aurtengogora ekar-
tzen dezutena.

Ala ere, onekin ez det esan nai, Errege arek gutxi egin zuanik.
Ark orduan egin zuanak, on eta mesede aundia egin zion zuen Arra-
sate'ri. Artean etxe banatuak besterik etzegon lurraldean, etxe bil-
duzko erria sortu zuan; erri bildua; bildua eta orma sendoz ingura-
tua. Eta ola bildutako Erriari bizi ziranai, Lege berri bat eman zien
gañera, iskribuz idatzitako Lege berri bat: Gazteiz-ko Erriak lendik
zuan Lege bera. Eta orma aiek eta Lege arek, orduko arrasatetarrak,
bizi izateko, len ez bezelako beste segurantzak eta pakea eman zien.
Eta, jakiña, andik aurrera pake eder aren babesean eta itzal osasun-
garrian, lengo artzantzak eta nekazaritzak eta batez ere burdin-langin-
tzak, aurrerapen aundiak egin zituan Mondragoetan. Orregatik
diot, etzuala gutxi egin zuen Erriarentzako orduko Alfonso X «Ja-
kintsuak». Askok zor diozutela. Eta ondo egiten dezutela aurtengo
urte ontan, gauza guzti oien oroitzapena bear bezela egitea. Esker
onezko oroitzapen eder bat.

ERRI BILDUAK

Bañan galde bat orain, aurrera jarraitu baño lenago: Zergatik
izan zan Gaztela-ko Errege bat, Kastilla-ko Errege bat, gure Erri
bildu au egin zuana? Gazteiz eta Donostia, Naparrua-ko Errege batek
egin zituan. Bilbao, Bizkaia-ko Jaun batek egin zuan. Mondrago
Gaztela-ko Errege batek sortu zuan... Zergatik?... Galdera oni eran-
tzuteko, goragotik, goragoko iturritik artu bearko degu ura. Nola
zegon gure Gipuzkoa garai artan?

Gipuzkoa, betidanik, bere buruaren jabe izan oi zan (...a suis reperitur semper esse possedas, Alfonso III-aren Kronikak dion bezela - 866-910); aundi bazan, txiki bazan, bere buruaren jabe zan, orduan beste asko bezela. Ba zituan bere biztanle, bazun bere aberastasun, ba zituan bere Legeak, eta bere gobernurako ba zituan bere Batzarrak ere. Bañan guzti ori pakezko bizitzari zegokion; eta gerra-gauzetarako eskubideak ere bere eskuan zituan arren, gerraren beraren eratzea, ordea, edo-ta bere defentsaren organizatzea —gerrarako Buruzagitza, alegia, edo-ta *Ministerio de la Guerra* deritzakena— ori, aspaldi, oso aspaldidanik, Errege Juan baten eskuetan uzten zuan Gipuzkoak, berak nai ta gogoko zuan Errege baten eskuetan.

Errege Jaun ori, len-lenago, ia beti Naparroako Erregea izan oi bat-zan; bañan gerora, batez ere Gaztelako Erregeak indar-aunditzen asi ziranean, aldiz-aldiz Gaztelakoa ere izaten zan. Eta aizkeanean eldu zan egun bat, Gaztelan Errege azkar-azkar bat sortu zana; eta orduan, gure Gipuzkoa, bein betirako Errege aren legera jarri zan gerra-kontu oietarako. 1200-gn. urtea zan. Eta Errege, berri, Alfonso VIII. Errege azkarra. Txikia, bañan azkarra. *Navas de Tolosa* zeritzan Andaluzia-ko mendi-artean moro-jendea zearo txeatu ta apurtu zuana, Bizkaiko Jaunaren eta Naparroako Errege Santxo Sendo-ren laguntasun bizkorrarekin. Bañan, Naparroako Santxo ura Erregetzarako aspertzen bezela, Gaztelako Alfonso bizkortzen zijoan nunbait; eta orduan naparren bizkarretik gaztelatar ausarta arek zabaltze aundiak eragin zizkion Gaztelako lurrari, lur berri asko erantsi zizkion naparren bizkarretik. Eta lur berri oien artean bata, Gazteizko Erri ederra Araba-n... eta gure Gipuzkoa oso-osorik gañera.

Gauza nola gertatu zan, ez dakigu ondo-ondo: nolako azpi-janak eta diplomaziak erabili ziran ortarako, alegia. Ez dakigu. Bakar-bakarrik dakigu, Alfonso VIII au etzala alako gizon kezka-aundidun eta eskrupuloso azaldu bere egiteetan. Dana dala, 1200-gn. urtean pozik asko egin zuan ark gure Gipuzkoan bere sarrera. Eta egin ere, uste bait-det emendixek zear, Leintz-en zear egin zuala bere Gipuzkoako sarrera ori. Bera, egun aietan, Gazteitz-en zebillen ango bereganatze-lanak egiten; eta Gazteiztik Gipuzkoarako bidea —biderik erosoena— Leintz'en zear bait-da. Gañera egun aietan bazuan emen beste egitekorik ere: Gipuzkoa bereganatu zuanean, Gipuzkoak zeuzkan bere zortzi-amar Gazteluak zintzo asko antxe eskuratu zizkion Alfonso arri eta Gaztelu oietan bat —eta Arabatik gatzozela lenengoa— Leintzko Atxorrotx zan... Pentsatu dezakezute beraz, errex asko, nolako pozez igoko zuan Atxorrotx-gorako aldatza, zaldiz, bere

segizioko zaldun gaztelatarrez inguraturik, arako kaxkarra bezain azkar ta bizkorra zan Alfonso VIII ark.

Bañan ontaraño eldutakoan, beste azalpen eta esplikazio bat ere egin bear degu, aurrera baño len.

Orduko Erregeak ez zirala izaten, alegia, gerokoak bezela, Errien «Jaun-da Jabe». Ez gutxiagorik ere. Erriak, gero izan ziran baño askotaz ere beren buruaren jabeago izan oi ziran orduan. Ba zituzten beren Legeak, eta ez Erregeak emanak, Erregeak baño askotaz ere lehenagokoak baizik. Eta ba zituzten beren Batzarrak ere, beren Korteak, urteoro-urteoro, amaika bat egunetan beren gora-beherak aztertzeke eta gauzak erabakitzeke, eta, bear bazan, Lege berriak egiteke ere. Erregeak, beren izatez eta jatorriz, bi arazo izaten zituzten beren gain: len aipatu degun Gerra-arazoa (*Ministerio de la Guerra* esango gendukeana) eta Justizi-aundi-arazoa (*Ministerio de Justicia* esango gendukeana). Erria babestutzea, gerrateetan etsaiengandik, eta pakean gizon gaizkille ta iltzalleengandik. Ortarako Erriak ordainduko zioten urtean-urtean onenbesteko bat —bear zana— eta kito. (1)

Gauza jakiña da Justizi aundia (ots, iltzalle ta gaizkille aundien kontrako Justizia, alegia) eta berdin baita Gerra ere, gauza zallak eta gaitzak dirala errientzako; eta orregatik zan, bi gauza oiek Errege baten eskuetan —ortatik eta ortarako bizi zan gizon baten eskuetan— uztea, naiz Erregea etxekoa izan zedilla (Naparroan bezela), naiz auzokoa (Bizkaiak bere Jaunak, Rioxa-tik ekartzen zituan, Harotik, jakiña dan bezela; Gipuzkoak, berriz, aldiz Naparroa-koa auke-ratuko zuan ortarako; aldiz, ordea, Gaztela-koa, esanik daukagun bezela).

Eta goazen orain gure arira.

Erri Bilduak zer-ikusi aundia zuten bi gauza oiekin: ots, Gerra-ekin eta gaizkille aundien kontrako Justizi Aundiarekin. Orregatik izaten zuten Erregeak ainbeste gogo, beren mendeko lurretan, nunean-nunean, Erri Bilduak sortzeke. Orregatixek sortu zuten, baita, Arrasate-inguru ontan zuen Erri Bildu, gaur Mondragoe deritzana. Benetan leku eroso ta egokian.

(1) Justizi arrunta, Errietako Alkate Jaunak errian bertan egiten zuten. Orregatik nunbait errietako Kontzejuko Jaunai, "Justizikoak" esaten zitzairen. Justizi aundiagoa egiteko ere izan zituan Gipuzkoak bere Alkate Nagusiak, nunean-nunean banatuak. Hermandadeak ere ortarakoxe sortu izan ziran. Erregeak bere aldetik, arazo oiatarako Gipuzkoan Korrejidore bat ipintzen zigun, zenbait auzi aunditan gauza zuzen eramane zezan. Eta ortaz gañera bere Erregezko Auzitegi Nagusiak eskeintzen zizkigun, Valladolid-eko *Chancilleria* zalakoan.

Gerra-aldetik Arrasate Bizkaiko ta Arabako mugetan zegon ta dago; ain zuzen, bi bideren bidagurutze-bidagurutzean: Aramayorako ta Gatzaga-rako bidagurutzean. Gerrarekin zer-ikusia aundia bait-zuten bi bideren gurutze oiek. Eta, ain zuzen, ta ain egoki, mendi-muño bikain bat zegon Arrasateko bidagurutze artan bertan, antxe, Gaztelu eder bat egin-da, Gaztelu aren babesean «Erri Bildu» eder bat egiteko. Etzan arritzeko, beraz, Arrasate artan, gerraterako babesgarri bezela, Erregeak olako Erri bat sortu-nai izatea.

Justizi-aldetik ere ba zan arrazoirik asko, beste orrenbeste egiteko, garai artan. Garai artan lapur eta gaizkille asko izaten bait-zan baztarretan. Eta gaizkilleak batez ere, asko zezatekenak izan oi ziran, aundizkiak, alegia, errietako aberatsenak, gerotxuago esango degun bezela. Eta ain xuxen, gaizkille eta lapur, danok, orduko etxeak, baserriak alkarrengandik *banatuak* izaten ziralako baliatzen ziran ainbeste beren lapurreta ta gaizkietarako. Beraz, gaizkille aien bizkarretik justizia egingo bazan, bidezko gauza zan baserri aien erdian «Erri bilduak» sortzea. Eta orixe izan zan Erregeak egin zutena. Orixen, gure Arrasate-rekin Alfonso X Jakintsuak egin zuana.

Azkeneko galdera bat oraindik, ari oni jarraituaz: Nola artu zuten arrasatearrak olako «Erri bildu» bat Errege Jaunak beren lurrean egitea?

Erantzuna: batzuek gaizki, oso gaizki artuko zuten; besteak ondo, oso ondo. Gaiztakeriak egiñez bizi ziranak —gaizkille aundizki aiek, ots, Oñeztar ta Ganboatarrak— gaizki artuko zutela, gauza jakiña da. Bañan erriak, erri xumeak, bere lanetik bizi zan erri xeiak, oso ondo.

Orduko paperetatik ez dakigu ezer; bañan andik urte batzuetara ba dakigu nola jokatu zuten Mondragoe-inguruko erri txikiak, orren antz-antzeko beste gauza batean. 1353-gn. urtea zan. Mondragoe-inguruko auzo Uribarri, Garagartza, Gesalibar, Udala, eta Erenuzketa, Isasigaña ta Oleaga-k, Mondragoeko «erritar» egin nai izan ziran; eta, ikusten denez, erri guztien eskabidea zan ori, erri xearena, ez aundizkiarena, ez oñeztar ta ganboatarrena. Ain xuxen, aundizki oien atzaparretatik libratu bearrez egin nai ziran «mondragoetar». Begira nola mintzatzen ziran beren eskabidea egiterakoan, orduko paperak diotenez: «...*porque vivimos en servidumbre oscura e muy desaguisada, con los males e daños e hurtos e robos e fuerzas e desaguisados que rescibimos de los Ricos Homes* —ots, Andiezkengandik— *e (de los) Caballeros e Escuderos poderosos, que viven e entran en la dicha Aldea e en la comarca* —eta jarraitzen du—; *por nos salvar e defender de los dichos robos e males e daños e desaguisados que*

recibimos, por ende, (nos) conocemos e otorgamos por vecinos de la dicha Villa de Mondragón...»

Beste orrenbeste gertatuko zan, bada, Arrasaten ere, «Mondragoeko Erri bildu» biurtu zan arte: ez-bearrak eta lapurretak eta kalteak izango zituzten *Ricos homes*-edo ziralako aiengandik; eta orretxegatik eskatuko zioten Arrasatearrak Errege Jaunari, sortu zezala Mondragoeko «Erri bildua...»

Bañan, len ere esan det-eta, etzuten guztiok egingo eskabide ura; aundizkiak, jauntxoak, ots, oñeztarrak eta ganboatarrak etzioten eskatuko Errege Jaunari olakorik. Jauntxo aien gaiztakeriak galazteko sortzen bait-ziran orduan ain xuxen Erri Bilduak...

Erri Bilduak jauntxo aientzat etsai ziran; eta, ala berean baita jauntxo aiek ere Erri Bilduentzat etsai. Oñeztar eta ganboatarrak elkarren etsai ziran, gero ikusiko degun bezela; bañan batzuek eta besteak Erri Bilduen etsaiago ziran oraindik. Erri Bilduen kontra zerbait egin bear zanean, ederkitxo alkar artzen zuten batzuek eta besteak, danak.

1456-gn. urtean Azkoitia-n gertatu zana dago esaten. Azkoitia-ko Erriko Portalean «desapio» bat azaldu zan urte artan, inguruetakoa oñeztar ta ganboatarrak egiña Erri Bilduen kontra: «Gauza baziran, burrukara etortzeko» esanaz; banaka, naiz biñaka, edo nai zuten bezela, etortzeko, gauza baziran. Batzuek eta besteak firmatzen zuten desapio ura.

Ola, ez da ain arritzeko, 1448-gn. urtean ere Jauntxo-jende ark ain errez Mondragoeri su ematea. Mondragoeko Erri Bildua, oñeztarrentzat bezela ganboatarrentzat, guztiontzat beti ere etsaia zan, beren okerrak egitea galerazten zien etsaia. Orregatik eman zioten su ain errez. Besteak beste, orregatik erre zan Mondragoe.

Eta ontara eltzean, orra nola sartu geran gure itzaldi onen muñean.

Guazen beraz aurrera. Asi gaitezen.

II

Zeñek erre zuan Mondragoe? zergatik?

Mondragoe, Oñeztarren eta Ganboatarren arteko burruka-aldi batean erre zan. Eta erretzallea, Oñati-ko Kondea izan zan.

Edatu ditzagun, esplika ditzagun, bi erantzun oiek.

Erretzea, 1448-gn. urtean izan zan. Aspaldi-aspaldidanik Euskal-erri guztia bi alderditan, bi partidutan, bi bandotan banaturik zebillen. Oñaz edo Oñeztarrak alde batetik, eta Ganboatarrak bestetik. Alkar ikusi-eziñeko bi bandotan banaturik. Noiz-nai elkar il-

tzera-ño eltzen ziran bi bandoak. Elkar il, eta elkarren etxeak erre, ta... iñoiz baita erriak berak erretzera-ño ere. Euskal-opera «Txanton Piperri»k dio ederki:

Gizonak il, ta etxeak erre;
gauza segururikan ez;
alde danetan mixeriya, ta
alde danetan negarrez...

Zergatik, ordea? Orain ere partidu ta alderdiak ba dira: batek iritzi bat duala, eta besteak bestea —erriak nola gobernatu bear diran iritziak alegia, edo olako zerbait beti ere—. Orduan, ordea, historizaleak diotenez, bandu aiek elkarrekin zekarten burruka, etzan izaten iritziaren gañetik sortutako burruka, etzan izaten iritzi-kontua, beste kontu bat baizik. «Garoa»ren egille Txomin Agirre-k esan oi zuan bezela, «Ni ta Ni» baizik; «Ni banauk, eta Ni banauk». Edo Lope Gartzia de Salazar bizkaitarrak bere *Bienandanzas e fortunas* deritzan liburuan obeto dion bezela, *Sobre quién valdría más*, ots, «Nork geiago balio».

Balio onek euskaldunen artean ba du, erderaz ez duan alako esan-nai berezi bat. Mutiko erdaldunak, elkarrekin asarretzen diranean, «*Tú no me puedes a mí*» esan oi dute; *puedes, poder*. Mutiko euskaldunak, ordea, beste aditz bat erabiltzen dute olakoetan: *balio*; «Ik ez dek balio...»

Itz orixe ber-bera erabilli oi zuten oñeztarrak eta ganboatarrak beren ezta-baidaen oñarri ta bultzagarri bezela: «Zuek ez dezute balio; guk balio diagu». Ortik sortzen zituzten, guztiok dakizkigun naspil eta burruka izugarri aiek.

Zertarako erre zuten, ordea, Mondragoe, beren arteko auzi ta burruka aietan? zertarako?

Benetan, etzan makala orduan zerabilkiten intentzio makurra. Etzioten, ez, su eman, kalte egiteagatik bakarrik; gizonak errezago il al izateko baizik. Gizonak erri-barruan zeuden arte, etxeetan ezkutatzen ziran, eta ezin il zitezkean ain errex. Erriari su eman ez-kero, ordea, salbo-ta arratoiak bezela aterako ziran beren ezkutueta-tik; eta orduan, erriko Portaleetatik ateratzekoan, errezago ilko zituztela-ta, orixe izan zan aien asmo makur eta basatia.

Lentxuago erre izan zuten Otxandiano; eta orra zer dion Lope Gartzia de Salazar-ek, erretze artan ganboatarrak izan zuten asmoaz: «E, como llegaron estos gamboinos (a Ochandiano), ovieron su acuerdo, que, pues por armas no podían sacarlos de la Villa, que le pegasen fuego, e con él (con el fuego) los sacarían e matarían...»

e feciéronlo así; e pegando el fuego, ovieron de salir, e a la salida fueron muertos...»

ERRETZALLEAK

Esanik dago, Mondragoeko erretzalleak, ganboatarrak izan zira-la; ganboatarrak, Oñatiko Kondea buru zutela. Bañan etzuten erre, mondragoetar guztiak oñeztar ziralako. Mondragoen, Euskalerrri guz-tian bezela, ba ziran oñeztarrak, bañan baita ganboatarrak ere. Eta, jakiñ ere, ba dakigu zeintzuk ziran bando bakoitzeko buruzagi egi-ten zutenak. Ganboatarren buruzagiak, Bañez de Artazubiagatarrak izaten ziran; eta oñeztarrenak, berriz, Gurayarrak.

NUNDIK ETA NORA

Ikus dezagun orain gauzak nola gertatu ziran. Artu dezagun ostarako ura errekan-goratuagotik.

Oñatiko Kondeak, Gebaratarrak ziran, Arabako Gebarakoak. Belaz de Gebara zeritzaten askotan. Eta Gaztelako Erregeren serbitzari ziran. Serbitzari Aundizki; ez nola-naiko «morroi» —Iñoiz ere lehenago Nafarroako Errege Jaunaren serbitzari ere izanak ziran arren.

Ez pentsa, orratik, Erregeren serbitzari debalde ta musutruka izaten ziranik. Erregeren eskuetatik erregali ta mesede asko jaso oi zituzten. Errege-jendeak beti ere, esku-artean, emateko erregali asko ta asko euki oi zuten. Len ere esan degu-ta, Erregeren eskuetan bi gauza oso aberats egon oi ziran: gaur *Ministerio de la Guerra* esango litzakena, eta *Ministerio de Justicia*. Bi gauza oietan, destino ta plaza asko izan oi bait-dira, len-da orain. Orregatik izan oi zituzten Erre-ge-jendeak orrenbeste serbitzari. Erregeren serbizaritzta, aberas-bide bikaña izan oi zan. Eta ola, ez da arritzekoa Oñatiko Konde Jauna ere sebitzaritzta artan mesede aundiak jaso izana.

Nola-nai ere, Oñatiko Kondea, «Oñatiko JAUNA» zan, *Señor de Oñate*. Eta oraindik geiago izan naiez, Konde aietako bati —ots, Bel-tran de Gebara bati— Oñatiz gañera, «Mondragoeko JAUN» izan bear zuala gogoak eman zion; eta «Mondragoeko JAUN» egin ze-zala eskatu zion Erregeri. Errege ura Enrique II zan, «Enrike ME-SEDEGILLE», *Enrique el de las mercedes* esaten zaiona. «Mesede-gille» bazan-ta, gure Beltranek mesede aundi ori eskatu zion. Bañan mondragoarrak eskabide orren berri izan zutenean, Erregearengana berarengana azaldu, eta iñolaz ere olakorik ez egiteko, arren-da-arren, eskatu zioten... Eta jakiña, Oñatiko Kondea asarre... Bañan esan dezagun gauza nola ta nola gertatu zan.

Esan bezela, gauza au Enrike II-ren egunetan gertatu zan. Enrike au etzan iritxi Errege izatera bere bide jatorrez, baizik-eta bere anaierdi Pedro «el cruel» zeritzana burruka batean azpiratu ta il ondo-ren. Eta burruka aietan zebiltzan artean, Oñatiko Konde D. Beltran, Enrikeren aldeko ta D. Pedroren kontrakoa izan zan, eta, egin ere, lan aundiak egin zituan bere Erregetzakoaren alde. Eta Errege izatera eldu-ta gero gertatu zan, bein batean Enrike ark Gipuzkoan zear, egiteko batez, Bayona-ra juan bear izatea. Eta, andik etortzean, Oñatiko Konde Beltran onen etxean ostatuz egotea. Eta elkarrekin zeuden egun aietako jardurioetan, Kondeak bere Erregeren alde egin-dako lan aundiak aipatzea; eta orduan nunbait Kondeak, lan guzti aien saritzat bezela Errege Jaunari mesede aundi ori eskatu zion: Oñatiko Jaun zan ezkerro, Mondragoeko Jaun ere egin zezala. Bañan autu oietan zebiltzala, gauzaren berri eldu zan mondragoetarren be-larrietara, eta orduan asi ziran zuen aurreko zintzo aiek alegin guz-tiak egiten, alako oker eta ez-bearrik gerta ez zekiden. Zer egin zutela uste dezute? Orra nola dakarren guztia ederki asko D. Juan Karlos de Gerra zanak bere liburu eder batean («Ensayo de un pa-drón histórico de Guipúzcoa»-San Sebastián, 1929, pág. 246): «*No-ticiosos de ello los mondragoneses, acudieron a impedirlo, repre-sentado al Rey, que no podía ser de esta Villa legítimamente des-membrada del cuerpo de Guipúzcoa, como tampoco cualquiera otra población tocante a esta Provincia, porque con tal inseparabilidad se había encomendado a la Corona de Castilla el año 1200, reinando felizmente D. Alfonso VIII. Suplicáronle pasara a verla; y, como accediese D. Enrique —emen agiri dira mondragoetarrak gorputz eta anima diran bezela— ABRIERON CON GRAN DILIGENCIA UN NUEVO CAMINO al pie del monte de Bakube, por cuya cumbre se andaba hasta entonces, y CONSTRUYERON LA CALZADA que aún se conserva en algunos trozos y que conocemos con el nombre de Errege-bide o Errepide. El Rey «de las mercedes» la inauguró, atravesando por ella la agreste y amena cuenca del Ergiña, que en Zubillaga vierte sus aguas sobre las del río Aránzazu. Luego que vino al pueblo, y vió —entzun ondo, mondragoetarrak!— y vió sus Torres y altas Murallas de cantería, y contempló el inexpugnable Castillo que entonces aún estaba en pie y fuertísimo, y observó ser su Villa de mucha contratación, donde se labraba grande abundancia de acero, hierro y otras mercaderías, dió oídos a las instancias de los mondragoneses, y desahució las de D. Beltrán, otorgándole, en cambio, el Señorío del Valle de Léniz».*

Oneraño gure D. Juan Karlos de Gerrak. Orra, 1374-an nolako Erria ta nolako gizonak zenituzten Mondragoen. Eta orri eskerrak, ontan igaro zan gauza.

Eta, jakiña, Kondea asarre gelditu zan Mondragoerekin. Eta andik aurrera etzan falta izan ika-mikarik Oñatiko Kondearen eta mondragoetarren artean.

D. Beltranen ondoren, D. Pedro bat izan zan Konde; gizon paketsua benetan. *Eta aren* ondoren beste D. Pedro bat, gazterik illa. D. Pedro onek Salbaterrako Kondearen alaba izan zuan emazte, *D.^a Constanza de Ayala*, emakume diplomatika; mondragoetarrak bereganatzeko saio aundiak egin bait-zituan, alperrik baño. Eta ondoren etorri zana ere, D. Pedro izan zan; *D.^a Konstantza*'ren semea eta auxe izan zan, gero Mondragoe erre zuana...

Aita gazterik il-da, D. Pedro au bere amaren babesean azi izan zan: *D.^a Konstantza de Ayalaren* babesean. Eta urte aietan gertatu zan, Mondragoeren eta Konde-jendearen artean oso gauza atsegiña izan etzan zerbait. 1426-gn. urtea zan. Oñatiko Konde Jaunak ba zuan Mondragoen, Kaletik ez urruti, Maala-Ermitaren ondo-samarean, etxe bat bere morroekuntzakoa, bere mendekoa, «Zalgibar» zeritzana. Urte artan, ez dakigu zergatik, Mondragoeko oñeztarrak, Lope Otxoa de Oro buruzagi zutela, an ekiten diote Zalgibarko Torre-etxeari su ematen... Utzi dezaiogun berriz ere itza. D. Juan Karlos de Gerra zanari (*"Ensayo de un padrón histórico... pág. 249"*). Onela dio: *"En Agosto de 1426 los oñacinos de Mondragón, guiados por Lope Ochoa de Oro, fueron sobre su casa fuerte y Torre de Zalgúibar, que era de pleito-homenaje, y radicaba no lejos de la Villa; y la combatieron, lanzando muchas piedras y lanzas y saetas con truenos y lombardas, hasta tanto que por fuerza de armas la tomaron, apoderándose de las lombardas, ballestas, truenos, paveses lanzas y otras muchas armas y cosas que en la Torre había; pusieron fuego a la madera de ella y acabaron derribando la Torre por el suelo"*.

Oñatiko Konde D. Pedro, *D.^a Konstantzaren* senarra, illa zan ordurako; eta bion seme D. Pedro, umetxoa zan oraindik, eta bere ama *D.^a Konstantza de Ayalaren* babesean bizi zan umezurtz... Konde-jendeak, lendik asarre baziran-eta, zer esanik ez dago egite onekin adiskidetuko etzirana. D. Pedro txikiak beintzat ondo gogoan artu zuan, besteak beste, bere aurtzaroko gertakizun mingarri ura.

Olaxe zeuden gauzak, 1448-gn. urtea etorri zanean.

SUTEA

D. Pedro umea, gizon egiñik zegon. Eta bere bengadizua betetzeko laguntzarik asko ba zeukan bere bandoko ganboatarrangandik. Laguntzalle zituan, bakoitza bere mendeko armadun guztiakin, Biz-

kaitik Urkizuko nagusi Pedro de Abendaño, ta Martin Ruiz de Artega; eta Gipuzkoatik Elgoibarko Martin Ruiz de Ganboa, ta Azkoitiko Ladrón de Balda, ta Azpeitiko Juan Pérez de Loyola, ta Usurbilgo Juan Beltrán de Atxega, ta Zarauzko Juan Ortiz de Zarauz, eta Zestuako Fortun Sántxex de Iraeta; eta Mondragoetik bertatik, berriz, Otxoa Bañez de Artazubiaga, eta Martin Lopez de Olabarría, eta Lope Fernández de Osinaga, eta Martín Bañez bat geiago, ta beste asko. Guzti oien mendeko armadunakin 2.500 gizoneko tropa ederra bildu zuan gure Konde D. Pedro'k eta guztion buruzagi bezela an urreratu zan Mondragoera.

1448-gn. urteko San Juan illaren amar-ingurua zan...

Ez dago zer esanik, erri-barruan zeuden oñeztarrak etziotela arrea onik egingo; bañan berak bakarrik ez bait-ziran gizonik asko, kondearen 2.500-ei gogor egiteko, Erriko oñeztarrak, Bizkaiko Butrondarrai albiste egin zieten.

Bigaramonean bertan antxe zan Gómez González de Butrón, bosteun gizonekin. 500 aiek etziran asko, ganboatarrak ekarri zituzten 2.000 ta 500-entzat; bañan, asko geiago itxaro bait-ziran, bai Bergararik, bai Lazkautik, berak zekartzinakin eta itxaro zituanakin adoretu ta animaturik, biotz aundiz eraso zion Butrongo Gómez González onek bere egitekoari. Ekin-aldi asko egin bear izan zituan, erriko sarrera Aramayo-aldetik idikitzeke; bañan azkenean lortu zuan bere asmoa; seguro asko, ez, barruko mondragoetar bere adiskideak —oñeztarrak, alegia— barrutik ondo lagundu ez baliote; bañan aizenik bera ere barruan arkitu zan; eta orduan asi zan Mondragoeko Kaleetan benetako burruka. Etxetik-etxera, ta kale-kantoe batetik bestera, ba zan antxe elkar il-bearra, eta zarata ta iskanbilla, eta arrika ta azkon-tiraka ta lantzaz elkar josi bearra. Amar egun luze irauñ zuan kaleetako burruka bildurgarri ark. Eta amar egunen buruan —San Juan Bezpera zan, ain zuzen— Oñatiko Konde biurriari etzaio gauza oberik gogoratu: beretarrak Otxandiano-n egin zuten bezelaxe, Mondragoen ere Erriari su ematea, eta berak bere 2.500 gizonekin Portaleak zaintzea, andik su-igesi irtetera zijoazenak oñeztarrak baziran, guzti-guztiak, bildur ta erruki gabe, hertan iltzeko... Gauza gogorra; bañan bere eziñean Konde gogorrari ondo eritzi zitzaiona...

Suak Mondragoe zahar artan zer egingo zuan, esan bearrik ez dago. Etxerik geienak, orduko oiturari jarraituaz, egurrezkoak edo egur-asko-dunak ziran; eta suak azkar egin zuan an bere egitekoa... San Juan Bezpera zan; eta Leintz-inguruetakoa baserrietan San Juan suak, izar bakantxuak bezela, argi egiten zuten ordu berean, beste izugarritzko su batek —Elosu-menditik eta Aloñatik ere agiriko zan

su bildurgarri batek— gorritu zituan Zaraya-tik eta Udalatx-erañoko mendi guztiak...

Eta barruan zan jendearekin zer gertatuko zan ere esan bearrik ez dago. Asko ta asko - ume ta zahar-jendeak, alegia - suak erre; eta erritik irteteko egokitasuna izan zutenak, ganboatarrak baziran, ondo; bañan oñeztarrak ziranak, lantza zorrotz eta ezpata zorrotzagoen janari izan ziran... Zenbat? Ez dakigu. Garai artako Kronikak diotenez, "*de los de Gómez González, veinte e cinco hombres en las primeras peleas de la Villa; e morieron de los de Guebara e Urquizu e Arteaga, cincuenta e cinco hombres, e muchos demasadamente heridos*".

Etxeak, berriz ba dakigu bi ez beste guztiak erre zirana; bi ez beste; bi aiek, beste geienak ez bezela, arrizkoak bait-ziran nunbait... Eliza ere, ikusten danez, etzan erre. Kalteren batzuek izan zituan arren, gero Erregeren aginduz erabakitako ordaindu-bearretan, azaltzen danez.

Guzitara zenbat etxe izango ziran ere, ez dakigu; edonola dala, Enrike II-ak ain pozik ikusitako erri ura, erri ederra izango zana eta etxez ondo jantzi ta osatua, ori ez dago ukatzerik ezta zalantzan ipintzerik ere.

III

KANTAK

Mondragoeko Portaleetan zenbat gizon il ziran egun artan, ez dakigula esan degu, bañan, ala ere, ba dakizkigu batzu-batzuren izenak; eta ez nola-naikoak. Bergara aldera begira dagon Portalean il zan Gómez Gonsalu de Butrón —oñeztarrak Bizkaian zuten gizonik azkarrena eta aberatsena; oraindik ere antxe bait-dago Mungiatik Plentzia-rako bidean Butrondarren Torre-gore ederra—; eta aitarekin batean antxe il zan baita aren seme Juanikote ere; eta biokin batean baita, baten illoba ta bestearen lengusu zan Presebal ere.

Iru oien eriotzak min aundia eman zien Euskal-erri guztiko oñeztarrai; eta poz aundia berriz ganboatarrai. Eta poz orren gogoangarri, kantu bat atera zuten gamboatarrak, Kronikak dion bezela "*al uso de la tierra*", ots, «oitura zan bezela», orain bertso berriak ateratzen diran bezela-bezelaxe orduan ere.

Kantu aren pusketa batzuek kantatzen ziran, ikusten danez, XVI gizaldian, eta orduko norbaitek —dala Ibarguen-katxupin, dala Anton Bedia-k— Kronika batean jasorik, orain ezagutzen degu Kanta zahar arek ziona. Kanta beneragarria benetan. Onela dio:

Gomiz-ek, asko lagunik,
 zabal arabaarrik,
 giputz sendo ederrik,
 bizkaitar urduri gogorrik...
 Ez diazo bakarrik,
 ze an datz Presbal illik,
 Juanikote-gaz lagundurik
 —txibuluen ospe bagerik—
 ez urrun Malaguenik.

Eta liburuan beheratxuko errenkada batean onela jarraitzen du:
"Y, segun este cantar, fueron muertos estos en un sitio que llaman Malaguen'go errekea."

Maalaguen ori eta *Maalaguen-go errekea* nun dagon, ez dezute nik esan bearrik; zeurok dakizute ondotoxo. Ba dakizute, baita, leku ortan antziña Santa Magdalenaren Ermita eder bat izan zala; obeto, Ospital bat, kutsuko gaxotasunez gaxo etortzen ziran pelegrinuentzako Lazareto bat. Santiagora zihoazen pelegrinueta nor-edo-nor etortzen bait-zan lepraz josirik... aientzako Lazaretoa. Ikusten danez, Ermita aren atadian illak enterratzeko oitura zan garai artan. Orregatik dio koplak onek Juanikote eta Presebal an enterratuak daudela, ots, an *datzatela* illik. Beste errenkada batean onela dio Kronikak: *"Presebal y Juanikote están enterrados en la puerta de la Madalena de Mondragón; y encima de cada sepultura hay una gran lápida; y la de Juanikote ya no tiene casi señales (XVI gizaldian, jakiña) por estar al paso de la entrada, y está gastada; y en la de Presebal está un león rampante (arma-arria, alegia) y un árbol y lobo"*. - Presebal izen au, oso izen jakingarria da; Alemania-n *Parsifal* esan oi dana da zalantzarik gabe.

Agiri dan bezela, koplak eder au, egun artan gertatutakoaren laburpen bat da, itz gutxitako laburpen bat. Ganboatarren garaitzapena kantatu nai du; eta ortarako lenengo-lenengo oñeztarren laguntaldea —lagun-talde ederra— adierazten du, orla ganboatarren garaitzapena aundiagoa azaldu dedin. Orregatik esaten ditu Gomiz-en taldeko mutillen jatorri ta doai onak... «arabar zabalak, giputz sendo-ederrak, bizkaitar urduri-gogorak»... andik berealaxe guztion eriotza gogoratuertzeko, beste itz illun ta lazkarri aietan: «An datza Presebal illik, Juanikote-gaz lagundurik, txibuluen ospe bagerik».

Txibulu-kontu orrek ere eskatzen du azalpen bat. Jakiña da, antziñako illetan, gorputzaren ondoren emakume negartiak joaten zireana; eta ospe aundiko illeta zanean, baita musikariak ere, txibuluak, biolak eta tronpetak joaz. Beraz koplak onek itz oietan esan

nai du, nolako ondra gutxirekin obiratuak izan ziran Maalaguen-go gorputz aiek, Mondragoeko erretzean ganboatarren eskuetan il ziran oñeztar gaixo aiek.

BESTE KANTAK

Kopla onen ondotik, beste kopla-errenkada bat dator Kronikan, Onela:

Argi-izarrak urten dau
zeruan goian ostantzean...
Bergararrok asi dira
traizio baten asmatzean;
euroen artean dioe:
«Erre dezagun Mondragoe;
lasterreon joan gaitezán».

Kantoeko zartzaikeran
aen bizarrak ikara zirean.
Armakaz ezin egien legez ezer,
ganboarrok asi dira su emaitzan;
ta onegaz urten daude berelan
oñeztar barruangoak,
zein erre ez zitezán.

Gomiz Gonsaluh bertan zan,
beragaz Presebal bere aldean,
Joaniko'k eta beste askok
eudela parte berean.

Kanta onek, ikusten dezuten bezela, Mondragoeko erretzea, bergararrai egozten die. Etzuan esan naiko bergarar guztioi, Bergarako ganboatarrak baizik. Bañan kopla onek ba du arritzeko beste gauza bat: bergararren egiteari «traizioa» deitzea... Bai bait-dirudi, kanta au, ganboatarrak ez baño oñeztarrak egiña dala, naiz-ta Kronikak ganboatarrak egiña dala dion. Asiera bizkaña dute benetan lenengo klopazati biak: «Argi-izarrak urten dau / zeruan goyan ostantzean... Kantoeko zartzaikeran / aen bizarrak ikara zirean...». Ederrak asierak.

«Kantoeko zartzaikera» au, ots, kantoeko sarrera au, zeuok jakingo dezute nun dan; bañan ba dirudi, gaur «Portalea» esaten diotuzutena dala; an bait-da Bergara-aldera begira dagon sarrera (*sar-*

tzaikera). Eta, izan ere, an gertatu bait-ziran egun artako eriotzik geyenak, ots, Maalaguenko erreka-inguruan.

BESTE KANTA BAT GEYAGO

Ikusi ditzagun orain, iru koplak oien ondotik datozenak. Episodio-edo deritzaten gertakizunetako bat dakarte. Bergarako Ozaeta-ko semeari gertatu zitzaion gertakari bat. Bergarako Ozaetatarrak, oñez-tarrak ziran. Eta Ozaetako seme ori, Mondragoeko erretzean zauritu-edo egin zan oñean; eta dirudianez, Andra Santa Maña-ri —orain baserri bihurturik dagon Elizako Santa Maña-ri— promesaen bat eginda, onik atera zan, «Abendañuye motela» zeritzon ganboatar gaizto baten eskuetatik. Begira nola datorren lau koplatan episodi ori:

Oyn-arrozian luma
Ozaeta'ko Jaun gazteak.
Laster baten igaro zan
uraz alde bestean.

Ama bereak esaeutsan:
«Semea, zer dok orrelan?»
—Zaurietan kuradu eta,
ama, nagozu oera.

Egun bein ur jarruta
ganboar seme lasterra;
arabere lasterrago
Abendañuye «motela».

Eskerrik asko emayten deusat
Andra Santa Maña'ri;
bera axeyzat sartu eta,
esera bidaldu nau ni.

Kopladi guztia heroikoa izan ez dedin nunbait, giza-giro geyago duan beste troxu polit bat ipiñi nai izan digu nunbait bertsolariak azkeneko bertsu oietan. Troxu xamur bat; ama larrituaren eta seme zaurituaren arteko episodi xamurra. Gauza batek arritzen gaitu berriez ere troxu onetan: Ozaetako Jaun gaztea ganboatar egiten dua-la, oñeztarra izanik... Kronistaren uts-aldi bat, nahasketa bat ote-dan juzgu egiten bait-degu guzti ori. Ori eta beste zerbait geyago, gero ikusiko degun bezela.

Ez da zer-esanik, Ozaetaren bertsu-troxu ori, gaizki jaso da dagona Iburguen-en liburuan. Gaizki jaso, edo-ta aotik-aora datorrela naiko okertua. Ez bait-da arritzeko, olako koplak batzuetan. Orregatik ipintzen degu guk zertxobait ukituta, gure ustez gauzak berak agintzen duan bezela. - Lenengo aldatzen deguna, koplaren elkarren arteko aria da. Iburguen-en 2-gn. koplak guk 4-gn. ipintzen degu. Eta gero bigarren gertatzen danari bere asiera zarpailtxoa, adi-errezago ipintzen diogu koplaren ariak eskatzen duan bezela. Orretaz gañera, Ozaetatarrak ganboatarrak ez baño, oñeztarrak ziranez, «ganboatarrak semea»-ren lekuan guk «oñeztar semea» ipintzen degu. Orregatik azaltzen bait-da ain xuxen Ozaetako seme ori, Abendañuyek «motelaren» aurretik igeska, laisterka. Ikusten denez, gañera, Andra Santa Mañak lagundu bait-zion mutil gizagajoari Abendañu gaizto aren eskuetatik onez ateratzen. Nola? Abendañuyek jarraitzailea itsumustuan oker-bidera eramanez... eta mutilla bere etxera, Bergarara. Nun izan zan, ordea, Abendañuyeren oker-bideratze ori? Santa Maña Eliz izandakoaren aurrez-aurre antxen dago, ain eroso, Bergara-bidean, gaur oraindik *Aixerixa* edo *Aixerija* deritzen baserri bat. Ura-xe ote-dan koplak *axeizat* diona, guk pentsatzen. Koplak berak «sartuta» bait-dio... etxeren batean, alegia.

Oin-orrazian luma
Ozaeta'ko Jaun gazteak...
Laster baten igaro zan
uraz alde bestean.

Uraz ara igaro zan
oñeztar seme lasterra;
ara-bere lasterrago
Abendañuyek «motela».

— Eskerrik asko ematen deusatzat
Andra Santa Maña'ri...
Bera Axeitzan sartu-ta
etsera bidaldu nau ni.

Ama bereak esautsan:
— Seme, zer dok orrelan?
— Zaurietan kuradu-eta
ama nagizu oera.

KRONIKARI JARRAITUAZ

Asper-samartuko zinduztedan, eta amaitu ere bearko det; bañan

oraindik ere ba degu zenbait gai ikutu gabarik; eta goazen azkar-azkar gai oietara.

Nola il zan Butrongo Nagusi, Gómez Gonsalu aundi ura?

Kronikak berak dio ondotxo ta naiko labur. Ikus dezagun: "Como él (Gómez González) vio aquello (sua, alegia), mandó a los de Unzueta (Eibarkoai) y Saldibar, que se saliesen en la delantera fuera de la Villa, e que los esperasen en unas casas pequeñas de unos rementeros (olagizonak, alegia) que estaban fuera de la Villa como arrabal (ots, Maalaguena-n) para se barrear (fortificar), e allí que espe(r)aran el socorro de Juan López de Lascano y de los de Bergara y de otros, los quales ya eran llegados a dos leguas de allí... Y él quedó en la cegarra (ez dakigu zer dan zegarra dalako ori) a recoger la gente. Cayóse de un caballo, e diólo a Juan González su hijo bastardo (kantako Juaniko edo Juanikote) que estaba herido, para que saliese. Martín Ruiz de Olaso, su yerno, por lo escapar de la muerte, envióle a decir con una su carta, que saliese en la delantera por donde él e su gente estaban, y que le darían pasada; e, como el mozo (de la carta) topó con Lope de Unzueta, como dicho es, para esperar en aquellas rementeras, le preguntó por Gómez González; e díxole que qué le quería; e díxole que traía una carta de Martín Ruiz de Olaso su hermano; e díxole "Dámela a mí, que soy yo"; e tomóla e leyóla; e, como vió que podía pasar seguro, no curando de esperar allí como lo había concertado, fuese su camino por do Martín Ruiz le mandaba pasase con los que iban con él, porque no le destorbó ninguno, cuidando que era Gómez González. E, cuando llegó Gómez González a aquellas casas e no halló a los suyos, vióse perdido, e tiró adelante, e topó con los enemigos; e mataron allí al dicho Gómez González e a Juan González su hijo (Juanikote), que iba con el caballo, herido, e a Presebal, que iba con él: (el cual) fuese para los de Guevara, e mató al Mayordomo de D. Pedro Belez (Oñatiko Kondea); e antes que los matasen, morieron de los de Gómez González veinte e cinco hombres".

KOPLA GEIAGO

Naigabe aundia izan zuten oñeztarrak Gómez Gonsalu-ren eriotza orregatik; eta eriotz orren gogoangarri egin zituzten berak ere koplá batzuek, eta aietan bat auxe:

Gal dedilla Unzueta eta Bergara,
Zaldibar'ek bere partea debala.
Aramayo, suak erre azala,
eta suntsi adilla, Gurayarra,
zerren zeuren Jauna ez zenezan enpara.

Ikusten dezutenez, Gomez Gonsalu Jaunak bere estutasunean izan zuan laguntzallerik, su artetik onez ateratzeko. Martín Ruiz de Olaso, Elgoibartarra, ganboatarra. Ganboatarra zan arren, oñeztar bati —oñeztar guztion buruzagi zan bati— eskiñi zion bere balimentua, eriotz seguru batetik iges egin zezan. Nola zitekean, ordea, ganboatar batek egun artan bere eskua eskeintzea oñeztar bati? Bere aitagiñarreba zualako. Kronikak berak dio: "*Martín Ruiz de Olaso su hierno, por lo escapar de la muerte, enbióle a decir...*". *Hierno*, suiña; oraindik etzan suiña, suin-gaya baizik, Gómez Gonsaluren alaba baten senargaia, alegia. Gero ezkondu ziran; eta geroko orregatik dio Kronikak suiña zala... Ikusi dezute, ordea, nola Martín Ruiz de Olaso aren asmoa oker atera zan, Eibarko Lope de Unzueta-gatik...

Detalletxo bat azaldu bear degu orain, aipatu degun koplak garratz ortatik: «Aramayo, suak erre azala»... «Suak erre»... Suak, ez dakit nik zer duan guretzat, euskaldunontzat. Erdaldunak beren esateetan odol-zale-edo azaltzen diran bezela, euskaldunok su-zale-edo azaltzen gera. Gogora ezazute, euskaldunen esate «su ta gar» aura; eta gogora gero erdaldunen «a sangre y fuego». Gure «su ta gar» erderara biurtu nai dutenak, beti eta beti, *a sangre y fuego* biurtzen bait-dute. Bañan bi esakuntza oien artean ba dago alderantzi; gure esakundea su-zalea da, eta erdaldunena «su eta odol».

Dana dala eta besteak beste, gure antziñako historia suz jantzia agiri zaigu; eta ba dirudi gañera, euskaldunetan iñortzuek badirata, ganboatarrak azaltzen zaizkigula su-kontu ontan geien kutsatuak, oñeztarrak baño areago.

IV

SU-ZALEAK, GANBOATARRAK

Mondragoeri su eman ziotenak, ganboatarrak izan ziran; Oñatiko Kondea-ta; eta Otxandiano-koan ere, berdin, Abendañotarrak, ganboatarrak berak ere... Eta Kondairan, Historian, gorago jotzen badegu, berriz, berdin azaltzen da Abendañu bat, Gazteizko Erriari gau batean su eman-da dana ondoraño errezuana...

Aspaldi, oso aspaldiko kontu zaharra dala ezik; bañan egia izan bear du.

Abendañu, Gazteizko inguruan zegoen errixka txiki bat zan —gaur Seminario berria dagon lurretan kokatua (gaur oraindikan antxe

bait-dago *San Martín de Abendaño* esaten zaion Elizatxo romani-koa, eta beheratxuago *Río Abendaño* esaten zaion erreka (bat)—; eta, auzoen artean askotan gertatzen dana, elkarrekin gaizki etortzen ziran bi erriak, Abendaño eta Gazteitz. Eta, ikusten danez, Gazteitzarrak askotan joaten ziran Erregearengana —Naparroako Erregearengana— abendañutarrentzako kejak ematera. Eta, alako batean, Naparroako Errege ark —betiko kejaz okotzeraño eginda egon nunbait-eta— an inguruko landaraen batzuek ezpataz joaz, «Auxe egin bear zaie olako gizon petralai» esan zuan keja-zale aien aurrean... Eta, esan-da egin, bigaramonean, gau illunean, gazteitzarrak Abendañura joan, eta an arkitu zituzten guztiak, txiki ta aundi, bertan il zituzten... Guztiak, bat ez beste... Bere inñudearen besoetan umetxo bat atera zan bizirik eriozte izugarri artatik: Abendañuko Ahaide Nagusiaren seme txiki bat... Inñudeak Zeanuri-ra eraman zuan ixilixilik. Eta an azi zan Abendañu txikia. Bañan, inñudeak esanda-edo, ondotoxo bait-zekian ark bere Errian eta etxean, bera umetxo zala zer gertatu zan, gero aunditu zanean, alako batean arratiar lagun-sail on bat artu eta, an dijoa gau illunean Gazteitz-era, eta an ematen dio erri guztiari su. Kronikak diotenez, Gazteitz guztia auts bihurturik geratu zan gau artan. Abendañutar baten egitekoa izan zan Gazteitzen sutze ura ere.

Eta Mondragoeko suaz geroztik ere, inguruko ganboatarren artean sendo ta bizi geratu zan nunbait su-zaletasun biurri ori. Mondragoek badu, beste erri gutxik duten bezela, *Cantares de Mondragón* izena duan euskerazko kopladi polit bat. Kopla oien artean ba da bat, oso su-zalea bera ere; Martín Báñez de Artazubiaga-ren andre alargunak bere senarraren illetan kantatu zuana.

Lendik esanda daukagu, Báñez de Artazubiaga oiek ganboatarrak zirana; eta, ain xuxen, Mondragoeko ganboatarren buruzagiak. Mondragoe erre zanetik ogei bat urte gerora, 1464-ean, Martín Báñez bat zan Artazubiagako Nagusi; eta egun batez, bere lagun bat eta biok —Juan Báñez de Barrutia eta biok— Ibarretako olaatik pake-pakean etxera zetozela, gaizkille batzuek bidera irten eta biok ilda utzi zituzten bide-baztarrean. Orduantxe, Martín Báñez-en gorputzaren aurrean alargunak kantatutako kopla da arako kopla su-zale ura; D.^a Santxa Otxoa de Ozaeta-k bere senarraren illetan kantatu zuana; ederra benetan, ez bait-zan nolanaiko koplaria emakume azkar uraxe. Begira:

Oñetako lur au yabilt ikara,
lau aragiok berean bezala...
Martín Báñez Ibarretan il dala...

Artuko dot esku batean gezia,
bestean zuzi irazekia;
erreko dot Aramayo guzia.

Erre... beti erre... Zorioneko erre-bearra.

ORDAÑAK

Eta gero zer? —esango dezute oneraño eltzean—. Ortan geratu al-ziran gauzak? ez al-zan izan zigorrik? ez al-zan izan kastigurik?

Bai; paperean beintzat. Bañan iñoren bizkarrean gutxi.

Gauza —baita bear ere-ta— Errege Jaunarenganaño eldu zan. D. Juan II zan Errege; D.^a Isabel la Catolica-ren aita; eta, jakiña dan bezela, D. Enrike IV-rena; Enrikeren ondoren Isabel izan baitzan Erregiña Gaztelan. Errege Jaunak astindu zituan bere Auzitegi ta Tribunalak, gaizkille ziranak bear bezela zigortzeko. Eta gaizkilleen lista ta izendegiak egin ere egin zituzten, eta baita bakoitzak zenbat ordain eman bearko zuan erabaki ere. Ona emen, gaizkille arkitu ziranen izenak: D. Pedro Belez de Gebara (Oñatiko Kondea), D. Pedro de Abendaño, Urkizu-ko Jauna (Arrazola, Bizkayan), D. Martín Ruiz de Arteaga, Arteaga-ko Jauna (Arteaga, Bizkayan), Martín Ruiz de Ganboa, Olaso-ko Jauna (Elgoibaren), Ladrón de Balda (Azkoitian), Juan Pérez de Loyola (San Ignazioren aitona, Azpeiti-Loyola-koa), Juan Beltrán de Atxega (Usurbil-go), bere seme Migel-ekin; Juan Ortiz de Zarauz (Zarauzkoa), eta Fortun Santxez de Iraeta (Iraeta-Zestonakoa); eta oietaz gañera, Mondragoen bertakoak: Otxoa Báñez de Artazubiaga, Martín López de Olabarría, Lope Fernández de Osinaga, eta Martín Bañez (Artazubiagako semea, gero Ibarretan illa, Santxa Otxoa de Ozaetaren senarra).

Geroko batean Iparragirre-rena bezela, Tolosan bear izan zan gauza au erabaki.

Erreketako urtean bertan, 1448-an, Abenduaren 18-an. Juez erabakitzalle, D. Pedro López de Ayala, Gipuzkoako «Merino Mayor» zalakoa izan zan.

Merino zorrotzak, Mondragoen bertako zazpi Zaldun bizirik erretzera kondenatu zituan; oin eta eskuak loturik surtara botata. Oñatiko Kondea-rentzat eta beste irureun ganboatarrentzat iltzeko erabakia eman zuan; etxe oneko semeak ziranak, itoak, arri aundi bat leptotik; eta besterenpeko ziranak, berriz, urkatuak. Etzan makala Merino Mayor uraxe!

Bañan emandako erabakia, etzan osorik bete; ezta urrik eman ere. Etzan izan, ez ererrik, ez itorik, ez urkatuak. Ala ere erretza-

lle batzuek bederenik gogor samar zigortuak eta kastigatuak izan ziran.

D. Pedro Belez de Gebara, Oñatiko Kondea (su ematea erabaki zuana) desterratua bizi izan zan luzaro (zazpi urte), Mondragoe eta Oñatitik urruti, 1455-gn. urtean il zan arte; eta aren ondorengo Konde Jaunak —ots, D. Iñigo de Gebarak— 1461-gn. urtean 300.000 maravedi ordaindu bear izan zizkion Mondragoeko Erriari; eta Elizari, berriz, Musibar-inguruan lur batzuek erreketarekin egindako kalteen alde.

Amar urte lehenago beste 35.000 maravedi eman bear izan zituan, ala berean, Juan Pérez de Loyola, Azpeiti-Loyolako Jaunak, bere Azpeitiko ta Errezil-go mendeko gizonakin emen egin zituan kalteak kitatzeko. Arritzeko gauza da, Loyolako Jaun au Mondragoeko erreketan ganboatarren alde arkitu izatea, bera betidanik oñeztarra izan-da oñeztarra eta oñeztarren izena datorren etxearen Jabea, Azpeitiko Oñaz-auzoko Torre sonatuaren jabea, alegia. Bear bada, Oñatiko Kondearen adiskide zegon urte aietan; bear bada, Azkoitiko Baldatarrekin artu-emanetan sarturik arkitzen zan (andik urte gutxitara, 1467-gnean. ezkondu zitzaion bere seme Beltrán, San Ignazioren aita, Balda-ko alaba D.^a Marquesa de Licona'rekin). Dana dala, an arkitu zan; eta ez oso azkenekoetan ere, beste gutxi bezela, ordaindu-bear izan zuan ezker, bere gizonakin egun artan egindako kaltea. Esan degun bezela, Gipuzkoako «Patroi aundi», San Ignazio-ren aitona izan zan Juan Pérez de Loyola ura, gizon ausarta eta biurria, biurri ta ausartarik bada-ta.

D. Pedro Belez de Gebara, Oñatiko Konde erretzallearen ondorengo bezela D. Iñigo de Gebara aitatu degu lentxuago. D. Iñigo au etzan D. Pedro erretzallearen semea —D. Pedrok-eta etzuten aurrik izan—; anaya zan baizik. Aretxek egin zituan, ikusi degun bezela, mondragoetarakin pakeak. Egokia izan bear zuan, izan ere, gauza oietarako, pake-gauzetarako; bere anai asarretia baño ondotoxoz egoi-kiagoa.

Etzan izan nola-naiko gizona. Erromako Kardenal izatera ere eldu izan zan beintzat-eta. Eta Gebarako Torre-Gore sonatu-sonatua ere —orain bizkar ikusgarri batean orma zahar batzuek besterik ez dan Torre-Gore sonatua—, berak egiña zan; eta Erromako Santangelo-Gazteluaren antz-antzeko egiña gañera, esaten dutenez. Orain orma zahar batzuek besterik ez dira; eta ez dezakegu *de visu* ta ikusiaren gañean ala zanik esan.

Bañan D. Iñigo de Gebara onek ba du bere bizitzan eta bere edestian, beste gertaera aundi eta eder bat ere: KONDE JAUN

ONEN EGUNETAN AZALDU ZITZAIGULA ARANTZAZUKO
AMA BIRJIÑA ALOÑA-MENDIREN BABES BEDEINKATUAN.
1469-gn. urtean. Guztion onerako.

Eta agertze eder onekin bukatu bide-bait-ziran Euskal-errian
oñeztarren eta ganboatarren elkarren arteko asarreak, ontantxe bu-
katuko de nik ere nere izketa aspergarritxo au. Eta barkatu.

MANUEL LEKUONA

Baztan - Bidasotarren dantzak

XVIII - garren mendean (*)

Trueba, Navarro-Villoslada ta horien gisako idazlari romanti-koek orrialde asko izkiriatu dute, euskaldunen oitura garbiak laudatzen eta gure gazteen jostetak goraiatzan, aitona zaar amultsuen ikusmenean eta gerizapean. Baiña leenagoko mendeetan, bestelako josteta nahasiak ere (dantzetan ere apezak berak maisu bezala sartzen zirala) ibili dituzte euskal gazte burrunbatsuek, eta batzutan, oraingo oiturak bezain arreak ikusi dira Euskalherrian.

Gazteak beti jostagura, bai adinekoen bildurgarri ere, Bizkaiko koblak dion bezala:

*Gorbei altuen edurre
bota surtera egurre
Alaba galanten amak
mutil zantarren bildurre.*

Ziberotarren Pastural bat ikusi dutenak edo leenagoko koblakari-
en bertsu piperrak irakurri, oraingo gazte zenbaiten lotsagabeke-
rietaz gutti arrituko dira.

* * *

Eskuetara heldu izan zaigu, 1750 garren urteko Apezpikugutun
bat, Baztango parrokia batean gorde dena. Bertan ikusten ditugu,
orain bi mendeko bidasotarren oitura arreak, bai eta Nafarroa geie-
neko herritarrenak:

(*) Irakurgai hau, beste bi irakurgaiekin batean, 1969 garren urteko *Irun-go Literatur Txapelgora* presentatua izan zen.

1750 urte hartako eta ondoko lekukotasun asko baitugu, Erri-beraraiño heltzen zala orduan euskara, herriko izkuntza bezala, eta erdara sartu gabea zegoala, Nafarroako parte geianean.

Garai hartan berean ere ibilia zen Iruñian misiolari gisa, MENDIBURU euskal idazlari famatua, eta bera zen leenbizikoa gure dantzeen aurka asi, egundokoak esaten. Gaia hortaz eztabaia eta borroka sonatua erabili zuten MENDIBURU eta LARRAMENDI idazlariak elkarren artean, azken honek airoski dantza euskaldunen alde aurpegia ematen zuela. Eta badut susmoa, Miranda eta Argaiz apezpikuaren gutun hau ez ote zen aita MENDIBURU beraren obra izan, honen moduko laidoak irakurtzen baititugu Apezpiku-gutunean ere.

Dena den, laster xuritu dezakegu eztabaia hau, argitaratzeko prestatzen ari dalako Tellechea jauna, Madrilera Biblioteka batean aurkitu dituen Larramendiren eskuzkribu ez ezagun eta jakingarri batzuk.

Hona itzez itz, euskara mordollo batean, Gaspar de MIRANDA apezpikuaren Gutuna, oraingo ortografiara aldatua:

«Don Gaspar de MIRANDA eta ARGAIZ. Iangoikoaren eta »Sede apostolikoaren graziaz Iruñeko Obispa, Erregeren Konseilluko, etc.

»Gure Obispado huntako presuna fiel guzieren aditzera ematen »dabegu, daudelarikan handizki eta serioski erreprendituak eta me- »txatuak danza publikoak Aita sainduen eta Eskritura sainduen, bai »eta ere daudelarikan debekatuak hala Erreinu huntan nola bertze- »tan, eskomiku eta zensura bortitzen penan...; Nolaz ez tira erre- »prendituko oraiko danzak, egiten direlarik ahalikako soñurik alegre »eta bizienarekin... lujuriaren eta loikeriaren pozoia infernal eta hil- »garri hartara probokatzen dituzten akziona, igitze, mobimendu eta »ukitze deshonestekin?

»...Danzetan egiten dituztelarik arkoak, zubiak, zeinen azpitik, »danzan pasatzen baita demonioa? Danza hok egiten direlarik ez »solamente leku publikoetan, baina bai eta ere estalpetan, portale- »tan, eskaratzetan, berariak eta motibo gutirekin bilatzen dituzten »arteka mearretan?

»Profanatzen eta menospreziatzen dituztelarik hanizetan templo »sainduak, basilikak, hermitak, Elizatheak, zimitorioak. Dabilzala- »rik egunaz eta gauaz Plaza publikoetan, bidetan eta kanpo libretan?

»Danza hotarat juntatzen direlarik, ez guttitan eta bai gure dolore »handi batekin, Eliza gizonak, bai eta Ordena sainduak pretenditzen »dituztenak ere, ordenatzeko pretensioa duten denbora berean, »zeintaz baitira *hanitz etsenplare*.

»Eta are geiago, badirela hotarik zenbait, danzako Mastru di-
»renak, hala gizonkieri nola emaztekieri danza erakustea ofiziozat
»hartua dadukatenak?


»Heritua dagoelarik bada, eta kutsatua izurri eta eritasun mortal
»huntaz gure Obispado-tasuneko *parterik geiena*, eta deseatzten du-
»gularik erremedioa ematea... Erran diran pena eta zensuren azpian
»manatzen ditugu Eliza gizonak, ez publikoan eta ez sekretoan, ez
»daitezila iunta danza hotara, eta ez daitezila dantza edozein pre-
»testu izan arren; eta Ordena sailduak pretenditzen dituztenak hiza-
»nen dira iakinak, eztirala errezibituak izanen...

»Manatzen dugu halaber, eman diren pena eta zensuren azpian,
»Elizetan, Letanietan, prozesionetan, kofradia eta berze elizako fun-
»zionetan, ez dadien usa tanburinik ez eta ere dantzazeko zerbizatzen
»diran instrumentu profanorik. Elizak, egia da konsentitzen dituela
»gisa huntako instrumentuak, eta soilki gizonkien danzak, fielen
»usantza komun eta generalak erakusten duen bezala...

»Iruñeko zitudadean emana, martxoaren hamabigarren
»egunean, milla zazpitan eun eta berrogei eta hamarrear,
»GASPAR, Iruñeko Obispoa.—Obispo ene jaunak mana-
»turik.

Dr. Joseph Eladio COLLADO.»

A. IRIGARAY.



Unamuno euskeraz

(Euskeratzailea: L- Akesolo)

EN MI CUADRAGESIMO ANIVERSARIO

(29-IX-1910)

Bizi-gailurra jo dot onezkero,
ta lainoan dakust bealdea;
mendian bera daukadan bidea
ez dakit nora doan; ta gaurgero.

Astruak muker ditudan ezkerro,
Zugana nator, Argi itsutzailea.
Isildu, Jauna, nire ezin-asea;
nire ugerrok Zeuk garbitu ziero.

Bein eguzkia bera doanean,
gaua gainera datorkidanean,
ditudan urteen jabe zeran Jauna,
oroi ta ametsez bizi oi nozuna,
bigun egizu nire berakoa:
ilunpea utzi ta ilunpera noa.

AGRANDA LA PUERTA, PADRE

Egizu, Aita, nitzat atea andiago,
edo egin nagizu ni neu txikiago.
Ortik sartzea daukat gatx baino gatxago;
umeentzako da ta ni, ai, azia nago.

Biur nagizu, arren, neure umezarora,
ames utsean bizi oi nintzanekora.

Eskerrak Zuri, Aita; orain naz oartzen
nire gizontasuna ba doala igartzen.
Seme uts nintzan adin larrosazko baten;
adin artara eizu itzulia naiten.
Neure semeen seme orain biurturik,
aita izateko, barriz, gaiak agorturik,
neure sabelean dot zelanbait nabaitzen
birjin-amatasuna iatala iaritzen.

AL CUMPLIR MIS SETENTA Y DOS AÑOS

(29-IX-1936)

Aingeru bat, sortzean albistari izana,
lagun izan dot neure bizi zauritsuan;
bizira nintzaneke, nigan ziarduan
fede-aria iruten, estali, bakana.

Bere isil-txokora zan gero iges joana,
eta itxi nindun neure aurtasun galduan.
Lo-kantak kantari dot berriz inguruan,
seaskako oiartzunak ekarten nigana.

Abots, au, banaroa betiko korura;
ames au, neure Jainko amesgillenera;
zer-izango au, neure azken-elburura;
txanpon au, banaroa goiko altxorrera.
Aingeru argi ori, maitati ongura,
ba datorkit sortzezko zorra garbitzera.

GOLONDRINA PEREGRINA


(18-XII-1936)

Enadatxo urrundiko,
non etzaten az neguan?
Bai al dok nonbait betiko
kabirik ire zeruan?

Eu abil, eu, ez kabia;
udabarriko osgarbitan,
urdiñez urdin euzkitan
aron abillen txoria.

Barriz ator i lorekin,
igazko kabia artzeko,
maite barria irekin,
udazkenez aztutzeko.

Baina non da, non, goitiko
maitemiñen azkarria,
aldatzen ez dan kabiko
goi-min il beti bizia?



IXILIK

Urtea hiltzen dijoa
ixilik,
jaio-ko da berria
ixilik.

Entzungo dire deadarrak
ixilean,
eta bai izango negarrak
ixilean.

Jaio-ko dan Urteak
ixilean
berbiztuko ote du esperantza dela
ixilean?

Ala bedi Urteberri
bestela ez zera izango guretzat
ez Urte, ez berri.

Deadar gabe, negarrian
jarraituko degu bizitzen
ixilean.

Iñaki de Lete

Deban, 1969-ko Abenduan

Etxahun'en «Ofizialenak» (ofizio bertsoak) Gipuzkeraz

Zenbait euskal-albistaritan jakin-erazi nuen bezala, «Ofizialenak» bertso sailleko bigarren ahapaldian hutsegite larri bat izan nuen, «Etxahun'en bersoak gipuzkeraz» argitara eman nuenean. Liburu hontan, lehenago «Olerti»n bezalaxe agertu baitzan, hitz barkartxo bat ere aldatu gabe, eta etzen hau nere asmoa. Izan ere, aldizkari hartan itzulpena zillegi etzitzaidan librotasunez eman bainuen eta batez ere behar-beharrekoak ziran azalpenak eman gabe. Jokabide hontaz damuturik, ene lana liburu bezala ateratzean zuzentzeko asmoa hartu nuen, baiñan momentua heldu zelarik, zearo pasa zitzaidan eta nere asmo on guziak aidean gelditu ziran.

Horra, bada, labaindu zitzaidan hutsa. Ahapaldiaren azken leerroan Etxahun'ek dio: «Halare higatüren dila aitzinia beno lehen». Nik, libroki, honela itzuli nuen: «Hala're gastatuko dira luzaro baiño lenago». Hemen berriz, Etxahun'i hurbillagotik jarraituz, «Halare gastatuko ditu aurreak baiño lenago». Hontaz, honela nion joan den Urtarril-Otsaillean zenbait euskal-aldizkaritan: «Hemen ba-dira bi puntu aztertu beharrak: 1) «Dila» edo hobeto «diala», gure «duela» edo «duala» da. Nik, ordea, ezterizkiot hongi kasu hontan erlativuko aditz-jokoa erabiltzeari, erdal-pentsakeran baitu jatorri, eta gaiñera, neurriaren eskabidez, «dula» forma laburtua erabiltzea beharturik arkitzen nintzan. Gaitz t'erdi! Erlativuko adizkera honi itzul egiteko, aktivoko formaren ordez, pasivokoa erabiltzea gogoratu zitzaidan (batere beharrik gabe, berehalaxe ikusiko dugunez) eta gipuzkeraz (1) «galtzak» beti pluralean erabiltzen dugunez gero, aditza ere pluralean eman nuen (*dira*). Ez dakit, ordea, nola etzitzaidan gogoratu aktivoko forma soilla erabiltzea (*ditu*). Hots, «Halare gastatuko ditu aurreak baiño lenago». 2) Garai hartan (alegia, «Olerti» aldizkarian eman nituenean bersuok), «aurrea» prosaiku xamarra

(1). Baita beste euskalki eta hizkuntzetan ere, nere ustez, Etxahun'ek ere "Zaragollen gibel-aldia" dio, genitivo pluralean.

iruditu zitzaidan, eta dotoretasuna billatuz, hain maite nuen «luzaro» hitza erabili nuen. Libertade hau hartzea ezta berez bekatu, itzultzeko beste biderik aurkitu ezin denean. Beste aunitz tokitan ere halatsu jokatu dut, baiñan, ezin bestean, itzulpena literalki ezin eman ez eta eskuarki irakurlea jakinaren gainean jarriaz. Baiñan kasu hontan etzen premiarik aldakizunik egiteko eta honetxegatik beharturik nengoen atsegin-desatsegin guzien gainetik bertsoegileari leialtasuna gordetzea.

«Orain ordea, bertso hau tajutu behar ba'nu, «luzaro» ene hitz kuttun eta dotorea sakrifikatu egingo nuke eta Etxahun'en «aitzina»ri erantzunaz «aurrea» erabiliko. Izan ere, arestian aipatutako leialtasun faltaz gainera, Etxahun'ek nik baiño zorrotasun gehiagoz jakin baitzuen galtza «atzeen» eta galtza «aurreen» arteko kontrastea billatzen, eta nik «luzaro» hitz xarmanta erabiliz, bertsoari bizitasuna kentzen diot».

Makur hau zuzendu nahian eta bidebatez liburuaren erakusgarritxo bat eskeini nahian aldizkari honen irakurleari (oso nekez saltzen den liburua baita eta ezagutu-eraziz hobeki salduko ahal da) natorkio hemen, gaurko euskaldun belaunaldian baiño biharkoan gehiago pentsatuz, zeren biharkoak ezpaitu izango oraingo euskal-albistaritan egin den zuzenbideen berri, paperok gordetzeko oiturarik ezpaita izaten (2) eta orduan, biblioteketan gorde oi diren aldizkari edo errebista hauetara jo beharko dute, liburuko hutsunea zuzendu ahal izateko.

Aditzera eman nahi nuke ere, nere asmoa ahapaldiak eta euren komentariak hemen argitaratzea zela, baiñan, EGAN'en Zuzendaritzak ezin ditekeala aditzera eman dit toki faltan dabilzala-ta. Azalpenetan, liburuan ageri ez diren adiz-joko batzuen azalpena eman nuen, hala nola X'gn. ahapaldiko «saltzen deikiala», «deikük-ala» dela, hots, gure «digukala». Azken «K» jate hori, Zuberotarren artean ez-ezik, gure idazle zaharretan ere ikusten zen. Adibidez Larramendi'k honela dio: «*Eztezaala* (eztezakala) beraz uste, hire esan mesanazkin (sic), hire lotsagekeriak in ikaratuta txokoratuko *deala* (dekala) Euskera» (3). Eta Aita Uriarte'k: «*itxi ditualako* (utzi ditulakalo) ain nere gogoko *zituala* (itukala) enkian erregu ta la-

(2). Ene liburuan hiru hutsegite larri atera ziren. Tituluan, «Etxaun», «Etxahun»en ordez, «Barkoize»ko mapan «Hegiaphalia» eta «Etxegoihenia»ren zituaziño okerra (hau 1.000 aletatik 900'etan zuzendua) eta «Ofizialenak» bertso sailleko bigarren ahapaldia, zuzendu gabe gelditu baitzan «Olerti»tik liburura aldatzerakoan. Hiru hutsuneon berri, «Z. Argia», «Anaitasuna», «Herria» eta «Príncipe de Viana»ra igorri nuen.

(3) Etxenagusia'ren «Euskal idazleen lorategia»n, 49'gn. hor.

nak?» (4). Liburua argitaratuta gero ohartu naiz «Ofizialenak» bertsoetan ez nuela gerokotan bezain azterketa sakonik egin aditzari dagokionean, nunbait lanaren hasiera izanik, hain barrura jotzerik pentsatu ez nuelako.

I

Oi laborari gaxua!
Ihauk jaten duk arthua;
Ogi eta ardu eraikitzen, auherren asetzekua,
Halare hañ hai maite, nula artzañak otsua.

Oi nekazari gaixua!
Janaritzat duk artua;
Gari eta ardo hik biltzen, alperren asetzekua,
Hala ere hain haue maite, nola artzaiñak otsua.

II

Artzaña ba'da beztitzen,
Josler deie gomendatzen
Zaragollen gibel-aldia oihal hobez egin dezen.
Halare higitüren dila aitzinia beno lehen.

Artzaiña ba'da jantziko,
Sastriari eskatuko,
Oihalik sendoenarekin galtz-atzeak egiteko.
Halare gastatuko ditu aurreak baiño lenago.

III

Dendarik berant agertzen,
Arratsen goizik ützültzen;
Eta mündiaren jorratzen arte hartan abüsatzen.
Ezpeitie jaten diena hüllantzeko irabazten.

Jostunak nekez lanera,
Arratsen goizik etxera (5);
Artean jendea jorratuz, lana daukate atzera.
Ez dute, noski, irabazten, abora daramatena.

(4) Idem., 147'gn. hor.

(5) Baita, "Arratsez goizik etxera" edo "Arratsean goiz etxera".

IV

Egün ürüliak oro
 Idorrian nahiago.
 Hanitx lan agertu beharrez, hari oro txori-lepho;
 Hallikatzen balin ba'duzu, zehian lau oropilo.

*Iruleak egin nahi lan,
 Janari ordez, dirutan.
 Hari asko egin beharrez, dena desberdin luzeran;
 Harilkatzen baldin ba'duzu, korapillua haukeran!*

V

Ehülia hari galtho,
 Ukhenik ere han franko,
 Undar harien ebatsi nahiz, oihal üzten zerratzeko
 Hariak gaxto zütiala fornizaliri erraiteko.

*Ehuleak hari eskean,
 Dutelarik nahi bestean,
 Azken hariak ostuz ari, oihalarentzat kaltean,
 Gero, haria txarra zela ornitzaillari esan.*

VI

Harri'gileren adreta!
 Harek ba-daki zer phentsa:
 Mürria gaxki egin eta erdiuak lohiz thapa!
 Etxia lurtatü denian, harrien gaxtuak falta.

*Hargiña ari da iaioki!
 Harek zer phentsa ba-daki:
 Pareta gaizki egin eta, tarteak lohiez estali!
 Etxea lurrera denian, harriei egin aitzaki.*

VII

Benüser-maiastüriak,
 Oi! lan güti egiliak!
 Dena gaxki egin eta zurak dü estaküria!
 Phasta zela adarrondotsü edo beta bühürria!

*Arotzak edo zurgiñak
Dira langille nagiak!
Lanean gaizki ari eta zurari kulpa guztiak!
Muiña zela adarbegitsu edo zaiñak bihurriak.*

VIII

*Eskalanpu egiliak
Ebasten tü materiak.
Zazpia sos balio dina saltzen beitu hamabia:
Ostatin edan saria eta etxen gosez familia.*

*Eskalaproi egillia
Lapurretan duk noblia,
Zazpi xox balio dunari, jartzen prezio doblia:
Ostatuan edan saria, t'etxen gosez familia.*

IX

*Biñer batek bestiari
Estakürü eman nahi.
Zuñi bere kopadüra hobe betzaio üdüri:
Aihen gabe nahi datinak hura beza üsü berri.*

*Mahastizaiñak alkarri
Hutsak ateratzen ari.
Kimatzen norbera nagusi dela zaiote iduri;
Mahasti gabe nahi dezanak, haiek alda bitza sarri.*

X

*Oi taharnari fidela!
Jakile ezpa'liz igela!
Arrañuak jüje har eta hek hintzakie kundena,
Haien etxe lejitimua guri saltzen deikiala.*

*Oi tabernari leiala! (6)
Jakille ezpa'litz igela!
Arraiñak juzgatzaille hartu ta hintzakete kondena,
Haien etxe jatorra guri saltzen ibilli haizela!*

(6) Edo "Kirmena" (fiel, leal), Bizkaiko herri batzuetan esan oi danez. Asonante hobia egiten du ondorengo puntuekin, baiñan hitz gutxi ezagutua da.

XI

Errijent bat ba'da hiltzen,
 Harek eztü prozesik üzten:
 Huntarzünak beitütü harek heñ hun batetan ezarten:
 Züntzürrin kuntrola eta phantzollin ipotekatzen.

*Maixuak ba'dira hiltzen,
 Harek eztü prozesik üzten:
 Hontasun denak baitituzte toki seguruan jartzen:
 Eztarrian kontrola eta sabelen ipotekatzen.*

XII

Jaun aphezek edsortatzen
 Karitate egin dezen.
 Berek aldiz phakatü gabe hitz bat ezkie erraiten;
 Herriko praubik gosez-eta haien ürrik erdollatzen.

*Apaiz jaunek predikatzen
 Karidade ein dezaten;
 Berak, berriz, pagatu gabe, hitz bat ez tute esaten;
 Herriko pobrek gosez-eta, haien urriak erdoitzen.*

XIII

Ilhaginak aberasten:
 Arimak hañ untsa galtzen.
 Phezian eta khuntietan zer ezkie hek ebasten?
 Haiekila behar düke Jinkuak aizina ükhen.

*Illagiñak aberasten,
 Arimari kalte egiten.
 Pixuan eta kontuetan mutillak dira lapurtzen.
 Hoiekin Jainkoak beharko luzaro jardun juzgatzen.*

XIV

Kinkillari suñ hütsak
 Borthaz bortha dabilta.
 Haien prenda ordinaria ixkilinb'eta ligeta!
 Astin emazter ebatsiak igantian gero jokha!

Kinkilleru arloteak
Aterik-ate zebiltzak.
Saltzeko izaten dizkitek zintak eta jostorratzak:
Andreei asten kenduak, jaien eraman jokoak!

XV

Oihan-zañak eta guardak
Kuntzentziako gizonak!
Xakolak ba'zaitze farzitzen, ihesiren tie postak;
Lagüner har-eraziren bardin gaizo sinheskorrak!

Baso-zañak eta guardak
Kontzientziako gizonak
Poltsak ba'zaizkie betetzen, puestuak uzten iaioak,
Ordezkoen mende utzirik diru-emaille kaikuak!

XVI

Sarjanten golde-nabarrak
Dirade gizon okherrak.
Haien egitekuetarik egiten dira «Amerikak»:
Aisa pergüt izanen dira haier behatzen direnak.

Eskribauen lan-goldeak
Dirade gizon okerrak.
Hoi en eskolari jarraiki egiten dira "Amerikak":
Aguro lur-jo nahi ba'duzu, aditu haien esanak.

XVII

Sarjant eta notariak,
Oi! arnes nesesariak!
Haien elhe ülhün gezürrek nahasten gaiza txipiak:
Ezta lagun segürragorik bertan hüsteko etxiak!

Eskribau ta notariak
Premizko gizasemiak!
Haien gezur ta hitz illunak nahasten gauza garbiak:
Ezta lagun jatorragorik hustutzeko gure etxiak!

YON ETXAIDE

Aitona ta billoba

M. Pelay Orozco

Bozas Urrutia-k itzulia

Nork ez zituen ezagutzen errian? aitona ta billoba aiek, are geiago ziruditen: lagunak, adiskideak. Olarra zarrak, itsas-zabaleko pillotu izana, beladun ontzien itsas-aldi erromantikua ezagutua zuen bere gazte-denboran. Orain astuntxo ta baldartxo zebillen, gorputz aundia balantzaka, zango zaharrak koloka, mariñel-zamarra lodi bat soñean eta txapela buruan. Kokotzpeko bizarra zeukan, Arriluze'ko bakarra. Olarra txiki bere billobatxoa ondotik zebilkion. Erkin xamarra, ume xartua, gizontxo-irudikoa.

Ederki moldatzen ziran biak. Astegun guziez joaten zan pillotu zaharra eskolako ateraño, mutikoaren billa, merienda patrikan zeramala. Etxean ere, elkarren alde agertu oi ziran, baten utsak besteak estali naiean beti. Bait-zekien aitonak —zakartuaz zijoan-eta—, billoba men eta zentzudun hura, billoba ez baña adiskide zirudien hura, bera konprenitzen zuen bakarra zala... Arekin ez zuen sekulan liskarrik ez itz gogorrik izaten. Billobari aldiz, aitonarekin ibiltzea atsegiñago zitzaion, bere adifeko mutillek eskeiñi zitzaioketen jolai-gai guziak baño, zein ere zoragarriak izan zitezkean jolasgaiok. Eta ba-ziran, izan ere, joku aiek edozein mutil zoratzeko diñakoak! Ortxe duzu Juan Mari, esaterako: noranai joan zitekean arekin: Gaztelugain mendira joan, arboletara igo, bertan kabiak billatu, edo Tximistarri'ko zulora sartu... mutillek ziotenez, izugarri sakona zan zulo hura, eta itsasorañoako irtenbide izkutu bat ba-zuen. Eta, Txipiroi? Txipiroi'en adiskide izatea, orixe zan mutil guzien kutizia eta irritsa! Kaieko saregille baten seme zalarik, Arriluze'ko kaiean pausatzen ziran batel guzietara sartzea libre zuen arek, eta arekin batean zebillenak ere bai, eta edozein ontzitan nai erara egon edo ibil-

tzea, naiz txikatzen, naiz portu-barruan inguruka egiten beste onzietako lokarrietatik elduaz; edo naiago ba-zuten, atzeraka arraun egin edo zer-nai maniobratan aritzea...

Olarra txikik, ordea, zarrarekin ibilli naiago. Onek gaiñera ez zuen parerik piraten gertariak kontatzen eta ekaitzen eta ondoratzeen berri ematen... Olarra zaharrarentzat, munduko mariñelik bikaiñenak, euskaldunak izan.

— Eta ingelesak? billobak galdetzen zion, noizpait.

— Baita, piñak dira oiek ere; ez ordea euskaldunak aña.

Alako arrotasun dirdaitsu bat egeri oi zan Olarra-txikiaren begietan, euskaldun itsas-gizonen egiñak entzutean. Danak sendoak ikusten zituen, danak indartsu, ausarta bioztun eta burutsuak.

— Nor izan zala uste duzu, nor, lenengo itzulia munduari egin ziona? galdetu oi zion aitonak; eta gero, alperreko galdera orri berberberak erantzunaz: —Euskaldun bat, jakiña! Nor bestela? Eta Ameriketara lenengo iritxi ziranak? Baita euskaldunak oiek ere, Xanti! Baleen atzetik ibilli eta Terranova'raño eldu... Azkarra zuten aiek besoa, bai alafede!

Noizean bein Olarra zarrak, billobaren aurrean bere burua aundi egitearren edo, ogei urtetako sasoi oraindik ba-zuelakoan edo, kaioko petrillera igo oi zan, eta bertan luzaro egon, urruti-aldera begira. Estu ta larri jartzen zan Xanti olakoetan. Jeisteko esatera ez zan ausartzen, minberatu ez zedin; baiñan arresi-gaiñean zutik, anka zahar aiek indarga ta kolokan ikusteak barrukoa biziro naigabetzen zion.

— Goazen etxera, aitona —esan oi zion azkenik, ikarak jota, bere egiazko asmoa diximulatu nairik.

— Egon piskat, Xanti, oraintxe goaz —erantzun oi zion aitonak, bere ikusketari berriz ere ematen zala. Ixteban'en baporetzoa ematen du arek. Igan zaitetz eta beitu zeorrek.

* * *

Aiton-billoba aien adiskidetasunak, kezkek eta buruausteak sorrarazten zituen etxean.

— Aitona, Xanti ondatzen ari zaigu —bein eta berriz esaten zion amak senarrari. Beti esaten dizut gure mutillak bere kidekoekin ibilli bear lukela.

— Zer egingo zaio, neska! erantzuten zion arek, etsiturik. Sor-tuko zaio, ari ere, aienganako zaletasuna.

Egunak joan egunak etorri, ez zitzaion sortu. Aitonarekin ibiltzea geroago ta goxoago, betiko bide jakiñari jarraituaz. Eskoletatik

irtenda, erriko plaza zearkatu, Joxepa-eneko estanku-aurrean zeuden arri-maillak jetxi, elizaren aurretik pasa, ta irten oi ziran karrika estu itzaltzu batera, portura jotzen zuena.

Kaiera eldu baiño len, Benantzio Amube'ren saltokiaren aurretik igaro bearra zuten. Zer-nai itsas-tresnaz ornituriko denda bat zan hura: sestanteak, itsas-orratzak, argiontziak, bizi-salbagailuak, lemak, arrantzarako kanaberak, sareak...

Erakustoki arri begiratzea atsegin-iturri goxoa zan Xantirentzat. Ordu aundiak joango zitzaizkion bai berari, konturatu ere gabe ta bertan josia bezela, barrutik ateratzen zan galipotaren eta linazolioaren usaia gogotik artzen zuela.

—Zertarako da ori? galdetzen zion txitean-potean aitonari, agirian zeuden tresnetako bat edo beste seiñalatuaz.

Eta tresna bakoitzaren zertarakoa azaltzen zion, pazientzi aundiz, aitonak.

Noizpait, erakustokira begira zeudelarikan, dendako jabea atean agertu oi zan: On Benantzio Amube, alegia.

On Benantzio irurogei urtetsuko gizona zan, ez andi ez txiki, gizen xamar, sudur aundi-aundi, begi urdin, arpegiera men eta kemen-tsu. Beti ere dotore jantzita ageri oi zan, egal txikiko kapela malgu bat (1) buruan, eta urrezko kate lodi bat koratillotik esegita.

Alako batean Xantiri: —Zer izango zera zu— galdetu oi zion, —aita bezela beterinaio, edo itsas-gizon, aitona bezela?

Mutikoak, zalantzaldi txiki baten ondoren eta aitonari zearka begiratuaz: —Ni, isasgizon, erantzun oi zuen.

—Ori dek, motel! Ojukatzen zuen Amube'k, gogo beroz. Euskaldunak, itsas-gizonak izan bear, ez al da?

Aitonaren begietan orduan —mariñel izan oi duten begi triste ta argigabeak ziran aiek— argi-izpi bat nabaitu zitekean lipar batez, joandako (galdutako) gaztetasunaren kemenak eraberritu nai izan ealute bezelaxe.

* * *

Egun batez, ikastaroaren azken-egunetako batez, maiean zeudela, aitak «ea zer karrera izango ote zitzaion gogozkoena» galdetu zion Olarra-txikiari.

—Arriluze onetan ezer gutxi ikasiko dezu aurrerantzean —esaten zion, sagar aundi lodi bat zuritzen ari zan bitartean. Pentsatu bear degu bada, karrera bat, ogibide bat edo bestez. Zerorrek era-

(1) malgu: flexible.

baki bear dezun gauza da au, Xanti. —Eta gero, ogibide batzuen alde onak eta alde txarrak ziralata, oarkizun batzuk egin ondoren, onela jarraitu zuen: —Begira, ni beterinario izan naiz emen, eta ez zaigu ain gaizki ibilli, kukuak ez digu ain gaizki jo. Lasai bizi gerala esan dezakegu, eskuarteak ere ba-dauzkagula ezin ukatu. Pentsa zazu ba, beterinario izan nai ote dezun, aita bezela edo-ta miriku naiago... zedorrek ikus.

Itz oien ondoan, ixilaldi luze bat: Arriluzeko beterinario pres-tuak sagarra zuritzen ari zan bitartean, emazteak mutikoaren arpe-gian, tink, josiak zituen begiak. Olarra zarraren biotza berriz —zer esanik ez da— taupa ta taupa ari!...

— Esan, Xanti, esan bildurrik gabe —ekin zuen aitak andik laister, babeskor eta maitekiro. Zer edo zer pentsatua izango dezu onezkero, ezta?

Xantik, burua gora ta bera, baietz.

— Injeñeru ala —aitak asmatu nairik— etxegille edo...?

— Ez aita —Olarra-txikik erdi aopean. Itsas-kapitan izan nai nuke.

Ama asaldatu egin zan ezurretaraño.

— Jesus Maria ta...! Ez esan olakorik, seme, ez esan txantxetan ere! Ba nekien nik, bai ederki jakin ere, zer gertatu bear zuen!

— Utziozu, tartetu zan aita, pakegille. Interesdunek erabaki bear duten gauza da auxe.

— Ori ateraldia! oju egin zuen amak. Interesdunak! Ori esatea ere... eta nor, ba, geu baño geiago? Ume bat baizik ezta bera, eztaki mariñel baten etorkizuna zer dan. Bizi guzian aruntz-onuntz itsasoan barrena ibilli, etxerik ez, pamilirik eta dirurik ere ez, eta azkenean ezertarako ez dan agure zar bat izatera eldu, orratx!

Itxo bat esateko gogoia sortu zitzaion pillotu zarrari; ixilik gel-ditu zan ordea. Zer erantzuna eman zezaieken, gero ta gero ere, amaren itz zentzuzko aiei?

* * *

Ez zitzaion batere atsegin Arriluze-ko abel-sendalari prestuari bere seme aren asmoa, ez noski. Naiago izan zuen, semea aitak noiz-pait utzitako lekua arturik (beterik, beteaz) Arriluze'ko beterinario izatera eldu zedin egunen batean. Amets ederrik asko zuen egiña aspaldidanik, etorkizun orreri buruz... Baiña Xantiren aitak ba zi-tuen bere legeak ere. Ete lege aietakorik bat zera zan, mutillaren joerari trabarik ez jartzea. Orregatik Tolosa'ra bialtzea erabaki zuen, pamilitar batzuegana, bakazioak antxen igaro zitzan.

— Ea ba, itsas-egitik urrun arkitzean, ustekizun ori aienatzen zaion burutik— esan zuen bere baitan.

Onela beraz, iru illebeta ba-zituen mutikoak bere karreraren izangoa ausnartzeko. Oporraldiak bukatuta, bere artan tematurik jarraitzen bazan, itsas-gizon izango zan.

— Esaten nizun nik, bai milla bider esan! Oju egiten zuen bizkitartean emazte burudunak —zure aitak Xanti ondatuko zigula goiz ala berandu! Noski ba, beti Elkano aboan, beti Okendo gora ta Txurruka bera, beti piratak, itsas-lapurrak eta balezaleak aipatuaz eta errepikatuaz, orain gure Xantik ere mariñel izan nai... txuri egin degu!

— Ez geiegi larritu, emakumea, erantzuten zion arek. Artu pazientzi piska bat. Fuentsezko joera ez bada, axaleko kutizia, edo kasketa bat baizik ezpada, itzaliko zaio, bai seguru asko.

— Bai baña, benetako deia baldin bada?

— Orduan... itsas-gizon izango da.

* * *

Udara artan eta lenengo aldiz ikusi zuten Olarra zarra, errian gora errian bera, bakarrik ibilki. Bizkarra makurtago, zangoak aulago. Bestela ere, betiko bide jakina egiten zuen egunero, Amube'ren denda aurrean alditxo bat geratzen zala.

— Mutikoaz zer berri? galdetzen zion arek.

— Hura... ederki dago, erantzun oi zuen zarrak, argitasun andirik eman gabe.

— Mutil azkarra da —esaten zuen On Benatzio'k, azken itza bezela. Eta esaten zuen ori, alaxe zala uste zuelako batetik, eta billobaz edozein laudorio entzunda, aitona asko poztutzen zala bazeki-elako, bestetik.

Eta itzen bat edo beste esan ondoren —eguraldia zala, arrantza zala...— kai-aldera zuzentzan zan Olarra zarra.

Agurea gero ta illunago, gero ta uzkurrago zegoen. Ez zuen etxean itzik ateratzen; aterata ere, ernegazioak botatzeko zan.

Eguraldi txarra ari zuenean, errañak: —Ez zaitetz gaur irten esan oi zion.— Kontuz ibilli bear dezu...

— Kontuz ibilli, kontuz ibilli... kurrunkatzen zuen aitona suminduta. Zer usteko du onek, ontzi-loren bat naizela edo? Makiña bat euri-jasa sorbalda gaiñean arturik egon, eta lau tantok ni ikaratu? Eta ba-zioan kanpora bere ibilletak egitera.

* * *

Eta gertatu zan... gertatzekoa.

Arratsalde batez dana blai-blai egina eldu zan aitona etxera, otzak pasea ta dar-dar. Kaietik zetorrela zaparradak arrapatu ta ez zitzaion bururatu ere, Erri-etxeko arkupetan bere burua babestea.

Errañak pontxe bat preparatu zion, pattar kopa batzukin.

— Izerdi-aziko dizu onek, esan zion maitekiro.

— Bestelako gauza! erantzun zuen aitonak umore txarrez, oiean sartzen zan bitartean. Bi kopatxo pattar, katillutzar batean esneakin nastuta artzeak, neri izerdi erazi? Kupela bat edan bearko nuke nik, gutxienez, izerditan asteko!

Nai ta ez, pontxea artu bear izan zuen; eta usteaz kontra, izerdi-patsetan zegoen laister asko.

Biaramunean sukarrak artuta zegoen, ez gutxi. Alaz ere, jaiki bear zuela ta jaiki bear zuela.

Gogortu bear izan zuen semeak:

— Ez orixe, inñolaz ere —esan zuen kementsu. Zu ez zera gaur jaikiko.

— Ez daukat ezer baña!

— Euki ala ez euki, oiean geratu bearra dezu, mirikua etorri artean.

— Zer miriku ta zer ziriku! Nik ez det miriku bearrik!

— Ez zaitex olakoa izan, aita —ekin zuen semeak, maitekor bañan agintzaile. Zuk, edonork bezela dezu mirikuaren bearra, gaixo zaudenean!

Nekez bai nekez, zuritu zuten azkenik.

Eguardi-aldean etorri zan On Luzio, erriko sendagillea. Gizon atsegiña zan urtetsua, eizari amorratua. Arpegi ta begitarte alai ta argia zuen, begitxoak sarkor, sudurra me ta aboa aundi ta irritsu.

— Ikus dezagun ba, gizon onek zer duen —esan zuen goraki ta arraikiro, gaixoaren gelara sartuaz.

Purrustada batez erantzun zion Olarrak.

— Ea ba, jarri zaitex —esan zuen sendagilleak.

Obeditu zuen gaixoak, gogotik ez bada ere, eta On Luzio bizkarrara ikertzen asi zitzaion, bere beatz aundi urduriekin kolpatxuak ematen zizkiola.

— Ea egin zazu eztul...

— Ejem!

— Ea berriz...

— Ejem!

— Ea geiago...

— Ejem, ejem, ejem!!

— Arroka bat baño sendoago zaude —esan zuen On Luziok az-

terketa bukatuta. Nik uste det, gizon onek itsasora itzuli bearco duela berriz ere.

Orduan agureak (nork bere opillari ikatza...): —Beraz, jaiki al ninteke? galdetu zuen.

—Gizona, gizona, oraindik ez. Oiean egun batzuk pasa bearco dituzu.

—Zertan gaude, ba? Ez al dezu esaten arroka bezain sendo na-goela?

—Bai, bai, baña pazientzi apur bat euki bearco degu, ariñegi ibilli gabe.

Baiñan, gaixoaren gela utzita, senar-emazteakin bakarrean ari zalarik, bestela mintzatu zan.

Polliki zaitu bearra du —esan zuen beterinarioaren idazgelan, errezeta betetzen zuela.—Katarro gaitza du. Ongi zaindu ezkeroz, eztet uste gauza aundia izatera elduko danik. Urte asko ditu baña ta orrengatik arreta geiagoz zaindu bear degu.

* * *

Udara azkenetan egon eta Olarra zarra oiean jarraitu, bat ere obetu gabe; alderantziz: jateko gogoa galdua zuen, eta aldi berean, bere kemen-apurrak ere bai. Ez zuen orain kontrarik egiten, agintzen zioten guztia egiten zuen. Egun batzuez lenago sesio gogorrek sortzeko aitzakia ziran'erremedio aiek berak ere, otzan-otzan artzen zituen orain, txintik atera gabe.

—Gizon onen gaitza, auxe da: dana berdin zaiola, ezertaz ere ajolatzen ez dala —esan zuen egun batez On Luziok.— Bizitzeko kutizia ta griña galdu du, orra. Ez du sendatzeko borondaterik.

—Orrela bada, dana galdua dago? —galdetu zuen beterinarioak, naigabeturik.

—Ez gizona, ez orrenbeste. Zirikatu bear zaio, ori, ea bizi naia ernetzen zaion berriro. Azkarra dalarik, berak nai izan ezker, ongi jarriko litzake seguro asko.

—Bizi-naia berpiztuerazi... zail xamar derizkiot!

—Bai noski. Ezta alere ezin-egiña.

—Agiriko da, bada.

* * *

Olarra-txiki'ren bakazioak bukatuta alako egun batez etxean azaldu zan. Aitonaren eritasunaz ezer ez jakinda, gutxik egin zuen kordea galdu ez ba zuen, naigabearen naigabez.

—Ez ainbeste ikaratu, Xanti —esan zion aitak —Makal ba da-go ere, senda ditekela esan du sendagilleak.

- Ain zartxo da ta... marmar egin zuen mutikoak, zotinka.
- Bai, baña ez du orrek ajola; beraren eskuko dagoela sendatzea, dio On Luziok. Berak nai izan ezker, sendatuko dala. Bizitzako kutizia ta gogoia berriz ere sentitu... orra egin bear duena.
- Zuk ala uste al dezu? esan zuen mutillak aopean eta zalan-zakor.
- Bai, mirikuak alaxe esan eta ez digu berak gezurrik esango.
- Olarra-txikiaren begitxoak ñir-ñir egin zuten lipar batez, maldoen atzetik.
- Ez zaitez oraindik sartu maitea, zero lasaitu arte —amak esan— Kontu, negar egin dezula oartu ez dedin.
- Bakarrik al dago?
- Ez, On Benantzio arekin dago, ikustera etorri zaio ta.
- Tira, garbi zazu pixkat mutur ori —gaiñeratu zuen aitak.
- Mutilla bañu-gelara sartu eta bereala agertu zan, musu-zapiatz be-giak igurtzika.
- Eta, Xanti? Ezer pentsatu al dezu arako gauza artaz, Tolo-sa'ra baño len aipatu genduenaz?
- Bai, aita.
- Eta... zer erabaki dezu?
- Itsas-kapitan, erantzun zuen Olarra-txikik, bete-betea eta ausarki.
- Kapitan, beraz? Hmmm... aitona sendatzen zaigula uste det.

* * *

Ta alaxe gertatu ere. Erabateko sendaketa izan zan hura. Len ere, mutikoa ikusi bezin laister, Olarra zarra berpizturik agertu zan. Gaixotasunak argal eta indargabeturik zeukan, baña billoba estutu zuten'beso aiek... ba-zuten indar!

— Bueno aita —esan zion semeak— ba aldakizu zer erabaki duen Xantik? Itsasgizon izan bear duela...

— Zer? Ori dek, ori Xanti! —uju egin zuen, oiean eseriaz. Beti izan zera zu pin-piña... bai egia!

— Bai —erantzun zuen Olarra-txikik.—Baiñan nik nai detena da, zu etortzea nerekin Lekeitio'ra, sarrerako esamiñetara.

— Ni beraz, e? —esan zuen agureak, arrosko.—Ta, zenbat egun palta dira?

— Ogei.

— Joan bearko dezu bai —tartetu zan On Benantzio— Xanti Olarra, itsas-otso egiazko baten laguntzapean bear du Itsas-Eskolara sartu. Ta ain gutxi gelditzen dira gure egunetan...!

— Bai, alajainkoa! Joango naiz, poz-pozik gaiñera! Nere kontura, Xanti, nere kontura.

— Baña, ortarako, ederki jan bearko dezu —esan zuen errañak.—Asko argaldu zera eta, baldin ondo jaten ezpadezu egun abentan, ez dezu joateko indarrik izango. Badakizu On Luzio'k esana: Sendatzeko, jan bear...

— Tira ba, ekarri zadazu txuleta bat oraintxe!

...Ez zuten aiek konprenitzen Olarra zarra sendaturik baze-goela.

* * *

Iraillaren goiz batean, —egoaize bigun batek arboletako ostro igarrai zabuka, udazkenaren etorrera iragarri nai ziela iduri— Lekeitio'n azaldu ziran Xanti ta aitona. Ez biak bakarrik. Mutikoaren gurasoak eta baita On Benantzio Amube ere, antxen ziran, aren sarraldia ikusteko asmoz.

Baña, Itsas-eskolaren ate-aurrera elduta, aitonak, —makilla bat zeraman onek, oso gogoaren kontra, On Luzio'k agindua— aiengana itzulita:

— Zuek or kanpoan geldi zaitezte gure zai. Gauza abek ez dira txantxetan artzekoak-eta, esan zien boz aginkor batez, korsario-ontzi bateko zubian egon balitz bezela.

— Baiñan, guk...

— Ez, ez ez. Ez iñola ere. Pamilitarren bigunkeriak dira oiek! Ez degu emen oien bearrik! Nerekin sartu bear du Xanti, nerekin bakarrik. Gero, nai badezute, joan gindezke noranai, sarraldia ospatzeko. Bai?

Bearko!

Eta, aitona ta billoba, Eskolako-atetik barrena ezkutatu ziranean —tente tente, arro arro, pausuak irmo— Xanti'ren amak biziro estutu zuen senarraren eskua.

— Jainkoaren naia da au —esan zuen, ama euskaldunen etsipen bizkorrarekin— Onerako izan dedilla!

On Benantziok orduan —esakun-zalea izaki, eta berak ere barrua ikutuxea euki— zerbait esan bear zuela eta:

— Ez zaitez larritu, andrea! —esan zuen bat-batean, geldi-geldi ta arranditsu— Euskaldun jatorra da mutilla, eta jatortasuna ez da sekulan ustel ateratzen...

Madrillen, 1969
R. BOZAS-URRUTIA

DENBORETATIK ZE HAR

— Ba dago,— hots egin zuen Martinek,— azkenez egin dut.

Etxe haren beheko aldean ba zegoen tegi zabal bat, tramankulu zaharrez, lan-abes estrainio eta beste halako tresna ikusgaitzez beteta. Zikina ere ba zen, inoiz garbitu gabea noski. Horregatik, ordea, ez zuen Martinek ardura. Ohitua zen. Ba zirudien, gainera, guzti hura atsegin zuela.

Etxean ez zuten aditzen. Pertsona arraroa zen, are ideia araroagoz zoratuta bide zegoena. Ez zuen besteek atsegin zituzten gauzetaz hitzik egiten eta batek jakin nongo liburutatik ateratako asmo eta gogoeta nahasiz ari zen komunzki.

Eguzki epel horitan besteak kiskaltzen ziren artean berak etxepeko iluntasunean ziharduen. —Zoraturik dut neure senarra—, aipatzen zuen Marik, —eta nork daki ez ote zuen arrazoia.

Baina Martinek ez zeukon garrantzirik ematen eritzi honi. Bi mundutan bizi ziren. Bata han goian, eguzkiaren argitan, etxe dorre haren kanpo aldean; bestea berea zen, etxearen azpian zeuden ganbara zabal eta armiarma-sarez hornitu haietan zegoena.

Nola heldu zen leku haretara? Bai, horixe berori galde egiten zuten inguruko herritarrek. Sahatsetako dorrea urte askotan abandonaturik egona zen eta ba zirudien etxe zahar hura laster amiltzeko eta lurra joteko zegoela. Hala ere, egun batez, inork zegatik ez zekiela, Martin Urkidik alokaturik hartu zuen, udan bere familia osoarekin bertan bizitzeko. Ingurua ba zen ederra gutienez eta hori zela-ta, Marik, bere andreak, ez zeukon ezetz gogorrik egin. Zelai leun atseginak, errekatxo garbi eta sakontasun gutikoak, herriska begiko eta baketsu bat handik hurran... nahiko zen guzti hau udaldi gozo bat susma erazteko.

Dorre hura, kondairagileek ziotena egia bazen, Arabako familia haundiki batek eraiki zuen eta luzaro orduko ondo bizi izanaren

eredua izan omen zen. Mende askotan hantxe bizi izan ziren Sahatsetakoak, hainbeste zaldun, aitonen seme eta haundiki sorterazi zitukean familia noble hura.

Gain beheera eta zoritxarra ere iratxekei zeikon etxe famatu hari. Honetan azterlariek eritzi diferent eta ezberdinak dituzte. Batzuek ba diote protestante bihurtu zirela, beste batzuek, ordea, sorginkrietan ari izanak zirela, baina ez dugu uste arazo hau inoiz argituko datekeanik. Honen ondorioa izan da guregana heldu den bakarra. Sahatsetako jaunak salaturik eta kondenaturik izan ziren, eta ihesari eman ez zeukotenak, bertan hilak.

Mende batez etxea hutsik egon zen, baina geroago, baserritar ausart bat hara bizitzera joan zen. Etxeak omen zuen madarika-zioak ez bide zeukon kalte handirik egin eta ongi bizi izan zen anitz urtetan. Hala eta guztiz ere, azken urteetan, gerra-denboran etxeke jauna hila zela eta seme nagusia Ameriketara abiatua, Sahatsetako dorre famatua berriz geratu zen saguzaharren eta sugelاندareen ostatu eta bizitoki bihurtuta.

Hau Martinek bere kontu hartu arte. Huntzorri abar ilunek janzten zuten etxe hura berriro apaindu zen. Papiak jandako eskilara zurezko haiek berriz entzun erazi zuten beren nigarrezko hotsa oinen azpian. Ate zaharretako zerraila herdoileztatuak, hezetasuna zerien orma hotz eta beltzak, zokoetako kutxa landuak, guztiok argitu ziren berriz Martin Urkidik etxea berriz prestatzean.

Ez zuen gustu txarra ukan Martinek. Etxea, zahar itxura gora behera, sendoa zen, eta zenbait hage usteldu izan ezik ez zuen erorteko perilik. Dirutxoak gastatu zituen behar bezala apaintzeko, baina, andrearen eritziak kontrakoak baziren ere, Urkidik pozik zekusan Sahatsetako dorre haretan hura egitea.

Euskal Herriko aundiki etxe zahar gehienen gisa, berau ere harri landuaz egina zen. Ate buruan harmarri bat zedukan, zuhaitz bi eta zer zatekean ongi ikusten ez zen zerbait gehiago zuena, leku batzuetan harria hareaturik bazegoenere. Eguzki aldera mahats parrak bat zen, haundia bere lodierari begiratuta, baina agian bitiztearen azken denboretan honez gero.

Etxepean, lurrean zegoen atexka batetik sartuta, ardandegi zabal bi hedatzen ziren, Matusalemen garaietako upa puskatuekin. Ba zen, honez gainera, beste ganbara bat, Martinek ongi baino hobeki eza gutzen zuena. Berak ezer esan ez arren, haugatik alokatua zen etxea, bere andre Marik ongi susmatu bezala.

Ardandegiaren ezker aldean zegoen ate ttiki batetik sar zitekean hara. Kanpoko argia ez zen haraino sartzen eta Martinek, zoko haiek argitzeko, butanozko kriseilu bat zerabilan. Luburu piloa ba

zen han, arasa batean ordenaturik eta denak eskuz eginak, Urkidi-
ren begietarako igarri ezina zen eskritura batez.

Asteak igaro zituen haiek aztertzen. Neguan Bituriko etxean
edukitzen zituen eta ohi ez bezalako pazientziak aztertu ere. Erdi
Haroko idazkera trakets hura menderatu zuen azkenik. Bitinarruz-
ko azaletako letrak, orain erdi galduak, behin eta berriz irakurten
zituen. «Nola industria batçuren vitartez dembora garaitu. Exercicio
hauen tratadua, Joan Miquele Sahaxetacoac eguina, 1203».

Zenbat bider irakurri zituen Martinek liburu honen horrialde
latz eta erdi ustelduak! Munduak ez daki norainoko estudioak egin
zituen orduko euskera zaharraren hitz misteriosen esan nahi ezku-
tua argitzeko!

Orain dena zen egina. Urte askotan iharduki ondoren, oraingoan
liburu haren teoria egiazta zezakean. Jendeak eta kondairagileek
Sahatsetako dorreaz esandako guztiek ba bide zuten zerbait egiazko.
Ganbara haretako liburuek hori pentsa erazten zuten behintzat.
Zenbait liburu arabiarren hizkuntzaz idatziak ziren eta baita, gehie-
nak, latinez. Bi, gainera, euskeraz. Berauk Sahatsetako Joan Mikele
zelako harek eginak ziren eta Martin Urkidik bere estudioetatik
atera zuenetik, antza, beste liburu guztien laburpen edo argibideak
ziren.

Zirudienez Sahatsetakoak alkimistak izanak ziren, baina ez zen
hau oso seguru, sentidu jatorrean behintzat. Erlijio eta mistika es-
trainiozko pentsakera zerien bi liburu haiei. Budismozko teoriak
ere formulazen zituen nolabait. Martinek pentsatu zuen arabiar li-
buru haien artean ba bide zirela orienteko erlijioen aztarrena, baina
hain zegozen textu haiek urdindu eta ustelduta ezen alferrik izan
zeikon inori eramatea, deus ezin argi baitzitekean. Euskerazko le-
trari jarraitzen zeikon ba, berau, dorre haretako jaunak berak
egin zuenez gero, interesgarriena zelakoan.

...ecer ezta guticiatuagoric, ezta preciatuagoric ere guiçonarentçat
ioandacoa baiçic. Amexac oro ioan den garaira bihurtu nahiezkoac
içaten dira. Nic ere, neure bicitçeco urte luceoc emplegatu ditut,
eta ez alferric, pasatutacoa coberatu nahiez. Liburu honetan neure
saio luceen verriac emaiten ditut inork provetcha ditzan...

Burua ba zukean behintzat Joan Mikele Sahatsetako harek. Ho-
rixe berori pentsatzen zuen Martinek harek utzitako liburua ira-
kurtean. H. G. Wellsek urte asko geroago pentsatuko zukean beza-
la, Joan Mikelek bere denboretan makina bat asmatu zuen denbo-
raz ibilteko. Tentagarria zen benetan teoria eta asmo haiek egiaz-
tatzea, benetan frogatzea. Martin, pazientki eta adore ikaragarri ba-
tez, honetan emplegatu zen luzaro.

Oholezko eta burdinazko makina hura, apurka apurka itxuratzen ari zen begi aurrean. Parterik gaitzena liburuak aipatzen zituen metal eta gai batzuk topatzea izan zen. Zer zatekean hidatyoa? Zer Niophetea? Zer gariota? Luzea bazen ere, Martinek, liburuak esan bezala, prestatu eta egin zituen astiro eta patxadaz. Borondate sendoa zuen guzti hura nola amaitzen zen jakiteko.

Azkenean dena prest geratu zen. Makina hura, Joan Mikelek bataia bezala «Iraganeratçailea», hantxe zegoen. Jarlekua, metalezko kapela bat, alanbre batzuk, mahain nahaspilatu bat eta bi kanpai. Ba zen, honez gainera, edari bat, makina «iraganeratçailearekin» batera enplegatzekoa.

Martin eseri egin zen bertan eta kristalezko ontzi batetik isurki uher hura edan zuen. Berehalaxe, liburuak agindu bezala, kanpai bat, eskuinekoa, jo zuen. Haren hotsa entzun zuen eta dena dar-dar hasi zen. Beste kanpaia ere, aurrekoaren hotsak eraginik, joten hasi zen. Mahain gaineko metal estrainio, konponketa eta bihurgune guztiak distiraz bete ziren eta dena, mahaina, jarlekua, buruan zedukan kopetakoa, alanbre okerrak eta guzti, dardaraz dantzatzen ziren. Argia biziago egiten zen eta ikarak haundiagoak. Martin ez zen bildur. Logure zen, hori bai, baina ongi sentitzen zen eta pozik. Mahain gaineko tinbre bat jo zuen, batean, bitan, hirutan...

Argia bere argitasuna galtzen hasi zen, ikara leunagoa bihurtzen eta inguruak xehezuaz, ilunduaz, ezereztuaz Urkidiren begietarako.

— Non nago?—, galde egin zeukon bere buruari begiak berriz irekitzean. Eguzkiaren argiak begiak mindu zeukion. Eguna zen. Gizon bat zedukan aurrean; berau bizardoa zen eta jantziak ikusita laster konturatu zen nola lehengo denboretara abiatua zen egiaz.

— Zer da hau?—, galdetu zeukon bat batean Martinek—, zer urte da dau?

Gizonak ez zeukon erantzun. Begira geratua zen isilik. Agian ez zuen euskeraz aditzen. Ba ote zekien benturaz lur hura Euskal Herria zenentz? Ezezaguna hurbildu zeikon. Behar bada estrainio iruditzen zeikon halako moldez jantzitako gizon bat mahain eta tramankulu haiekin batera aurkitzea.

— Nor haiz? Non nago?—, itaundu zeukon berriz. Bizardunak irripar egin zeukon eta burua eraginaz esan: —Joan Mikele Saha-tsetakoa nauk. Ba dakusat hik ere neure iraganeratzaileaz ari izan haizela. Ongi etorri, baina alferrik duk honeraino etortea. Hobe inoiz etorri ez bahintz. Nik ez nian ongi neurtu neure asmoaren ondoriorik. Galduta gaudek betiko hi ta biok. Hala beharrez mende berera etorriak gaituk. Nik ere hortxe diat neure makina, baina...

— Baina zer? Ez al da hau miragarritzko egintza bat? Mundu berri batean gaudek! Oraingo gizonentzat gertakizun dagoena guk ba diakiguk. Kondaira alda dezakegu. Mundu hobe bat egin. Jakin ganean ditugun ezbehar eta okerkeriak zuzen ditezkeek oraindik. Zer urte da dau?

— 970gn urtea izan beharko litzateke, gauzak aldatu ez balira.

— Zer gertatu da ba?

— Hi ez haiz oraindio konturatu; niri ere berdin pasatu zeidan hasikera batean. Hau ez da gure mundua ez gure kondaira. Gurekin beste mundu bat hasi duk. Begira... guk ezagutzen genduen lehen aldia ez duk hau, gu honera etorri ez bagina gertatuko zatekean bat baizik. Kondaira aldatu egin duk geugatik. Neure makinaz nik bizi nituen denboretara bihurtu nahi izan nian eta berriz hara, 1.203gn urtera itzuli nenduan, baina hura ez zuan ene garaia; ez zegoan ez Sahatsetakorik ez dorrerik ez ahiderik ere...

Martin aho zabalik geratu zen, ez zuen ondo aditzen, baina bere gorputzetik ikara hotz bat zebilkion.

— Ez diat ondo aditzen...— irten zeikon ahopetik.

— Erraza duk, baina. Pentsa ezak: etorkizuna aurrean dugunean geuk moldatzen diagu. Hau edo hori egin genezake. Hau eginez gero, hori egiteke utzita, honelako ondorio bat datorke eta kondaira honelako bidetik joanen; hori egiten badugu, ordea, hau egin gabe uzten diagu, eta hortik horrelako ondorio diferent eta ezberdin sortuko. Aukera, erabaki eta hautatu baino lehen dikeagu bakarrik. Aukerak moldatzen dik geroa, eta behin aldatuz gero ez diagok konpontzerik. Gure mundua geu hona etorri ez bagina gertatu beharko zena zuan, eta nonbait, enetzat ezezaguna den dimentsio batean ba diagok; ordea guk ezin ezer egin bertara bihurtzeko.

— Orduan...—, Martinek harriturik—, ezina duk ene garaira itzuli nahi izatea! Ez diagok mundu eta kondaira bat, posibilitate hainako mundu eta kondaira baizik! Ezina izanen zaidak neure andre eta seme alabak berriz ikustea!

— Bai, zoritxarrez holaxe duk. 1.970era bihurtzen bahaiz ere, mila urte geroagora joanen haiz, baina ez duk han ezer aurkituko, ez da ezagunik ere. Hura beste mundu bat dukek. Aski izan duk hire etorrera hire garai honetako asabek geroan hi sortu beharko hendukey semea edo alaba ez sortzeko, beste bat baizik, eta hemendik aurrera hik ez dukek gurasorik ez ezer.

— Orduan..., orduan are jaio aurretik hilen nauk! Zentzuga-bekia haundiagorik!

— Bai, halaxe duk.

— Eta ezin dezakegu ezer egin?—, galdetu zeukon Urkidik gero ta ikara haundiagoz.

— Batek jakin hori! Nik, gainera, ez diat ezer egiteko gogorik. Pozik bizi nauk oraingo garaiotan, baina, —esan zuen Joan Mikelek Martinez agian errukiturik—, hauxe egin dezakek: joan lehenagoko garaietara eta makina gelditu aurretik jo beste kanpaia, alderantziz, etorri hintzeneko denboratara bihur hadin. Segura ez duk, baina... nork daki!

Martinek berehalaxe aditu zuen eta harek itxadopen izpi bat argitu zeukon bihotzean. Agian, lehenagoko garai batera balihoa eta ezer aldatu gabe berriz 1.970gnera itzuli, bere familia aurkituko zukean berriro.

Eta egin ere egin zuen.

Makina astiro ezereztu zen berriz kanpaia jotean, baina lekuz eta denboraz aldatu zenean, Martinek, izututa, erromatar soldadu talde bat ikusi zuen, bere agerpenaz ikaratuta zihoazenak.

— Aurreko aldia ere ganbiatu dut—, pentsatu zuen berekiko—, ezina dut honetan ere bihurtzea. Lehenagora joan behar dut orain.

Eta berriz jo zuen kanpaia are denbora zaharragoetara abiatzeko. Bigarren honetan ere aski izan zen ume koxkor bat ikustea berriz ere lehenaldia aldatuta zegoela jakiteko. Ta berriro denbora zaharragoetara.

Hirutan, lauetan, bostetan, seitan... eta hainbeste saio eginda gero etsi egin zuen Martin gaixoak: irteera gabeko zuloan sartua zen. Lehenalditara joatea bera aski zen berau aldatzeko. Ezina zukean bere kondaira haretara itzultzea. Bestetik bildur ere ba zen. Ordurarte denak ikaratuak ziren haren agerketaz, baina, nonbait, piztiaren batek, haserrez-edo, hil zezakean halako batez. Dinosauruez pentsatzen zuen. Zer egin zezakean?

Berriz lehenalditara, baina kanpai bat jo bezain aguro bestea ere jo zuen eta orduan makina ikara izugarriaz hasi zeikon. Bildurrez zen osorik. Bere mundua berriz ikusteko esperantza guztiz ahiturik ez bazuen ere berak ba zekien ibilaldi hura bizi edo hiltzekoa zatekeala. Mila leku, mila pertsona, irudi eta argi-ilun asko iragaiten ziren bere begi aitzinean. Gero bakea, isiltasun osoa.

Ez zituen begiak zabaldu nahi. Bildur zen, bai bildur. Azkenean aurrea ikusi zuen. Hantxe zegoen bera, bere Sahatsetako ganbara ilun haretan, mahain ondoan jarrita, buruan tramankulu hura, alanbre okerrekin. Eta argitxoak, eta edari uher hura koparen barnean gutiturik, edanda bezala, eta kanpaiak ere oraindik higitzen ziren pixka bat. Itzulia zen. Sinesteko ezina bazen ere bere mundura berriz etorria zen. Salto egin zuen; handik kanpora abiatu zen. Do-

re aurrean bere emazte Mari ikusi zuen haurtxoekin jolasean. Arnasa egin zuen eta gero, ganbarara bihurtuta mailu batekin makina hautsi zuen eta atea giltzaz itxi.

Urte batzuk pasatu dira hau gertatu zenetik hona. Sahatsetako dorrea berriz dago hutsik Urkiditarrek abandonatu zutenetik. Martinek ez du gogoratu ere nahi gertatu izugarri hura. —Agian edari harek amets eragin zeuzkidan guzti haiek, ez dakizut—, zioetan hats beherapen luzeak eginaz—, ba liteke ene buru nekatuaren lilura besterik ez izatea, baina ahaztu nahi dut hura. Egitan diotsut, neure bizitze osoan ez dut hainbeste ikara eta bildur izan.

Egia ote zen? Gezurra dena? Nik behintzat neure begiez ikusi dut Martin Urkidiren etxean gordetzen diren bi euskal liburu zaharrok, eskuz eginak eta makina iraganeratzailareen berri ematen dutenak. Ba liteke sinesteko gaitza izatea, baina une batzuetan, Martin Urkidik, hura kontatzean duen aurpegi zurbil eta ikaratua gogoratzean, neuk ere... tira ez noa ezer esatea.

Hobeto da pentsatzea, egia bazen ere, dena amets bat besterik ez zela izan.

A M A I A

XABIER KINTANA

1970-gneko Urtarrilaren 13-an egina



KRABELIÑ GORRIAK

Arritokieta'ko Amabirjiña: Barka egidazu, Zuri eskeintzen dizkitzutan "Krabeliñ gorriak", Jexuxa, andre onak, eramaten zizkitzunak beziñ usai gozodun eta ederrak ez izatea. Ayek baño ederragoak izan ba'ziran ere, Zuretzako nituan da, nere bizitzan ainbeste lagundu didazun Zeruko Ama, maite laztana.

Egilleak.

Egilleak nai luke, irakurlea Itzurun, erri polliten aurrean jarrri. Itxasertzean dago, Miarritz eta Matxitxako bitartean. Gabaz, bi leku abetako parolak ederki ikusten dira Itzurundik. Ipar aldean, Kantauri, euskaldunen itxaso, Ego aldean Ernio ta Izarraitz, Sortaldean Indamendi ta Artadi, ta Sartaldean Bizkaiko itxas-ertze ederra, bere sartu-erten zoragarriakiñ. Edozeiñ aldetara begiratuta ikusgai lilluragarriak.

Itzurun ez da erri aundia, bi milla biztanle ditu, danak euskaldunak, zortzi karabiñeru ta beuren emazteak izan ezik, karabiñeruen umeak ere euskaldunak dira, bai bertan jaiokak, bai txikitak etorriak, eta edozeiñ itzurundar jatorrek bezelaxe erria maite dutenak eta aldeztuten dutenak.

Erriko biztanle guztiak alkar ezagutzen dute, bai kaletarrak eta bai baserritarrak, eta pamili guztietako gora-berak erritaz danak dazkite. Haugaitik dazkit nik ere aiñ ondo Itzurungo gauzak. Neu ere angoa naizelako.

Itzurunek eleiza nagusi ederra du, pelota-lekua ere bai, itxasate segurua, arrantzale ta itxasontzientzat, Fueroen Enparantza, neguan danboliña jotzeko, Beko Plaza, udaran musika jotzen dan tokia, Kale Nagusia, kale Berria, Eurikalea, Aize kalea, ta Larretxo. Larretxoez da kalea, auzotegi bat baizik, etxeak ez ditu bata besteari eantzita, or-emenka zabalduak, eta etxien alboan edo atzean baratzak. Larretxoko etxeak kale-baserriak dira, geyenak bai dute bei bat eta denak dituzte olloak.

Nik esan bear detan istorioa Larretxo-n gertatua da, urtetxoak dira, baña neuk ezagutu nituan toki eta pertsona oyek. Gaur ez dauka Larretxok ez Itzurunek orduko antzik. Baiña... ixildu nadiñ, negarguria datorkit eta.

Larretxo-n bizi zan Joxe Miel izena zuan igeltzeru bat. Bere abizenik iñoiz ez det jakiñ eta eziñ esan. Erri guztian Joxe Miel aunta deitzen zioten, emazteari Jexuxa auntzen andria, eta bere etxe-koari auntzenekoak. Joxe Mielen aita «sasi-letradu» xamarra zan, eta beiñ, Alkate ipintzeko bero-bero ibilli ziran Itzurundarrak, baña ez ziran ausartu. Alegia, auzierrietan burla egiño ziotela Itzurundarrai, Alkatia aunta zutelako.

Joxe Mielek, ezkondata urte batzuetan ez zuan lurrik. Larretxo inguruan ziranak gaur baño estimazio obetxoagoa zutelako, ta igeltzerua zan arren urtean egun asko izaten zituan lan gabekoak, eta baratza baten atzetik zebillen. «Kale gorrian» bizi bear izatea gauza latza baita.

Joxe Miel, gizon langillea izaki ta Zubiaurren artu zuan lur zati aundi bat, iñoiz iñork landu gabea, antziña urgezalen azpian egona, baña ekiñ da ekiñ sekulako baratza egiñ zuan. Urterako lursagarrrak, azaak, letxugak eta nai aña gauza egiten zitun bertan.

Baña etzai gabe eziñ gindezke izan nonbait mundu onetan, eta Larretxo'ko olluak bidea ikasi zuten, Joxe Mielen baratza ederrera. Onek ordea ez zuan etzipenik artu eta bai asmatu ere sendakaia. San Juan aurreko egunetan mutill-koskorak ibiltzen diran bezelaxe ibilli zan, Talai-ko bidetik eta Ardantza-hotik eta, sasi ta sastraka zahar danak ebaki ta karriatzen. Izerdi pranko bota zuan gure gizonak, baña bere baratza maiteari ezi ederra ipiñi zion bira guztian. Bai bide batez bide zar danak ondo garbitu ere!

Joxe Mielen baratzak lorategia zirudian, eta maitetasun guztia emaztea ta aurrak kendu ezker bere baratza zuan.

Baratza artan izaten ziran urteoro krabeliñ gorri zoragarriak. Andaluziako *reventones* izena duten pama aundiko krabeliñak baño milla bider ederragoak, lorea oso-osorik, lertu gabea, eta kolore gorria berriz indartsua, urrutitik ikusteko modukoa, krabeliñ aien usai gozoa Larretxora zetozenak, Ipar kaleari bira eman orduko artzen zuten, eta esan ere bai:

— Krabeliñ oyen usai gozoa artzeagaitik bakarrik, beste gabe etorri leike Larretxora.

Lore oyen istorioa esan bear det oraiñ, eta, barkatu irakurleok.

Jexuxa, auntzen andrea, oso gaizki egon zan bigarren aurra izan zuanean. Sendagilleak ez zuan uste bizirik ertengo zanik, baña Jaungoikoari eskerrak ez zan ill.

Itzurunen baida Amabirjiñaren eleizatxo bat, itxasoaren ertzean dagoan arkaitz baten gañean egiña, Laguntzaren Amabirjiñarena, itzurundarrak asko maite dutena, arrantzaleak eta mariñelak batez ere.

Gure Jexuxa gaxoak, ill bear zuala siñistu zuanean, Laguntzaren Amabirjiñari agindu bat egiñ zion, arren, sendatu zezan. Pobrea zan, gaxoa, ta gogo aundia izan arren, gauza aundirik eziñ eskeiñi Amabirjiñari, baña, Amabirjiñak pozez artu zion bere eskeintza.

Hau izan zan, Jexuxa'k Amabirjiña Laguntzakoari egiñ zion promesa: Urteoro-urteoro, bizi zan bitartean, agorraren 8 garrenerako (Amabirjiña Laguntzakoaren pesta) eramango zizkiola krabeliñ gorriak bere irudia apaintzeko.

Eta ikusgarriak zeuskan baratzan agorraren lenengo egunetan. Aurreko urtean ere Laguntzako Amabirjiñaren eleizan izan zan apainduririk ederrena, Jexuxa'n krabeliñ gorriak izan ziran.

Baña aurten... iru egun bakarrik pestarako palta ziralarik (ostegun arratsaldea aiñ zuzen) bat-edon-batek, lore guztiak ebaki ta bera botata agertu ziran. Loreak eta pipittak.

Beriala jakiñ zan nork egiñ zuan gaiztakeri aiñ izugarria. (Ene! Amabirjiña Laguntzakoari eskeiñitako loreak! Jexusak ia illian zegoala egindako promesa!!)

Mainttonineko Urrepiñak (1) Bost urteko neskatxo bat zan bera.

Manttoni, Joxe Mielen baratzara begira zegoan etxe baten bizi zan andre alargun bat zan. Gizona ittota, bost ume kiñ gelditu zan andre gaxoa. Amaikaxo lan eta amaikaxo arrastaka egindako andrea, bere bost umeak eta aita zarra mantentzeko!!

«Egunoro-egunoro, jai ta aste, egualdi txar da on» goizeko bostetan juaten zan bere astotxoakiñ arrai saltzen Errekondo uriraño, amazaspi km. aruntz, eta beste ainbeste onuntz. Ez uste izan ordea, astogañean ibiltzen zanik. Bai zera! Oñez, Jaungoikoak botatzen zituan euri, elur ta aize otz guztiak bere gañean artuaz. Andre ona langillea, ausarditsua, ta zerbait gogorra. Eta bai bear ere bizimodua irabaziko ba zuan. Izakera biguña ta gozua izatea erraz da, etxean ezer palta ez danean. Baña dana palta danean, eta gañera nor berak er ten bear irabaztera zazpi lagunek jatekō?

Ez nuke bada nai, irakurleak, Mainttoni andre gaiztotzat artzerik.

Bere alaba Urrepiña bost urteko neskatxo bargasta bat zan, ama gabe azitako umeak izan oi diran bezelakoa. Aitonak esan oi zion: —«Urrepiña? izena den ik ederregia».

(1) Batzuek Urrupia deitzen zioten, baña geyenak Urrepiña.

Jexuxa, juan zan ba bereala Mañttoninera, ta al zuan erarik onean esan zion, bere alabatxoak zer okerkeri aundia egiñ zion. Alegia, bere promesa bete ahal izateko krabeliñ gabe utzi zuala eta, ia Errekondotik, edo Zestuatik edo krabeliñ eder batzuek ekartzen zizkion orde, Amabirjiñakin kunplitu zezan.

Mañttonik erantzun zion batere estutu gabe:

—«Nik zer egitia nai den ba? Umeak ume dittun, emen eta Madrillen. Gure Urrepiña okerra dana ba zekiñau, baña, ark zer tze-kiñan ba ik norentzat euskanan krabeliñak? Baziukanau, aurretijoko (1) konturik, ire krabeliñak baño!! Eta nik, orde, beste krabeliñ eder batzuek ekartzeko? Zeatik ekarriko dizkiñat nik iri krabeliñak! Ibero-neko jauregira jutia naiko den. Etzion gaizki!! Jun akit emendik, azkar, musuetako aiziakiñ, eta kuida gero onera geijo orrelako mandatuakiñ etorri».

Joxe Miel lanetik etxeratu zanean, emaztea negarrez billatu zuan, eta beriala jun nai zun «Andre lotsagabe ari kontuak artzera».

Jexusak nekez baretu zuan, baña «Juezetara» eramateko erabakia artu zun.

Jexuxak esaten zion: —Ez, Joxe Miel, ez orrelakorik pentsatu, «Juezetan» ez dezu gauza onik egingo ta. Gure amamak esan oi zuan Burgos'ko «Juezetan» bi gizon zeudela tente, bata alkandora utzian eta bestea narru gorrian. Alkandoraduna auzia irabazitakoa eta narru-gorrian zegoana auzia galdu-zuana.

—Baña, nik ez ordea andre orreri, orretan utziko! Umeak egiñ duan gaiztakeria egiñ da gañera gure bizkarretik parre! Ez orixe!! Biar sekretarioengana noa, eta arek esango dit zer egiñ.

Hau esanda, zuzenean baratzara juan zan eta ango «trixkantza» ikusi zuanean, ez zan geiago bere gogoaren jabe izan. Lurrean zeuden lore danak jaso eta «suak eta amukuak» artuta Mañttoninera juan zan.

Atea zabal-zabalik zegoan, pobrien etxietan egon oi dan bezela, eta sukalderaño sartu zan «danba-danba».

—Aizu, Mañttoni, ez dezazula pentsatu gauza hau, onetan geldituko danik, e? Ogeitaamabi krabeliñ, eta emezortzi pipitta, (ara emen danak), gure andriak Amabirjiñari eramateko zeuzkanak. Ara; krabeliñ bakoitza peseta bi pagatzen ba izkatzu, konponduko gera, gañeuntzian «Juezetara, eramango zaitut»

—Zer esan dek? Bakoitza peseta bi? Amairu duro ire baratzako krabeliñak? Ago pixkatzen, ortxe, atien atzian ziuskat, eta perre-

(1) Itzurrunen "j" hau prantzezez bezela oguztutzen da.

jillen orrijan batuta emangodizkiat. Amairu duro!! Ez dek gutxi espero... Ederki eman ere!! Berriz ere, ire andriak egiño dixkik promesak, orrela kobratzekotan! Lotsik ez da biarrik ere ez, ni bezelako alargun triste batena orrelako elaberriakiñ etortzeko. Aittaren eta Semiaren!! Gure etxian etziok amairu duron gauzik, bai? eta ez juezak eta ez bestek ez die emendik diru ori aterako! Auntzen gau erdiko eztula dek, alajañetan!

— Aizu, auntsik ez gero aipatu emen e?

— Ara zer esaten diatan. Nik emandako amairu durorik ez dekala sekula ikusiko bai? eta euk nai dekan lekura jotzeko. Bizirik jaijuak gatzibek, alajañetan! Zoratuta baengoke ere, geijagorik ez!!

Joxe Miel «tripak jaten» jun zan etxera, «andre lotsagabea, andre lotsagabea» esanaz. Apaltzeko gogorik ez berak ez andreak ez zuten, eta aurrak ogeratu zituztenean Joxe Mielek esan zion Jexuxari:

— Biar sekretarioengana nua, ta andre lotsagabe orri «Juezetan» «paperak sartu bear dizkiot» Ez dit neri orrelako burlik egingo. Ez orixe!!

— Ai, Joxe Miel. Leku onera zuaz sekretarioena! Baietz esango dizu, baña, gero kontuak. Gure ama zanak ondo proatua zuan, gizon hori, eta ark esan oi zuan, «kanteillako» (de alcantarilla) arratoi zarrak baño malizi geyago zuala. Beste lanik al du ba? Beti librua aurrean artuta, beti papera eskuetan duala. Utzi, utzi, Joxe Miel, emen ez bada beste munduan ordaindu bearko ditu Manttonik nere krabeliñ ederrak. Laguntzako Amabirjiña maitea, Zuretzako nituak!!

Zortzi egun barru, Joxe Mielek «juezetan sartutako paperak» mugitu ziran.

Itzurungo juzgadaua, beste erri txikietakoak bezelakoa zan. Areto aundi xamar bat, aurreko orman, Errege Alfonso amairugarrenen irudia. Azpian Jesukristo kurutzeiltzatuarena. Mai bat eta sei jarleku. Leio denak itxita nikotina kiratz nazkagarria ta autsa ugari.

Baña bai zan juzgadu onetan gauza berezi bat, besteetan ez zana. Maien azpian liburu aundi bat. Sekretarioak bere gañean ipiñi oi zituan oñak, maien aurrean exeritzen zanean.

Oso gizon txikia zan, eta, zankoak txintxilika ez eukitzearren nonbait, artzen zuan liburu aundi aura oiñpean.

Itzurundarrak esan oi zuten «Legeko Liburua» zala, eta liburu aura bezelaxe erabiltzen zituala legeak. Oiñpean. Baña ez zan Legeko Liburua. Azalean beintzat «Limpia fija y da esplendor» zion, eta emendik ateratzen det (eta nere irakurleak berdiñ), erderaren Iztegia zala.

Arratsaldeko lauretan an zeuden, Sekretarioa liburu aundiaren gañean oñak zitularik, eta bere eskubian jueza (urte artan Erramun Xoxua zan) biak maien aurrean exerita, eta alde batean Mañttoni, asko estutu gabe, arrai saltzeko mantal berriakiñ. Beste aldean Joxe Miel, alkandora ta abarketa garbiakin, txapela eskuan zuala. Sarrerako ate aurrean, Patxiku prostua (Itzurunen aguazillari prostua esaten diote).

Sekretarioak ipiñi zituan begi-aurrekoak, artu zuan eskuetan paper aundi bat eta asi zan irakurtzen.

Mañttonik ez det uste ezer asko ulertzen zionik, baña lasai zegoan bere lekuan.

Joxé Miel berriz, buru-belarri entzuten eta bere baitan zion: —Ori dek ori naaste borrhastea. Baña zer esaten ari dala esango zen- duke gizon ori, jo goiak eta jo beiak.

Alako baten zerbait ulertu zuan garbi xamar, eta, altxa bere lekutik, eta galdetu zion Sekretarioari:

—Zer? Ni ez naizela nor ne-re-kra-be-li-ña-ri prezioa jartzeko?

—Ez, zu ez zera iñor.

—Norenak dira bada krabeliñak? Nik ez al det bada neure gauzakiñ agintzen?

—Bai, agindu bai, baña eziñ zeinke lore oyen preziorik jarri.

—Nork jarri bear dio bada prezioa nere-lo-re-ai?

—Donostitik ekarri bear da jardiñeru aitu bat, eta ark esango du lore oiek zenbat balio duten. Eta jardiñeru orren biajia ta ostatua, ta Donostian galtzen duan jornaeta, zure gaiñ dijuaz, Joxe Miel, eta...

—Bai, bai, ez jarraitu. «Kanteillako» arratoi zarrak baño malizi geiago, esan zuanak ez zuan gezur aundia esan.

Juezak orduan: —Aizak, ez dezakala uste izan gero, Larramendin sagardotegian agoanik, e? Emen errespetua biar dek.

—Errespetua nori? Erramun Xoxuari? Nun irabazia dezu zuk errespetua?

—I, kontu gero nerekin, e? Ni, gerrako barkuan Perrolen, kabo izana nauk gero? Nor dek emen kanteillako arratoi zarra?

Sekretarioak: —Hori, Hori. Patxiku, atera gizon hau kanpora.

Joxe Mielek: —Ez det nik iñoren bearrik emendik ertetzeko, sartu ez banintzan obenuan da. Eta Manttonik atzo eramane zion legatzak, ez al dio ba onik egingo. (Hau oso gogor). Eta txapela jantzi ta erten zan, ateari egundoko kolpea emanaz.

Urrengo egunean, Patxiku prostua, paper bat eskuan zuala, Joxe Mielen etxera. Larretxoko leio guztietatik andreak begira.

Jexuxari eman zion papera eta esan: Zortzi egun barru pagatu bearrean zala bost duro «juezetako» lana, eta beste bost duro errespetua paltatu zualako.

— Eta Mainttonik ze pagatu bear du?

— Ezer ez, ark «juezeta» irabazi egiñ du ta.

Jexuxak negarrari eman zion.

— Ai ene bada! Nik nondik atera bear ditut hamar duro?

— Ori zeuk ikusi. Zortzi egun dauzkazue.

— Gure galdua, gure galdua!! zion Jexuxa gaxoak. Laguntzako Ama maitia! Zatoz guri laguntzera!

Auntzeneko Joxe Mielek, bere bizkarren kontura ikasi zituan, giza-jajoak, iru egi biribill abek: a) Egi guztiak ez dirala esatekoak. b) Pobrien arrazoiak, mendian usteltzen dan egur igarrak aña balio duala.

Ezku utsakiñ eziñ leikeala arrazoirik aurrera eraman «kanteillako» arratoi zarra bezelakoakiñ.

Eldu zan berrero Udaberria, eta Joxe Mielen baratza ikusgarria zegoan, batez ere letxuga sailla.

Baña Maiñttoniren olloak billatu zuten eziaren azpitik nundik sartu eta lau edo bost ollo an ari ziran letxugetan lanean.

Auzo bat juan zan Joxe Miel auntzenera, eta atetik oyu egin zuan: Jexuxa! Mainttonin olloak an dabiltzala zuen letxugetan eta bat ez dutela utzi bear!!

Ain zuzen Joxe Miel etxean, eta erteten da segarrera bizian, atxurra artuta. Sartzen da baratzan, eta ollo bakarra letxugak jaten. Besteak nonbait, naikoa janak ordurako, eta iges egiñak.

Joxe Mielek eman zion atxurkadaz, olloa seko gelditu zan.

Maiñttoni leioen zirrikatetik begira zegoan, eta oyu egiñ zion:

— Aizak! Eziñ al uan, ollo hori uxatu, ill gabe? Ara, ollo gauari eman dion «paraerua» gizon «isurjente» orrek, uxatu besterik euki ez ta. Ona ago i, mesedeak iñori egiteko. Ni bezelako alargun triste bati azijo hori egiten dionak, egunen erdijan, zer egingo ete luke, Jaungoikoa beste testigo gabe aurkituko balitz?

Joxe Mielek itzik erantzun gabe, artu olloa anketatik eta leiora bota zion.

Mainttonik orduan: —Orain baño lenagoko esaera dek «Auntzen buztanpian aterpe gutxi» aittu al dek? Berriz esangoiat «Auntzen buztanpian aterpe gutxi».

KAPAÑEN GAIZTAKERIE (*)

Mutil gazteak neguan «billa» juaten ziran. «Billa» esaten zitzaion, gauez mutillak neskakak zeuden etxera juan eta itsuketan leio-zirriztuetatik egiteari. Neskaren gogoko mutillak baziran, atea zabaltzen zieten, eta sukaldera eramaten zituzten. An bi edo iru orduan beren izketan, gazteak bezela, egoten ziren. Egunez, erri or tako mutillik etzan neskakin ikusten.

Egun batez, askotan bezela, ba dijoa «billa» Gregorio Lauzterreka'ra. Larruntza-gañera iritxi zanean, erruz ikaratu zan. Etzan gutxigorako ere. Muño-aldeko bidetik beregana, su-ta-gar, «bestemundukoa» zetorren-eta. Igesi asi zan Gregorio ori, eta bai «bestemundukoa» ere, orpoz-orpo atzetik sua boteaz. Eta geroz ta urrerago sugar ori, alde guztietatik txinparta ta garra zuela. Ango anka-jokua Gregorio orrena! Ala ta guztiz, sugarra urreratzen. Zubitxoa esaten zitzaion tokira iritxi zan Gregorio ori, eta artu zuen bere etxe-aldera, bide aundia utzita. Baño, bai, bere atzetik sugarra ere. Geiago ezin zuanean, Gregorio gelditu zan, illeak zuti-zuti zituela, eta bere ondora ia iritxi zen garaian, gelditu zen sugar ori ere eta piskaka-piskaka itzaltzen asi zen.

Bere onera etorri zanean, Gregorio juan da, zer deabru ote zan, eta an ikusi zuan asto zar bat, erdi-kiskalduta. Aartean ere, lastabal-ondar batzuek ba zituan gorputzean asto zar orrek. Piztu du pospollo bat, eta aren argiz ezagutu zuen bere astoa zala. Bere erioan, asto orrek bere etxe-aldera jo zuen, Gregoriok bezelaxe.

Urrengo egunean etzen beste izkuntzarik erri artan: Gregorioren asto-erretzea. Andik edo emendik gero jakin zan asto gaixoari,

(*) Ascensio Apalategui Aguirre. Zarra. Itxaropena Argitaldaria. (1965). Zarautz.

lastoz bildu ta alanbrez lotuta, Kapañe-k su eman ziola, Gregorio «billa» zijoan orduan bertan.

Gregorio'k lau aizeetara otsegiten zuen, Kapañe arrapatzen zuen tokian ilko zuela. Guztia zan, Gregorio'k oso barrenen zeukala Kapañe'n azio txarra eta, nola edo ala, biurtu egin nai ziola gaiztakeria. Alkartu zan auzoko bere bi lagunekin, eta erabaki zuten, makillaz bero-bero egin bear zala Kapañe ori.

Jai gau batez, beti bezela, Kapañe au Martintxo'nean zegoan eta, esan oi dan bezela, ark ixten zituen Martintxo-neko atreak, azkena ateratzen zan-eta. Gau artan, atarira irten zanean, iruditu zaio mozorroen batzuek ba zabiltzala illunpeetan, eta Martintxok ateari atalaga ematerakoan, asi zan berriz bultzaka. Iriki zion Martintxok atea, ta an sartu zan buruz aurrera Kapañe ori.

— Zer gertatzen da? —galdetu zion Martintxok.

— «Dengek» zebiltzak, Martiñ, «Dengek», —Kapañe'k.

— Or eztago «Denge» rik, gizona; —eta atera zan atarira Martintxo. Aren babesean, baita Kapañe ere, eta etzuten iñor ikusi. Ala, piska bat lasaitu, eta abiatu zan etxera.

Martintxo-netik piska bat urrutiratu zanean, ara nun azaltzen diran berriz «Denge» oiek, eta makillaz maza-maza eginda utzi zuten gure Kapañe. Onen aiama-otsetara jun zan korrika Martintxo, eta an billatu zuen lurrean dana odoldurik; baño «Denge»en asterrrenik etzuen arkitu. Nola edo ala ekarri zuen bere etxera, sartu zuen oiean, eta ospiañekin ta olioakin eman zizkion igurtzi batzuek. Urrengo egunean obeto zegoen Kapañe, eta Martiñ-ek galdetu zion:

— Zein ziran gaueko «Denge» oiek? Eta Kapañek:

— Arpegiik ez diet ikusi, baña anka-otsetik ezagutu ditut. Enoa izenik esatera.

— Or konpon, bada, Kapañe; —esan zion Martiñ-ek.

Urrengo egunean Zarra juan zan Kapañe ikustera. Ala galdetu zion:

— Zer moduz, bada, zer moduz?

— Atzo gauean baño obeto, —Kapañek.

— Mediku otsegitea nai al dezu? —Zarrak. Egun artan mediku berria etorrita zegoen erri ortara. Won Bizar, jarri zioten izena, etorri zan bezin laister. Bizar luzea zuan, bada.

— Ez, —Kapañek, —egun bi gora-bera sendatuko naiz. —Ala, bi edo iru itz egin eta Zarra etxera abiatu zan. Martintxok atean arrapatu zuen, eta esan zion:

— Zerbait esan bearko zaie makilla-zale oiei ere.

— Ogie ordañetan, Martiñ, ogie ordañetan; —erantzun zion Zarrak. Gregorio-ren asto-erretzea adierazi nai zion, noski.

Egunak jua ziran, eta Kapañe-ren mazaketa au ere aaztu zan. Aaztu zan danentzat; baño Kapañe-ri etzizaion aaztu, ikusiko degun bezela.

Andik illabete batera, igande-illuntze batean, beti bezela, Jose Migel eta bere sailla Sutegi-an zeuden beren apari-legea egiten. Bereala su-kanpaia entzun zan, eta itxumustuan sartu zan Martiñ, esanaz, Mitxelenek eta Gomonsalse sutan zerela.

Jeiki ta laisterka jua ziren danak. Errekatxo bat zegon baserri oien aldamenean; al zuenak al zuen ontziakin asi ziran ura ekartzen, itzaltzen ote zuten su ori. Baña dena alperrik. Saalez bete-bete egin da zeuden etxe oiek, eta etzegon iñola ere sua gelditzerik. Ala, Jose Migel eta sailla begira zeuden nola erretzen ziren, etsita, urak etzuela ezertarako balio-eta. Bereala entzun zuten, atzeko malloan, gizon-izketa, esaten zuela:

— Ospa...! Berotuko dituk gaur bai orko arratoiak.

Otsegin zioten Jose Migel-eri, eta artu ta ekarri zuten beera Kapañe ori. Etzuen ukatu berak su eman ziela baserri oieri, eta orduan erabaki zuten urkatu egin bear zala Kapañe; ta aldameneko baserri-rrira jua ziran soka baten billa. Baita bota ere soka lepotik, eta ba zeramaten urkatzera gure Kapañe.

Zarra orduantxe etorri zan eta galdetu zuen:

— Ganaduuk atera al die?

— Bai, —erantzun zioten. An, illunpeetan, gardaba-otsa entzun zan, eta ots-egin zion Jose Migel-eri:

— Zer gertatzen da orain, Jose Miel? Eta onek:

— Kapañe urkatzera goaz. Etxeek onek sutu ditu-ta.

— Ezer egin gabe, eraman nere etxera. An ikusiko diagu zer egin bear dan.

Eraman zuten, bada, Kapañe ori Zarra-ren etxera. Etzioten lepotik sokarik kendu; zergatik ez, Fermiñ-ek esan zuen:

— Gero ere erantsi egin bearko zaiok, eta dagola berekin.

Zarra, bada, bere etxera iritxi zan, eta Kapañek oraindik soka lepotik zeukala ikusirik, esan zuen:

— Kendu soka ori lepotik, Jose Miel.

Piska batez egon ziren marmarrean; baño kendu zioten orratik soka ori.

— Orain entzun ondo, gizonak! —jarraitu zuen Zarrak. —Esaten badegu Kapañek erre zituela etxe oiek, Ermandadeak ez dik dirurik ordaindu naiko, eta aldamenetako errietara ere etzegok jua-terik etxe-erre eskean. Nork egingo ditu orduun etxe berriik? Kapañe urkatu-ta, etxe-jabe danak urkatzen dituzute. Baño, itzik iñork esaten ezipadu gai ontan, Ermandadeak ordainduko dik zerbait, iru

edo lau sail jua litezkek beste errietara etxe-erre eskeen, eta geron erriik jarri dezala egurra, etxe oiek egiteko bear dana. Gero, auzolan pixka batekin, zuzenduko dek kalte au.

—Eta Kapañe-ri zer egin bear zaio? —José Migel-ek. Eta Zarrak:

—Kapañek idi ederrak zeuzkak-eta, jan-truke, ekarri dezala erri-basotik bear dan egur guztie.

Etzitzaien gaizki iruditu Zarra-ren erabakia, eta orrela utzi zioten Kapañe-ri. Au oso bildurtuta zegoen, eta ala esan zion Zarra-ri:

—Ekarriko det egurra lasai. Bai mendi guztie jetxi bear banu ere.


—Zergatik sutu dituk baserri oiek? —galdetu zion Zarrak. —Eta Kapañek:

—«Denge»enak ziralako.

—Bada emendik aurrera aaztu adi «Denge»ezaz. Bigarren aldiz ez au Zarrak sokatik kenduko-ta.

Bereala, Ermandadeak eman zuen dirua, eta auzo-lana egin zan, eta bai Kapañek egurra ekarri ere. Dana dala, sei-bat illabete barru, baserriak leen baño ederragoak egin zituzten, eta, etxe-erre eskean bildu ziren diruekin eta abar, etxe-jabeeri zer-edo-zer esku-artean ere gelditu egin zitzaian.

JOAN GOIKOETXEA



PERUTXIÑEN KONEJU ZURIA

Iñusentetzat deukie errian Peru Totolo.

Amabi urte, eta bein be eskolara joan bako mutilla, gure Perutxiñ.

Iñusentia? Iñusentia izango da bear bada, baia entzun zelakoa egin daben, joan dan astean bertan.

* * *

Merienda-askari on bat egin bear dabiela erriko mutil gazte batzuk, eta iñon kontura.

Jose Baldras da mutillon buru, eta Perutxiñ Totolori deitu deutzoz, kukurruku egiten dabelakoan Baldras mutil eder orrek:

- *I, Perutxiñ, etorri ai ona.*
- *Bai. Emen neiyauk.*
- *Bost ogerlekoko bat irebastie gure dok?*
- *Orixo bai baietz!*
- *Ba, ixillien arrapau eta koneju eder bat ekarrik biyer gaberako.*
- *Bai. Erriyen dauenik ederrena ekarrikuat.*
- *Ixillien gero!*
- *Bai, ixillien.*

* * *

Esan eta egin, urrengo gabian or nun betetan dabien egiñiko trautua, erriko taberna osteko tejamana zarrarian.

- *Autzozak bost ogerlekuok, eta ez esan iñori be au, Perutxiñ.*
— *Trankill egon, abadie bera be ezta konturatuko ta.*

* * *

Ez eutzan esan iñori Perutxiñ Totolok, baiña Jose Baldras-en amak bai urrengo egunian:

— *Eztok ikusi gure koneju zuriye, Joxe?*

— *Zer ba?*

— *Eztok agiri oillotokiye da. Piztiye bat ibili ezpadok gabien or...*

Piztiye bai... zera, Perutxiñ Totolo ogigaztaia. Ederra sartu deuzto Joxe Baldras-i.

BITAÑO





Gipuzkoa'ko sukalkintzak garaipen aundiak iritxi izan oi ditu, baña gutxi, oso gutxi ere, lengo azaroan Bartzelona'n lortu zuan antzekoa.

Urtero bezala, ta Bartzelona'n bertako *Hogar-Hotel*'ek antolatuta, berealdiko jan-edan-jaiak egin ziran.

Jai aietako bat gain-gaiñeko oturuntza bat izan zan. Picasso pintatzalleak berak oturuntza artako gertu zuan iragarki berezi bat, eta bertan bosteun-bat maikide bildu ziran: emengo ta atzerriko goiko mallako jatetxe-nagusi, sukaldari, moko-fin eta abar.

Ta jaki bat —legatza Goierri-erara— gipuzkoar batek, Beasain'go *Hostal Castillo*'ren nagusiak, Jose Castillo'k, serbitzatu zuan.

Are geiago: jaki ura Gipuzkoa'ko ola batean —Orbegozo-olan— landutako sukaldetxoetan gertua izan zan.

A! ta serbitzatu zanean, txalo ugariekin batera, Montjuich'eko Jauregi Nagusian *San-Sebastian-maritxa* entzun zan...

* * *

Pescados de río, abadejos, ranas y caracoles deritza Naparroa'ko sukalkintzaz Bitor Manuel Sarobe Pueyo'k idatzi ta argitaratu duan liburutxo berriak.

Lenengoak, *Platos de Caza* zuan izenburua, ta beraren berri mugonez emen, atal ontan bertan, eman genduan orain bi urte.

Len ere izan ziran Naparroa'ko jan-edan-gaiak egoki erabilli zizutzen idazleak —Arraiza, Geno ta abar—, baña egungo egunean gai ontaz Sarobe'k egiten ari dan lana, iñolaz ere askozaz sakonagoa, zeatzagoa ta jatorragoa da noski.

Besarkada estu bat, adiskide. Ta aurrera!

* * *

Alvaro Cunqueiro'k, lengo urteko Nadal-sariaren *gallego* idazle irabazle ezagunak, jan-edan-gaiaz idatzitako berebiziko liburu eder bat argitaratu digu. *La Cocina Cristiana de Occidente* deritza ta, bere idaz-lan guziak bezala, txit ernagarria da.

Egia esan, Euskalerrri'ko jan-edan-gai gutxi erabiltzen dira liburu ortan.

Dana dala, egilleak beraren itzaurreko bukaeran onela esaten digu: «*Mi amigo don Pedro Murlane Michelena solía decir que sin vino no hay cocina, pero sin cocina no hay salvación, ni en este mundo ni en el otro.*».

* * *

Gogoratuko zera noski, irakurle, nola orain illabete batzuek il zan Inazio Aldekoa, arabar erdal-idazle gazte ta ospetsua.

Iñolaz ere, nobela ta ipui-egille iaioa zan Aldekoa. Kritikalari batzuek, ipui-egille bezala, Chejov, Clarín eta Maupassant'en mallan ipintzen dute.

Aldekoa'k jan-edan-gaiak ere erabilli zituan bein baño geiagotan, eta egoki gañera, bere idaz-lanetan, batez ere *Gran Sol* deritzaion irakurgaiean.

Ta irakurgai au aipatu degun ezkerro, esan dezagun *Gran Sol* sekulan lurbira osoan idatzi diran itxas-nobela garaienetako bat dala. Ta gañera, nobela ortako gizakumeak —geienak beñepein— euskaldunak dirala.

Goiko Jauna'k Berekin beza gure adiskide on izan zan idazle bikaña.

* * *

Joan dan martxoko egun bat zan. Ta Madrid'en arkitzen giñan. Bazkalondoan, kopatxo bat artzeko asmoz, kafetxe dotore-samar ba-

tean sartu nintzan. Ta, barrunbean, lasai-lasai purua erreaz eserita, iru gipuzkoar adiskide —Jose, Joxe ta Josetxo— topatu nituan. Iru-rak arpegi gorri-alaiekin.

Ona emen, laburkiro, lauron artean, astiro-astiro ta irri-parrez, izan genduan elkarrizketa.

Nik.—Kaxo! Ondo bazkalduta, e?

Jose'k.—Bai ta ez.

Nik.—Bai ta ez?

Joxe'k.—Bai. Bai ta ez. Edo, obeto esateko, ez ta bai...

Nik.—Adar-jotzalleak ziñatela banitzekin, baña ez orrenbeste-koak...

Josetxo'k serbitzariari neretzat puru bat eta coñaka eskatu ondoren.—Barkatu, don Antonio. Sartu gera jatetxe batean eta bazkaldu degu, baña ez ondo. Orduan esan degu: bein etorriko gu Madrid'a, ta onela bazkalduta ta etxera buelta? Ez. Ta beste jatetxe batera joan gera, ta an, bai, txit ondo bazkalduta degu. Kosta ere ala egin zaigu baña.

Nik.—Orduan, bi aldiz bazkalduta dezute?

Iru-rak, batera.—Bai! Ta zer?

* * *

Bai literaturan bai erriaren aotan, gaur dan egunean len baña askozaz narratzako itzegiten da. Berdekeri ugari ere maiz asko irakurri ta entzuten ditugu.

Etzera beraz arrituko, irakurle —ta oker banago, barkatu—, guk lengoan Donostia'ko *Bar* batean entzun genduan elkarrizketa bat kontatzen badizugu.

Baso-ardo bana eskuan zutela ta erdi berdoztuta, bi kaletar izketan ari ziran. Bai, bi kaletar, baña euren barrunbean oraindik, eta abarka da guzti gañera, baserritar bana daramazkien orietakoak.

Entzun:

— Nik jan-edan kontu auetan badiat altxor ezkutu bat.

— Altxor ezkutu bat?

— Bai, jatetxetako neskameekin zer-ikusi duana.

— Ezin al ezakek isilpean bederik esan?

— *Bueno.*

— *Bota.*

— Bai emen Euskalerrria'n bai kanpoan —berdin Madrid'en edo Bartzelona'n, Zaragoza'n edo Torremolinos'en—, baldin jatetxeko mirabea euskalduna bada, ta berak ongi ta agudo serbitzatzeta nai badek, euskeraz bigun-bigun itzezin bear diok eta, izketaldiaren asieran, itximurtxo bat egin... ipur-masallean.

— Je, je!...

— Bein bakarrik utsegin ziaik neri egikera onek. Azkoiti'ko ja-tetxe ezagun batean uan. Itximur egin nionean, neskatxa aserratu egin zitzaidaken...

— Je, je!...

— Bai, aserratu ta eskua geldirik edukitzeko esan.

— Je, je!...

— Bai, eskua geldirik edukitzeko, atzekaldian erlekisten bat ze-dukala-ta...

* * *

Lengo astean lagun-talde bat bildu giñan bazkaltzen Donostia'ko Parte zarreko Soziedade batean.

Bagiñan gure artean euskaltzale batzuek. Are geiago: sukaldaria bera ere euskaltzalea zan, eta onek, jaten asi baño len, bazkaria-ren euskeraz idatzitako *menu* bat aurkeztu zigun.

Menu artako jaki bat heperra zan. Bai,, heperra. Onela h'rekin eskribatuta agertzen zan.

Jakiña, bereala h'ren aldekoen eta kontrakoen artean berebiziko eztabaida sortu zan.

Ta, azkenean, bazkaria bukatu genduanean, h'ren aldekoak txit ona zegoala heperra esan zuten, eta kontrakoak, berriz, oso txarra. Maikide batek galdegin ziran neri:

— Iri ze iruditu zaik, ona ala txarra?

Ta nik erantzun nion:

— Erdipurdikoa...

* * *

Izkirimiri au aspaldikoa da, baña baditeke irakurle gazte batzuek ez ezagutzea.

Beiñola *trabena* batean bi euskaldunek elkarrizketa au izan omen zuten:

— Beraz, iretzat ardo guziak onak dituk?

— Bai.

— Guzi-guziak?

— Bai, motel, bai.

— Kakalardoa ere bai?

* * *

Lengo urteko Abendu'ko euskerazko «Bizkai'ko Bankua'ren Bo-

letin» ernagarrian, jaki-prestaera jator bi ezartzen ziran. Otxandio'koak edo, beintzat, Otxandio'n erabiltzen diranak noski. Ona emen itzez-itzez prestaera aietako bat:

«*Eskalluak*.—Oneik zelan ipini be, esango dogu jarraian. Kaxuelan prestau eta maian jaterakoan, sardeñoaz artu bakotxak berea, eta ez da platerik bear. Kaxuelan, orioa ta pipermiña besterik ezer ez da bear egon. Arraiñak amaitutakoan, orioa gelditzen da barruan eta orduan, ogiapurrak egin eta bota kazuelara, eta arrautza batzuk tortillea egin, eta orra eskallu osteko janaririk gozoena».

* * *

Lengo apirillean, Urtain'ek Europa'ko boseo-txapelketa irabazi ta andik egun batzuetara, Madrid'eko Txamartin-ballarako jatetxe jator-apal bateko sarreran, janari-errenkada berri bat ipiñi zuten. Eta errenkada artan, irugarren edo laugarren lerroan, jaki au ezartzen zan: «Urtain-arraultzak» (*Huevos Urtain*).

* * *

Len izendatu degun Inazio aldekoa'ren ipuitxo batean, gizaseme batek gutxi-gora-beera au esaten du: «Bai, nik jan det bein edo bein muskerra. Ta zueiri ere, seguro asko, txit ona irudiko zitzaizuteke. Legatzaren antza-edo du gustoz...»

Ta ainbeste esamesa sortu dituan zorioneko *Papillon* nobelan, berriez, bere egille Henri Charrière'dio, Colombia'ko musker berde aundiak oso onak dirala jateko, ta euren aragia, zuria, xamurra ta eztia dala...

* * *

Beterri'ri.—Zuk aitatzen dituzun bertso oiek Martzelino So-roa'renak dira, ta ez Pepe Artola'renak. Egia esan, atal onekin zerikusi gutxi dute, baña bai zerbait, eta, tira, or dijoazkitzu osorik eta itzez-itzez.

Pitxarreko botilla
besuan zuela
presaka kalietan
zijuan Mikela.
Amabiak zintzilik,

lanian senarra,
bañan otorduetan
bidian azkarra.

Edertasunen gañez
Mikela gaztia,
ikusteko zan arrek
zeraman aidia.

Nola Prantxisku zegon
kalia garbitzen,
asi ziran alkarri
galde t'erantzuten.

— Esan nazu, Prantxisku:
emen goi aldian
sagardorik onena
nun da?

— Kupelian.

— Arrayia! Ta nola
zera zu arkitzen
orrenbeste jakin da
kalia garbitzen?

* * *

Bidebieta'ri.—Zuk zure eskutitzan ezartzen dituzun gorapenak,
geiegizkoak dira. Dana dala, esker milla.

Gaiñerakoz, bai, baditeke noizbait nik urte auetan atal ontan
argitaratu dituan lantxo guziak, liburuxka batean biltzea ta berriro
azaltzea.

Urrengo zenbakian erantzungo diet zure beste galderi.

* * *

«Eleizkizunengatik eltzea erretzen uzten duan emakumea —dio
erdal-kanta errikoi-zar batek—, erdia aingerua da ta beste erdia, be-
rriz, deabrua».

A. A.

A D A B A K I A K

DURANGOKO GAISOTEGIKO MOJAK 1887-GARREN URTEAN
AITA SANTUARI EGITEN EUTSOEN EUSKAL OLERKIA

«Durangon, Bagillaren 2-ean 1887-garren urtean» izenpetuten eben euskal olerki bat Sor Maria Joaristi, Sor Maria Josefa Albizu, Sor Maria de Pagola, Sor Lorenza Echeverría, Sor Francisca Cendoya, Sor Maria Bárbara Inchausti, Sor Josefa Arocena eta Sor Dacia Herrero mojak «Aita Santu Leon XIII-garrenari, Durangoko Gaisotegiko San Bizente Paulen alabak, egiten deutsen eskinzariya».

Onexek dira euskal bertsuok:

*”¿Zer da, Jauna, munduan guk dakuskuna?
Biraua ta pekatua zabaldurik;
Baña geiyen biotza minduten deuskuna
Da, Zu ikustea larri ta estuturik.
Guri biotza poztuko deuskun gauzarik
¿Ez da ezer jazoko aurten munduan?
Bai, ospatuko dira pozez beterik
Zure urrezko ezteguak abenduan.
Igituko da orduan mundu guztiya
Euren eskinzariyak egiteko,
San Bizenteren Alaben gurariya
Da bizitza emon, zurea geituteko.”*

Norenak ote-dira bertsuok? Moja danen artean egiñikoak? Edo mojaran batek egin eta gaisotegiko moja danak izenpetu ote-eben?

Iñoz etorri jate burrura, Don Balbiño Garita-Onandia durengar euskal olerkaria be orduko garaialdian kapillau egonikua zala gaitotegi orretan.

«*Euskal-Erriak Aita Santuari*» izeneko liburuan agertu zan olerki au: «Tolosan: Eusebio Lopez-en moldiztegian. 1887»-

garren urtean. Balbiño Garaitaonandia, Jose Maria Ampuero, Isidoro Ruiz de Arbulo Gorosabel durangotarrak, Elorriyoko Kapelastegi, Ermuko Ezekiel Etxebarria, Otxandiyoko Arrese Beitia eta Euskalerriko beste olerkari pillo baten olerkiak agertzen dira liburu onetan.

«Moja euskaltzaleak» gaia egite-ordurako ez dira aztu-bearko onek Durangoko mojak.

N. A. G.

ALZAVALEN EUSKAL LIBURUA

Milla zazpireun eta irurogei ta zortzigarren urtean (1768) argitaratu zan Pedro Joseph de Alzaval Murgia-ren liburutxoa: *Ama Virgina Santisima Yciarcuaren bederatziiurrena*.

Vinson-ek aipatzen dau, berak ikusi ez arren (I, 222 orr.) 1790-garren urtean egin zan bigarren argitaraldia, Tolosako Fermin Huar-te eta Arlegi-ren etxean.

Deba-ko Benefiziadua eta bertako len bikarioa izan zan Aldaval abadea (*Aldaval*, eta ez *Aldazabal* nik iñoz idatzi dodan moduan).

Gordetan ote-da iñun 1768-garren urtean egin zan argitara-aldiko aleen bat? ¿Iñork ote-daki gai onen barri gaur?

N. A. G.

ETXEZARRETAREN KURUTZIETAKO IKUSTAMENAK (TOLOSAKO ARGITARALDIA).—Durangoko Ramon Etxezarreta legegizonarenak dirala esan dogu beti Kurutzietako Ikustamenak.

Mogel-Juan Antoniok idatzi eban Konfesiño Ona liburuaren argitaraldi baten azkenengo orrialdeetan be (Tolosan, 1884'garren urtean) agertzen dira Kurutzietako Ikustamenok.

Etxezarreta il da gero egin zan argitaraldi au. Nor ete-zan argitaratze au egin ebana? Mogelen liburu onen beste argitaraldiak ez dodaz ikusi, edo beintzat iñoz ikusi badodaz be ez naz gogoratzen orain.

N. A. G.

SUKALDARI LIBURUAK.—Euskal literaturaren historian maiz gertatu zaiguna da, gutti edo batere ez dugulakoan, ezerrezaren ustean, dugun urria ere ikusi ez. Baita ere, halako edo holako gaia inoiz landu ez dan ustean lantzen hasi. Era honetako adibide asko emango genituzke, bainan, gaurkoz, exenplurako bederen, gertari berezi baten berri emanen dugu.

Gastronomia gaia, Euskaltzaindiak bere sorreran jarri zuen lehen literatura sariketa zan noski, Julene Azpeitia adiskideak irabazi zuena bere *Osasuna merketza ta yanaritzaz*, 1920-an argitaratutako lana, eta gaur egun EGAN-en orrietan Arrue adiskideak hain ongi eta hain umoretsu eramaten duena *Jan-edanak* izenez; baina lehenago ere landu zen euskal literaturan. Izan ere, gai hortan euskaldunak hain yayoak izanik ez da harritzekoa.

Gai hontaz, lehenago, 1889-garren urtean Tolosako Lopez-enean argitaratu zen, egilearen izen gabe, *COCINAN ICASTECO LIBURUA chit bearra famili gucietan. Lendabiccicoa euskeraz.*

Lehendabizikoa? Goazen beraz lehen hau baino antzinagora, eta hogetabost urte lehenago arkituko dugu *ESCUALDUN COCINERA, ceinarekin nornahic cocina ona errechki eguin baiteçake*, Baionako Cluzeau-renean 1864-an argitaratua.

Horra euskal literaturan sarri gertatzen zaiguna, elkarren berririk gabe lan berdinean aritzea.

J. S. M.

CURROS ENRIQUEZ ETA BILINTX.—Goratu beharra dugu «Auspoa» Argitaldaria literatura zaharretiko lanak berriz argitaratzen egin duen lanagatik, eta lanotariko bat bereziki Bilintx-en *Bertso ta lan guziak* (1962) izan zen. Ikusi L. Mitxelenak EGAN-en egin zion aipamena, 1962-ko 1-3 zenbakiaren 91-garren orrialdean. Argitalpen hau dakart oroimenera Bilintx behar bezala ezagutzen ez dutenen aukerarako, zeren 1911-an egin zen argitalpena eskuratzea nekeza delako. Poetaren dohaina eta etorria oso bakanak izan ziren, eta ez zan harritzekoa Curros Enríquez-ek bere garaian bertsoz egin zion gorazarrea.

1911-an, Euskal-Esnaleak bildu eta argitaldu zituen Bilintx-en *Neurtitzak eta Neurri gabeko itzak* izeneko liburua, Karmelo Etxegarai-ren hitzaurrearekin. Hitzaurre honen XLIII-gn. orrialdean, Etxegarai-k dio, Careta gailego poetaren bertso batekin konparazioa egitean: «Curros Enríquez-ek ipiñi zituen gaztelaniaz, *Bilintx*-en izena ta oroitza goratzen zituzten neurtitz batzuek; baña irakurtzea aski da, jakiteko ayek izkribatu zituenak etzekiela *Bilintx* zeñi zan. Bere izena ezagutuko zuen, bere izaerarik, ez. Ala ez izatekotz ez liguke esango neurtizkari Donostiarra Mendizorrozko maldan zegoen txabola batean bizi zala.»

Baina, Curros Enríquez-ek, poeta bezala, bere poeman Bilintx-en etxea Mendizorrozko maldan jarri bazuen ere, ikusiko dugunez poetak beren gisara hartzen dituen lizentzia horietakoa zela, zeren aski ongi ezagutzen zuen poeta euskalduna. Eta, badira beste zenbait

gauza ere poeta gailego honek Bilintx-i buruz eginak, uste baino hobeto ezagutzen zuela adierazten digutenak. Jakina, Karmelo Etxegarai-koak, bere jakituria handia ba zan ere, bere denboran ez zuen gaurko aukerarik Manuel Curros Enríquez-en lan guztiak ezagutzeko, aldizkari eta egunkarietan hor-hemen sakabanaturik zeudelako.

Curros Enríquez, hain zuzen, Karlisten gerrateko 1875 eta 1876-ko urte haietan, Madrilgo *El Imperial* izeneko argitalpenaren kasetalari izan zen Euskal-Herrian. Eta bere berrietan bada zer ezaguturik orduko gertaereri buruz. Koronika horietako batean arkitzen da, 1876-ko urtarrilaren 21-ean kasetaren zuzendariari bidali zion gutuna, eta anitz xehetasunen artean ematen ditu gure poeta eta poeмери buruzko iritziak, baita ere Bilintx-en bertso oso bat koronika berean jasoa. Baina, gehiago oraindik, agonian egoala bizitatu zuen gure poeta. Hara hitzez-hitz berak diona: «Cuando lo supe, anoche mismo, yo, que conocía al nobilísimo *Vilinch* por varios de sus cantares y por referencias, acompañado de su buen amigo don Cirilo Latierra, fui a su casa, calle del Puerto, número 5, y lo que entonces sentí aún lo recuerdo ahora con dolor.»

Beraz, argi dago Portu-karrikako 5-garrenean bizi zala ba-ekiela, eta ez Mendizorrozko maldan, poeman zion bezala. Poetaren lizentziak zabalak izaki.

Berri hauek Curros Enríquez-en *Obras escogidas*-en jasotzen dira (Editorial Aguilar, S. A. - Madrid, 1956). Aipatu dugun zatitxo hori 791-gn. orrialdetik hartua da. Eta Etxegarai-k aipatzen zuen poema hura ere, Curros Enríquez-ek Bilintx-i eskainia, liburu berean agertzen da, 280/282 orrialdeetan, *La canción de Vilinch* izenez.

J. S. M.

UGARTE-RI GEHIGARRIAK.—1969-ko EGAN-en, 4-6 zenbakiaren *Adabakiak* sailean, 103 orrialdean *Ugarte-ri* buruz zenbait lako lehendabizikoz *Ugartek, ur-arte*, erderazko *entrambasaguas* edo ohar argitara eman nituen. Nere argitasunen oinharri Mitxelena-ren *Apellidos vascos* (1953) liburua hartzen nuen, ez berak esaten dueantzerako zerbaite esan nahi zuela eta ez *isla*, batzuek oraindik uste duten bezala, baizik liburu hori etimologiaren oinharritzat hartzen nuelako, libururik onena dalako gai honi buruz. Eta honek ez du esan nahi hor zehar sakabanaturik askozaz ere lehenagotik ez daudenik era honetako iritziak.

Pozgarria izan zait gai honi buruz Justo Garate-gandik hartu dudan gutuna, esanez bera ere iritzi berdinekoa dela, edo hobeto esan, berak lehendik esanik zuenarekin hain ados natorrela. Iritzi

hau, *confluencia* bezala, 1929-an agertu zuela lehen aldiz Bilboko egunkari batean eta azkenez 1969-an Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos (Buenos Aires) aldizkariaren 76-garren zenbakian, urtarrila-martxoan, 40-gn. orrialdean.

Gaineratzen dizkidan ohar jakingarrienak hauek dira: 1934-an Humboldt-en *Berichtigungen und Zusätze* itzuli zuenean, bertako 49... orrialdearen pean hau argitara zuela: «Creo que Ugarte es *entreríos* no siendo nunca isla, aunque lo diga Astarloa (*Apología*, 2 edición, página 87) a quien sigue casi todo el mundo.» Eta, 1935-an, Mogel-en *La Historia y Geografía de España* liburuan dakar, 315-garren orrialdean: «...entre dos riachuelos y esto quiere decir *Uarte*»; eta azpikaldean Justo Gárate-ren oharra: «Véase la pág. 271. Tiene razón, pues es como *Entrambasaguas* y *Laka*.» Eta 271-garren orri hortan, azpikaldeko bigarren deian Justo-ren oharra dio: «*Ur* en toponimia no es agua, sino río, y *Ugarte* es entre ríos o confluencia como *Conflans*, *Coblentz* y *Cofrentes*. Jamás es isla.»

Beraz, honela argiago dago.

Esan beharrean gara ere, arestian aipatzen dugun Mogel-en lana, *La Historia y Geografía de España ilustradas por el Idioma Vasculence* izeneko lan horrek, Garate jaunaren zuzendaritzan eta oharrez argitaratutakoak, Euskaltzaindiko *Euskera*-n ikusi zuela argia, XVI urtea (1935), III - IV zenbakiaren 271/315 orrialdeetan.

Bakoitzari berea.

J. S. M.

*BAI, BAKOITZARI BERA; EUSKALTZAINDIAREN SORRE-
RA DALA TA.*—Euskaltzaindiaren urre-ezteietan, elkargoaren sorrerari buruz eta bere berrogetahamai urteko ekintzeri buruzko lantxo bat gertatu nuen, erderaz, erdal periodistak eskaturik egin nuelako. Izan ere, urre-ezteiak hurbildu zirenean, handik eta hemendik izan nituen berri eskariegatik, sekretario bezala, beharturik nengoan hola-ko zerbait egitera. Lan hau, *La Gran Enciclopedia Vasca*-ren III-gn tomoan, 381/387 orrialdeetan osatuago arkitzen da, azken ikutu batzuekin egina danez (bertatik egin zidaten eskariari erantzunez), baina era ofizialkian *Euskera*-ren XIII-gn tomoan (1968), 293/299 orrialdeetan dator, aldizkari hau Euskaltzaindiarena danez. Lan hoietan, zein batean, zein bestean, ematen ditudan berriak *Primer Congreso de Estudios Vascos* (1919-1920) eta *Euskera*, I (1919-1920) liburuetatik hartuak direla sorreraren berriak eta gainerakoak Euskaltzaindiaren agirietatik. Euskaltzaindia sortu zanean oraindik jaiotzeko nengoanez, beharturik nengoan berriok paper zaharretatik ateratzera, eta paper zaharretara joko banuen zer hoberik aipatu ditu-


dan iturburuak baino? Sorrera garaiko bestelako aldizkari edo egunkarietara jo beharrik ez nuen, eskuetan agiri ofizialak nituelarik.

Gauzak honela direlarik, nere eginkizunean zintzo jokatu dudanez, puntu bat garbi lotu nahi nuke; eta, hau da: *Kamaraka* izenordezko batek, *Alderdi* izeneko aldizkari baten (256-257 zenbakiak, XXIV urtea), 5-gn orrialdean dio: «...vamos a dar algunas precisiones olvidadas en la relación publicada en EUSKERA 1968, páginas 293-294, bajo el título «Bodas de Oro de la Academia de la Lengua Vasca» y suscrito por su Secretario Sr. San Martín.» Eta ondorean azaltzen ditu zenbait gauza ez *Primer Congreso de Estudios Vascos* liburuan (eta biltzar horietan sorte zen Euskaltzaindia) eta ez *Euskera*-n eta ez Euskaltzaindiaren agirietan agertzen ez direnak. Behar bada hala izango dira. Ez dut ukatzen. Baina arestian esan dudanez, oraindik jaiotzeke nengoan, eta lana gertatzerakoan zeri egin behar nion kasu? Agiri ofizialeri ala hor zehar banandurik zabiltzan papereri? Ez dago esan beharrik.

Baina, hori gutxi balitz, Cosme Elguezabal-en izena bi aldiz aipatzen nuen *Euskera* XIII (1968) aldizkariko lan horren 294-garren orrialdean, sorreraren meriturik handienak berari emanez, eta *Kamaraka* (ez dakit jauna ala anderea den ere) dalakoarena bakarrik irakurtzen duenak pentsatuko luke izen hori isildu dudala. Elgezabal jauna bere alderdiko ideetakoa zela? Agiriak ez dute horrelakorik esaten, ez eta ere bera baino lehenago Euskaltzaindia, edo Euskeraren Akademia (zeren izena ez zan jarri 1919-ra arte) sortzearen ideia eman zuten Adolfo Urkixo edo Aristides Artiñano-ren ideia politikoak ere ez ditu jartzen agiriak. Baina, ba ahal zan hortarako premiarik? Eta hoiiek ahal dira nere «...precisiones olvidadas en la relación...»? Baina, zer da hau? Gezurtizat hartu nahi?

Hemendik ikusi, euskeraren batasunari buruzko arrazoiak zela-koan izango diren lan horretan. Onak gaude horren eskerreri begira egon behar bagina euskeraren alde hartzen ditugun lan eta nekeen ordainez. Alajaina!

J. SAN MARTIN.



OAR LABURRAK

BASOAGAZ MAITEMINDU ZAN MUTILLARENA

Abadiñoko neska eder bategaz maitemindu ei-zan Albokoetxeko mutillik gazteena. Ederra ei-zan neskia, baiña etxaguntza aundiko alabia, eta ez ei-eutzan jaramonik egin mutillari, beartsuen etxeko semia zalako.

Umore onekua eta mutil argia izan ei-zan ordurarte Turdiñ Albokoetxekoa, eta illun-negarguran gelditu ei-zan ordutik aurrera.

Ez ei-eban erromerietara urtetan ordurarteko moduan bere mutil lagunakin. Etxean gelditzen ei-zan domeketan, eta Altzarteko erreka-basoan egoten ei-zan arratsaldietan.

Egunak joan eta egunak etorri, askotan joan ei-zan ara baso aretara Turdintxu (urteak domekak daukozan beste bidar eta geiagotan be bai) eta basoagaz maitemindu egin ei-zan azkenean.

Beste mundu batean bizi zan antzak artu ei-ebazan, eta alde egin ei-eban etxetik, iñori be nora joian esan barik.

Iñork be ez ei-eban geiago jakin ezer Turdintxuentsaz. Betiko aldendu egin ei-zan.

Udiaren azkenengo egunetan gertatu ei-zan au, eta aritzen orri gorriak jausi ziranean agertu ei-zan zugaitz barri bat, inguruetan be antzekorik ez eukana. Negu gogorrean loratu egin ei-zan bera, lora zuri ederrakaz, baiña fruturik ez ei-eban emon.

Eta urrengo udabarrian igertu egin ei-zan betiko.

Turdiñtxu maiteminduarena zala, esaten ei-eben orduko ardizaintzailleak.

ERRAMUNTXU FERNANDEZ

Naparroako euskal erritxo batean jaio zan Erramuntxu. Mugako

erritxo batean. Ango bertako alabea ama. Galiziarra aita, muga-
gizona, karabiñerua.

Gerrate osteko urteak ziran Erramuntxu jaio zanean. Bere ama-
ren jaiotetxean etorri zan mundura, Etxezabal baserrietxean.

Zazpi urtekoa zala ondiñoko, Portugaleko mugara aldatu eben
aita. Ama eta beste neba arreba txikiat be ara joan ziran, Galiziara.
Aitonakaz gelditu zan Erramuntxu.

Euskaldun azi zan Erramuntxu, galiziar abizena euki arren.
Amalau urte bete ebazanean, opizioaren bat ikasteko ordua eldu zala
ta Iruñera bialtzea pentsau eben. Barri txar bat etorri zan orduan:
alargun gelditu zala ama, sei umegaz.

Jaioterrira etorri zan andra Maritxu alarguna, ume guztiekaz.

Mutil argiak urten eban Erramuntxuk eta ikasteko sari bat emon
eutsoen, arioplanuetako pilotu egiteko.

Amar bat urte dala ezkondu zan bere errian, gaztetan ezagutu
eban auzoko neska batekin.

Beti gorde dau Erramuntxuk gaztetako euskeria. Seme bi deu-
koz orain. Euskeraz egiten dabe geienetan etxean, Madrillen bizi
izan arren. Errira etorten dira uda guztietan. Asko maite dauz bere
jaioterri bazterra ta gaztetako izkuntzia.

Euskaldun gelditu da Erramuntxu, biotzez eta arimaz. Bere se-
meak be aitaren bidetik datoz.

Beste ainbeste ez dabe zure erriko gazte danak egin, ez, Erra-
muntxu Fernandez!

Zure moduko seme larregi ez dau emon gaurko gure Euskalerrri
onek.

Danak ez dogu zure moduan jokatu!!

ITXAROTEN NAGOAN ARTEAN

Beste batzuetan baiño goizago etorri gara gaur bierrera. Leio
luzean gagoz jesarrita bierlagunok, Gariko ta biok.

Dibujugintzan asi da Gariko, eta onek oarrok idazten ni.

Lagun asko ibilten dan kalia ez da gure kale zarra. Baztar ba-
ketsua da.

Begiratu, or nun datorren Don Ixio abade zarra, Iruñan kanoni-
gu dagoena. Urte guztietan etorten da errira bere arreba Pantxika-
gana, egun batzuetarako.

Ez da lodia ta astirua Don Ixio. Argala ta ibili bizkorreko gizo-
na bai. Eguzkia nai euria egin, guardasol aundi bategaz ibilten da
beti.

Gaixuen etxeko kapellau zarragaz dator gaur. Ez dago erderaz egiterik Don Joseba kapellaugaz, eta euskeraz berbetan datoz biok. Txilio-txiki moduan berba egiten dau Don Josebak, eta bein be ez dauz geldirik eukiten eskuak. Baketasun aundian Don Ixio, eta arramuskaraka dabillen antzera Don Joseba. Ez deukie antz aundirik bata-bezteagaz.

Kalearen beste aldean dagoan jauregietxe zarraren lorategiko atea zabaltzen dau ortuan bierra egiten daberen gizonak. Markesa zarraren Barbara alaba neskazarrak urtetan dau bertatik, txakur surmotx bat kateatik daroiala beragaz. Txakur orregaz elizara joango danik ez dot uste, buruko manteliña baltz ederragaz urten arren.

Zitroen txikiagaz dator MariKurutz esnesaltzaillea. Gure aurre aurrian gelditzen da. Astoagaz etorten zan denbora asko ez dala. Kaleko mutil askok baiño obeto ikasi dau automobilla eruaten MariKurutzek.

Ariñeketan doiaz ume txiki batzuk ikastolara. Auzokoak dira. Urrin bizi diranak baiño beranduago elduko dira, sarritan gertatzen dan moduan. Ori da ariñeketia daroiena, liburu pilloa kartera barruan-da!

Bakoitza bere bidean joan da, eta bakarrik gelditu da kalia. Tiriñen soñua dator, eta biarrera goiaz gu be.

IXTORI BALTZEKO ANDRIA

Ixtori baltzeko andria ei-zan agure gazte denboran ezagutu geiñuen andra zarra.

Erropa zarrakaz jantzita ibiltzen zan, buruko pañeluagaz beti. Amantal antzeko erropa zar bategaz egiñiko poltzia eruaten eban besapean, eskean batuten ebazanak gordetako.

Guk ez genkigun aren bizitzaren barririk orduan. Eskeko asko ibiltzen ziran orduan etxerik etxe eskean. Gero, ausoko gaubela batean gengoza, an agertu zan andra zarra. Orduan konturatu zan batoren bat nor zan, eta arrituta gelditu giñan gazteok. Bere gozona il ei-eban eta soloko sats-pillo baten barruan gorde.

Burua bere lekuan ez eukan andria izan ei-zan, eta lotsagarritzko griña baten katugu gelditzeak galdu ei-eban a errukarrizko andra eskekoa. Ez dakit nun emon dabezan azkenengo urteak.

MARKUE

LURRUNPEAN (*)

(IRU EKITALDITAN)

Irudi-egilleak:

KAPI.—Sasoi oneko gizona. Kapitana.

TOBA.—46 urte inguruko emakume egiña. Kapi'ren emaztea.

IZAR.—45 urte inguruko.

PELI.—22 urte inguruko mutilla. Pilotoa.

Giroa.

Gaurko egunetan.

Irudi tokiak.

Lenengo eta irugarren ekitaldiak: Itxasontzi baten, «puentearen» egaleko esku-aldean, esku-bandan.

Bigarren ekitaldian: Bilboko kafetetxe baten, eguerdi-aurrean, oraindik iñor barik.

I EKITALDIA

I

IZAR eta KAPI

(Gau ondorena. Itxasontzi andi bat egunari itxaroten dago Bilbo'ren inguruetan. KAPI eta IZAR, esku bandan, kontu-kontari, uretara begira.)

(*) 1968 urteko "Agora" teatro saria.

IZAR.—Laiñoa?

KAPI.—Laiñoa ez, lurruna. Ibaia dauken erriak, goizaldetan, lurrunpean biziten dira, erritarrak lo egiten daben artean.

IZAR.—Ez nekien.

KAPI.—Emakumea oiean egoten dan lez, izerditan.

IZAR.—Ez beti.

KAPI.—Errien antzera. Jakiña. Ez da beti giro bardiña egoten. Emakumeak egoera ezbardiña eukiten daben lez. Baiña legea ez dau batek edo bestek egiten, askok eta geienak baiño.

IZAR.—Zirikalari?

KAPI.—Iñoiz ezagutu nazu?

IZAR.—Begiak beti dabizuz jostari.

KAPI.—Ba!

IZAR.—Nun da Bilbao?

KAPI.—Ez dozu igarten an, urrunean, suaren oria?

IZAR.—Bai.

KAPI.—Barakaldoko suak dira. Beti garretan Barakaldo.

IZAR.—Zeñien antzera?

KAPI.—Kafe zaar baten, erre ta erre, garretan, ketan, gorputz eta gogoia egarriz ditun emakume beroa dirudi.

IZAR.—Itxastarrak asko ibiltzen zarie ta asko dakizue olako gauzetan.

KAPI.—Esana geiago.

IZAR.—Eta Bilbo?

KAPI.—Barrurago. Itxasotik ez da igarten. Obeto esanda, aurrean ikusten dogun dana, itxastarrontzat, Bilbo da.

IZAR.—Ba daukat ikusteko garra.—Asko dotoretu da?

KAPI.—Gaitz da Bilbo txukuntzea. Bilbo sekula ez da izango Donosti.

IZAR.—Zegaitik ez?

KAPI.—Bilbon lan egin eta Donostian atsegin bear leuke euskaldunak. Bilboren taupadea lana da.

Ur

ta

lur,

bits

ta

lits,

lan

ta

gar,

kai

ta

kei...

IZAR.—Poesiak egiten?

KAPI.—Goizaldeak kaskar garbia zainduten dau ta poesirako gertu.

IZAR.—Kresalaren gatzez sikatu aurretik.

KAPI.—Jakiña. Bizitzako une batzuetan biotza izlari igarten da. Ta biotzaren itza ei da poesia.

IZAR.—Enekien kapitanak ain biotz mintsu ziñatenik.

KAPI.—Guk, orruka, komeni danetan, edo leun-leun, egualdiaren goraberetan, ba dakigu egia erakusten.

IZAR.—Eta illargiari kiñu egiten.

KAPI.—Bai.

IZAR.—Eta olatuen bits eta aparrei musuak eskintzen.

KAPI.—Baita.

IZAR.—Eta kaixuen eta txirriñen. (*Itxas-txorien*) egoetan amesezko eskintzak bialtzen.

KAPI.—Ori be...

IZAR.—Eta...

KAPI.—Zer?

IZAR.—Ez dozu beintzat ezer ukatu. Bai, bai, bai... Ondar garoak lez galduten dira zuen baietzak. Eneuke nai kapitan bategaz emazte lez lotu.

KAPI.—Zegaitik?

IZAR.—Zintzo uste zaitue zuen emazteak?

KAPI.—Sekula ez yako faltako itxastar baten emazteari zerbaiten arrik.

IZAR.—Maite-miñak diralakoan?

KAPI.—Ba! Lau pitxi ta diruak, eta amesen pozak, itto egiten dabe ar orren kezka. Bizitza desbardiña da. Batzuk ordu erdi bat ezin igaro alkar ikusi barik. Itxastarren emakumeak ordu erdi naiku dabe pozez asetzeko. Ta urrungaitzez bizi. Bear ba da, eleuke jakingo beste era baten biziten. Urrungaitzaren utsuneak gaixotu egingo leukez.

IZAR.—Eta zuek? Ez dozue zuen emaztien kezkarik eukiten?

KAPI.—Ez. Nigaz bestera gertatu ba da be, alaba bat besterik ez neban euki—, geienetan semez beteta lagaten doguz, eta ez dabe bidegabekerietarako premiñarik artzen.

IZAR.—Zuek libre ta besteak lotu.

KAPI.—Itxastarren legea da.

II

IZAR, KAPI eta PELI

PELI.—(Agertuaz.) Kapitana!

KAPI.—Enagizu molestatu.

PELI.—Telegrama bat.

KAPI.—Irakurri ta egunerokoan sartu. Ikasiko dozue bein zeregiña?
Zetarako zagoz guardian?

PELI.—Zuretzako da, ez da ontziari dagokiona.

KAPI.—Ondo etorriren bat? Bota egizu uretara. Ez dot nai ontzian
paper ondakiñik.

PELI.—Bota aurretik...

KAPI.—Ixo! Egin diñotzudana. Ez dot nai nire kamarotian alperriko
paperik.

PELI.—Premikazko dozu irakurtea.

KAPI.—Nok izenpetuten dau?

PELI.—Zure emazteak. Eta orain iru egun Bilbotik bialdua da, azken
ordurarte erakutsi ez ba dautzugu be.

KAPI.—Sekula ez eta maitekerietan bigundu ete da oraingo sarre-
ran? Beranduko elgorria.

IZAR.—Esperantza barrien bat aurreratu naiko dautzu. Emazte batek
ez dauka maitekeririk, maitasuna baiño.

KAPI.—Emazteak, besteak lez, laurdena gurari, laurdena aize, laur-
dena lizun eta beste laurdenetik erdia egi ta erdia puts.

IZAR.—Ta gizonak? Ai, gizonak! Super-jakintsuak! Gixurenak! Gi-
ganteak!

PELI.—Jauna, nire iritziz, irakurri bear zenduke.

KAPI.—Zelan dakizu?

PELI.—Egia esateko, ontziko telegrama oi bat zalakuan irakurri do-
dalako. Telegrama korriente bat zalakuan. Eta telegrafista eta
nik ba dakigulako zer dan.

KAPI.—Ta? Dakizula, zegaitik esan ez?

PELI.—Zure alabeari dagokio.

KAPI.—Zer da? Okerren bat? Esaidazu.

PELI.—Telegramak auxe diño: Eztakit alaba bizirik billatuko dozun.
Bilbora urreratzean, ainbat lasterren etorri zaitez.

KAPI.—Zegaitik ez daustazue esan ariñago?

PELI.—Ez dot tarterik artu.

KAPI.—Alaba ilteko zorian? Zetatik? Zelan? Alaba? Zegaitik ez
dau nire emazteak argitasun geiago emoten? Ez dau esaten ze-
gaitik? Eta Bilbotik dator telegramea, Sopelاناتik edo Algorta-
tik etorri bearrean? Kliniketan baten ete dago?

PELI.—Telegraman ez dago zertzeladarik.

KAPI.—Deitu egiozu ontzi languntzallen bateri. Datorrela beriala.
Ainbat lasterren.

PELI.—Etxeari, kompañiari baimena eskatu bearko dautsagu.

KAPI.—Zetarako?

PELI.—Araudiak agintzen dau.

KAPI.—Araudiak beste gauza asko be agintzen ditu. Zetarako? Konpañia eta gizartea eta danok, danok, bardiñak gara. Gauza bat agindu eta komeni dana egin.

IZAR.—Libertaderik egon ezkeru komeni dana egiteko.

KAPI.—Iñori ez dautsagu begiratzen, norbere interesa bitarteko daretan.

PELI.—Itxasoan ezin geinke ori egin.

IZAR.—Amak be ezin izaten dabe nai dabena egin.

KAPI.—Ba dakit. Eta orren aurka ez nabil. Eta premiña andiago bat ba lego, ni izango nitzake, ni, andre ta alaben gaiñetik, nire tokian egongo nitzakena. Baiña emen, gizon batzuk lo egitearren, era yatorkezan ordu batzutan lana egitearren, alperrik gagoz, egunari itxaroten. Gizonen libertadea alkarren errespetutik asi bear da.

IZAR.—Ala bear litzake.

KAPI.—Kompañiko agintariak zer egingo ete leuke olako baten? Zer? Burubako legeak egitea erreza da. Propagandako legeak egitea errezago. Baiña legeak beteteko egin bear dira. Eta beteteko, lege zuzenak izan bear dira, burutsuak, errazoidunak.

PELI.—Iñor ez dago orren aurka. Baiña nik, pilotu lez, kontseju ori emon bear neutzun. Parkatu. Ez da kontsejua. Gogoratzea da.

KAPI.—Edozein gizonek, olako kasu batean, bere zeregiña bete lei. Ta kapitanak ez. Ontzia txarto ba dabil, estu ba dabil, kapitanak eutsi egin bear dautsa azken unerarte, ta premiña egon ezkeru, ontziagaz ondoratu. Zer da kapitanaren bizitzea?

IZAR.—Alaxe da. Legeak interesak eta ondasunak zaintzera geiago egiten dira, gizonen arduraz baiño.

KAPI.—Olako zoritxar baten, ontzia bere tokira sartu arte, kapitanak eutsi egin bear dautsa bere lemiari. Zer da kapitanaren biotza? Marmoka bat? Deitu, deitu ontzi txiki bateri.

PELI.—Ta ondorenak?

KAPI.—Erabagi bat artzen dodanean, nik jakin bear dot erantzuten.

PELI.—Beriala deituko dausat. (*Juaten da.*)

III

KAPI eta IZAR

KAPI.—Parkatu. Nire gauzak gertu bear dodaz. Eneban uste olako azkenik. Zure adizkidetasuna eskartuten dautzut. Kapitanok atse-

- giñak izaten alegindu bear izaten gara. Ori, egia esan, ez da ain lege okerra.
- IZAR.—Norbaitenzako izan lei.
- KAPI.—Bere arriskua euki lei. Baiña andiago egoten da olatu artean ta aurrera egin bear izaten dogu. Jakiña, atsegiñak agertzeko, batzutan jostari, bestetan akulari... Baiña, zer esanak egonarren, uniforme garbia eukiten dakigu kapitanak. Kalean or konpon. Bilbon ikusiko gara?
- IZAR.—Lagundu gura neutzuke gaur bertan.
- KAPI.—Ezin lei.
- IZAR.—Eta zuk bai?
- KAPI.—Nire egoeraz konturatu zaite.
- IZAR.—Ni be ama naiz. Konturatzen naz olako egoera baten ama bat zelan egon leiken.
- KAPI.—Ama asko dagoz munduan. Zorionean batzuk ta besteak miñetan. Egia da.
- IZAR.—Nire laguntasuna ukatuten daustazu?
- KAPI.—Kapitan lez ezin daiketzut itxi ontzirik lagaten portura sartu aurretik. Une onetan, kapitan lez, zure aita eta jabe antzeko naz.
- IZAR.—Orrekin ez diñostazu, ba, zure eskuetan nagola?
- KAPI.—Lege baten menpean.
- IZAR.—Zure legearen menpean.
- KAPI.—Ni enaz legeak, diru orde, patrikaran erabilli neikezana, nai dodan eran jokatzeko. Ta gaiñera, zure laguntasuna, zintzoena izan da be, beste norbaiten asarre biderako izango litzake.
- IZAR.—Ortik ixiltzen naz. Andre... bildurtia daukazu?
- KAPI.—Gizonak euki bear genduke andren bildur geiago.
- IZAR.—Ezagutu aurretik ala ondoren?
- KAPI.—Sekula amaitzen al da andren ezaupiderik?
- IZAR.—Ontzia laga ondoren, zein geratuko da emen nagusi?
- KAPI.—Lenengo pilotoa.
- IZAR.—Ta zuri sortu nai ez dautzudan problemaren bat areri sortuten ausartuko ba nitz?
- KAPI.—Al dala ez billatu problemarik bizitzan. Billatu barik be sortuten dira.
- IZAR.—Pozik joango nitzake zure ondoren. Benetako ume zale naz. Senarrrik ez daukat eta ama naiz. Etzenkien?
- KAPI.—Nik ez dot iñoren fitxarik egiten.
- IZAR.—Ez dot tarterik artu esateko.
- KAPI.—Mesedez, alabeagaz gogoratzen itxi egidazu.
- IZAR.—Nik nirea, ezagutu ez da be, irudimenean daukat.

IV

KAPI, IZAR eta PELI

(Peli agertzen da.)

KAPI.—Ze barri?

PELI.—Beste telegrama bat.

KAPI.—Ba dator ontzia?

PELI.—Telegrafistak ez dau deitzen lagundu, beste telegrama au erakutsi aurretik.

KAPI.—Zeiñena da?

PELI.—Emaztearena.

KAPI.—Zelan dago?

PELI.—Barri txarrago dakar. Atzo ipiñia da.

KAPI.—Zer? Esan bein.

PELI.—Il da.

KAPI.—Il dala? Il dala? Besterik ez? Zelan? Noiz? Besterik ez? Zetan zagoze itandu barik? Ez dakizue olakoetan zertzeladak eskatzen? Il dala? Benetan?

PELI.—Auxe diño: Atzo il eta gaur enterratu dogu. Bilbon ipiñia da.

IZAR.—Zure miña igarten dot. Errezaten jakin gura neuke.

KAPI.—Ez dago andrerik errezaten ez dakienik. Il dala? Alaba il? Negar egiten jakin gura neuke. Benetan negar egiten!

IZAR.—Negarrez ikusten zaitut.

KAPI.—Andrak lez, malkoz beteta nai neuke, mara-mara. Laga nagizue. Juan zaiteze emendik. Eskutatu zaiteze. Bakarrik nai dot egon. Bakarrik negar egin. Bakarrik! Alaba il! Il...! Nik ikusi barik il...!!

IZAR.—Zer eukan?

KAPI.—Ez itandu. Eztakit. Eztozue ikusten ez dakidala ezer? Bakarrik egon nai dot!

(*Itxasora begira lotuten da, esku-bandan, makur. IZAR eta PELI ixilik.*) (*Garratz.*) Itxasoa! Madarikatuten zaitut! Ogi ordez biotza zatitu daustazulako madarikatuten zaitut. Madarikatuten zaitut gaua, betiko antzera traidore izanik, esperantza bako illunpear sartu nazulako! Madarikatuten zaituet kiñuka zabiltzen izarrak, nire miñik ezagutzen ez dozuelako! Madarikatuten zaituet mendiak, zirkiñik egiten ez dozuelako! Madarikatuten zaitut iza-dia, gabaren luzea ariñago eteten ez dakizulako! Madarikatuten dot gizonaren ezereza, madarikatuten dot biotzik eztaukan lege-dia! Madarikatuten zaitut bizitza!! Ta madarikatuten dot...

PELI.—Kapi! Ori ez! Ez!! Ori ez!!

KAPI.—Ez!! Ez...!!

IZAR.—(*Peli'ri.*) Zuk eztaukazu semerik?

PELI.—Parkatu. Errezaten nago. Nik itxasoan artu eta ikasi dot esperantza barrien lotsa eta kezka!

OYALA

II EKITALDIA

I

TOBA, KAPI eta IZAR

(*Kafetetxearen egal baten, TOBA eta KAPI.—Beste egalean, barrik, IZAR.*)

TOBA.—Ez zara aspertu?

KAPI.—Ez. Nun ementxe baiño obeto?

TOBA.—Illebeta erbestean egin, egun birako etorri, ta kafetetxean baiño obeto ez zagoze inun.

KAPI.—Munduko barri geiegi dakigulako.

TOBA.—Zuen emazteak ez. Zuena or dago: etxea ta kafetetxea, edo kafetetxea ta etxea. Beti aterpean, nai ta eguzki galdatan ondartzetarako edo ibilteko giro ohea egon.

KAPI.—Itxasoetan oitu gara, bare nai ekaitzetan gure «puentean» egoten.

TOBA.—Egia esan, ni itxastar batekin ezkondu nitzan aita itxastarra zalako. Ta zaarraguak be bai.

KAPI.—Endaz.

TOBA.—Ori. Baiña ilusiñoirik ez dot indartu.

KAPI.—Ez ukatu. Zure ilusiñoia bete zendun, itxastar batekin ezkontzea besterik ez zalako.

TOBA.—Ezkontzea da bat eta bizeitza bestea.

KAPI.—Orretarako ilusiño bi artu bear zenduzan. Eta itxastarren artean obeto aukeratu, lenengo era ta aukereakin konpondu barik.

TOBA.—Bai gaur beste jakin ba neu.

KAPI.—Itxastarren esaera da, ariñegi dabillenenak, kaieko ormak jo ta muturra apurtuta gelditzen dala. Ta dirudianez, legorrean be ori gertatzen da.

TOBA.—Ezkontzetan bai.

- KAPI.—Orra. Zuk esan ezkerro, ala izango da. Amen.
- TOBA.—(*Tarteka tarteka Izar'eri begira igarriko da, ta misterioz.*)
Ez begiratu, baiña egalean dagon emakume a, zuri begira dabil tarterik tarte.
- KAPI.—Arrain gaiztoen bat al da?
- TOBA.—Itxuretan.
- KAPI.—Orrela dala, niri ez. Ba dakie nik apaixurik botaten ez da-kidala.
- TOBA.—Ikusi bear.
- KAPI.—Ez dautsedela, beintzat.
- TOBA.—Esaera bat izan lei. Arraiña txartaka dabillenean be bai?
- KAPI.—Ori be?
- TOBA.—Ezin lei ezer esan?
- KAPI.—Ondo pentsatuta.
- TOBA.—Berezkorik ez? Ba!
- KAPI.—Lagaten daustazuz bost minutu, bakarrik, etxera natorrene-tan?
- TOBA.—Barriro zuri begira dago.
- KAPI.—Beste bein minduten ba nazu, kiñu egingo dausat.
- TOBA.—Kiñu bakoitzeko nik jakingo neuke zer egin.
- KAPI.—Ez nekien adardun andrea artu nebanik. (*Disimuluz beste aldera begira.*) Oi! Izar da. Agurtzera nua.
- TOBA.—Zein Izar? Ta agurtzera?
- KAPI.—Zegaitik ez?
- TOBA.—Bera lez andrea naiz ni be.
- KAPI.—Zegaitik diñozu?
- TOBA.—Ainbeste ezaguera ba dozu, bera be etorri lei biok agurtu-ten.
- KAPI.—Itxasotako kapitanak, galoiak eukiarren, ez gara silloietan gelditzen iñoren agurrak artzen.
- TOBA.—Geldi oraingoz.
- KAPI.—Zer dala ta?
- TOBA.—Txori kuma bat jausi da.
- KAPI.—Nun?
- TOBA.—Ez begiratu. Peli pilotoa sartu da sarean.
- KAPI.—Nire pilotoa?
- TOBA.—Alkarren barri jakingo dozue. Bestela lotsatuko zan, egale-tara obeto begiratu.
- KAPI.—Barru zital eta txarreko zarie andrak..., itz garratz eta gor-diñago bat ez esateagaitik. Ustelak! Sagar ustelak! Gaiñea itxu-ratsu ta miña ustel!

II

KAPI, TOBA, IZAR eta PELI

(Euren maian ixillean geratuko dira KAPI eta TOBA. IZAR eta PELI, eurenan, oi diran agurrak egin ondoren, jardunean.)

IZAR.—Berandu zatoz. Erdi etsita negoan.

PELI.—Zatarra eta gaitza da Bilbo ibilteko. Topo ta topo, orduak galtzen dira bidetan. Parkatu.

IZAR.—Ezer jakin?

PELI.—Zerbait. Pixkat.

IZAR.—Esan. Garretan nago jakiteko.

PELI.—Oraindik... Eztakit amesak biztu erazi ala etsipena emon.

IZAR.—Beraz ez dakizu ezer?

PELI.—Edo geiegi... bide galduetan ez ba nabil. Bata esaten ez naz ausartzen eta bestea biribiltzeko segururik ez dakit.

IZAR.—Nik ezin nei ur bitara jokatu. Prisa daukat. Keixu nego zerbait argitzeko.

PELI.—Ba diardut alegiñean.

IZAR.—Ez eten eta ez etsi. Zegaitik ez zoaz... Ulertu daustazu nora, ez? Ausartu zaitte. Oraindik biziko dira nire ezagunak. Ba dakizu zelan deituten eusten sasoi aretan? «Urrezko zilla». Ba! Etzaitetz lotsatu. Gaztetako gauzak.

PELI.—Enau ortik jo.

IZAR.—Sekula be ez?

PELI.—Gaur arte ez.

IZAR.—Orretara etzaitte joan. Erpa luzeak egoten dira an. Gaitz da osorik urtetea. Gaztetasunaren zoroa, zorotasun gaztean bihurtzen da. Ta zorotasun gaztea... biurria da, itsua. Ta loa, zikiña. Gorputzari mesederik ez eta goguari ittotasuna ekarriko dautzu.

PELI.—Parkatu. Eskatu zendun mesedea ez da ori.

IZAR.—Lenengotatik esan bear neutzun bide ortatik jokatu nebala.

PELI.—Ez asarretu, baiña igarri neban.

IZAR.—Zetatik?

PELI.—Egia esateko, eztakit. Baiña nire barrurako, igarri neutzun. Igarri edo susmatu neban.

IZAR.—Ain ezagunak gara?

PELI.—Kalekoak bai. Lupa barik be.

IZAR.—Besteak lizun eta berdeago dira. Berdea... Esan nai dot, gu baiño gaixoago. Kalekoak premiña biurtu dabe ibilkera eta bizi-bide ori. Besteak... lizunkeriz, bizioz.

PELI.—Danak be bai, segurutik. Dana dala.

- IZAR.—Zuk andrea artzean olakoa artuko ba zendu?
- PELI.—Kezkaz zagoz eta olakoak gogoratzea atsegin yatzu?
- IZAR.—Egia.
- PELI.—Noiz jαιο zan zure umea? Gogoratzen?
- IZAR.—Noiz eta nun, ez dira paperetan agiriko.
- PELI.—Ta izena?
- IZAR.—Nik eztakit zer ipiñiko eutsen.
- PELI.—Aita?
- IZAR.—Eztakit. Mutilzarren bat izan leikian, edo beste amar umeren aita.
- PELI.—Lenengoa ziurrago.
- IZAR.—Edo bigarrena.
- PELI.—Beraz zuk eztakizu besterik, orain amar urte, Mayatzaren bostean, beste neska baten bitartez, Bilboko Casa Cunan iru lau egu-netako ume bat laga zendula baiño.
- IZAR.—Alaxe. Neska bat.
- PELI.—Bilboko Casa Cunan, egun aretan, iru ume sartu ziran zu-rearen antzera. Ta irurak neskak.
- IZAR.—Ain zuzen be.
- PELI.—Ordurik eztakizu?
- IZAR.—Nik goiza egin orduko eroan neban.
- PELI.—Irurak egun senti ordurako eroan ziran. Pekatua ta frutuak illun zaleak dira.
- IZAR.—Etzaitut aukeratu zirika ekiteko.
- PELI.—Nik sentiduten dodana esaten dakit. Eta ez min emoteko gogoz.
- IZAR.—Eta umeak nok atara zitun?
- PELI.—Ori jakingo ba litz, ume asko ez litzakez artuko ama peka-tarien edo ama urratuen bildurrez.
- IZAR.—Eztautzut ulertzen.
- PELI.—Zeren billa zabiltz?
- IZAR.—Alabarena.
- PELI.—Ez zendun laga?
- IZAR.—Ulertzen dautzut. Kapitana ikusi dozu?
- PELI.—Ez.
- IZAR.—Berak ikusten zaitu.
- PELI.—Nun? (*Konturatuaz.*) Parkatu. Ba nua. Igarten ez berba le-kuak nundik sortu leikezan? Zirika nabillela esan dozu len? Beste batzuk zirrika esango dabe.
- IZAR.—Bai. Andreak, itxasertzeko semaforoen antzera, inguru guztia-ri buelta emoten dautsa begira ta begira. Ta begiak dizditsu daukaz.

PELI.—Ori. Onezkero zirrika ikusiko nindun. Ta... ta... ta ..
 IZAR.—Ta zer?
 PELI.—Zer? Zeta, zeta, zeta.
 IZAR.—Zer da ori?
 PELI.—Zirrika, zirrika, zantartu.
 IZAR.—Ni naz testigu.
 PELI.—Orretan testigu bakarra kontzientzia da. Besteak ez dabe bali-
 lio. Ba nua.
 IZAR.—Ni be bai.
 PELI.—Edo ni, edo zu. Batera ez.
 IZAR.—Kaskar argia daukazu.
 PELI.—Itxasotako iparrak garbitua. Noiz ikusiko gara?
 IZAR.—Ainbat lasterren nai neuke.
 PELI.—Nun?
 IZAR.—Ni inguru onetatik ez naz aldenduko. (PELI *juaten da.*)

III

TOBA, KAPI eta IZAR

KAPI.—Agurtuko dogu?
 TOBA.—Eztakit zegaitik ainbesteko gurari. Arduratsuegi ikusten zai-
 tut andre orregaz.
 KAPI.—Azkenengo ibillaldian lagun atsegiña izan neban.
 TOBA.—A... bai?
 KAPI.—Zegaitik ez?
 TOBA.—Atsegiña, ezta?
 KAPI.—Eztakit itzik neurtuten.
 TOBA.—Neurtu dozu ondo: atsegiña. Pilotoa ta zu, bata bestearen
 leian ibilliko ziñen, agiri danez.
 KAPI.—Pilotoa ta nik ez dogu euki ezer, ezer be, entzun?, andre
 orrekin.
 TOBA.—Nik ba dakit itxasontzietan zer jazoten dan.
 KAPI.—Nik be ba dakit kapitana naizena. Entzun? Eta nik ba dakit
 kapitan lez zer egin bear dodan.
 TOBA.—Gizonak baiño andreak bigunkiago artu. Andrak berez di-
 tuen jausialdi edo makaltasunetan biztuten alegindu... Ta zeta-
 rako ukatu? «Puentean» edo esku-bandan, ipar bigunaren ai-
 zeean naastuten diran emakumien uleak bardindu, aizeak zabal-
 tzen ditun papar zabalak lotu...
 KAPI.—Toba! Zer da au? Zer pentsaten dozu?
 TOBA.—Pentsatu ez. Irudipenak agertu.

KAPI.—Zegaitik ain zuzen be, sekula ez eta gaur..., orain, errezero
orreitan sartu?

TOBA.—Pilotoak dakiana kapitanak jakingo dau.

KAPI.—Edo ez. Ikusi bear nun eta zetan.

TOBA.—Illargiaren itzaletan kapitanak ariñago begiratzan ei dautse,
egarri diran andreeri, begietara; edo ikutu, busti diran espanetan... eta...

KAPI.—Toba! Ez jarraitu!

TOBA.—Ta, bear ba da, ontzian igarten diran makurpenak eta bigunkeriak, leorrian...

KAPI.—Ixil! ixil zaite!

TOBA.—Pilotoak itz egin dau.

KAPI.—Noiz?

TOBA.—Ez dozu ikusi? Ez dozu ikusi itz gozoetan, eta... eta... Txandaka egingo zenduen noizbait?

KAPI.—Gaixo zagoz?

TOBA.—Zegaitik?

KAPI.—Gaixo ezik, ezin sinistu neikedalako zure itzetan.

TOBA.—Gizon guztiak hipokritak zariela eztakizu? Ez besterik itxuratzan alegindu. Ta ba nua.

KAPI.—Nora?

TOBA.—Gelditu ziñei nigaitik. Andre «atsegiñak» agurtzeko erreten ez zagoz ba? (TOBA *juaten da, destañez, ta KAPI'k irribarre mintsz begiratu*ko dautsa.)

IV

KAPI eta IZAR

(*Alkargana urreratu ta alkar agurtuaz.*)

KAPI.—Ameriketan uste zindudazan.

IZAR.—Andrak ez dogu jakiten noiz etorri ta noiz joan.—Emazteaz?

KAPI.—Bai.

IZAR.—«Atsegiña», baiña... akerrak adarrak okerrak. Ez da olako esakeraren bat?

KAPI.—(*Destañez.*) Ahari topekak egiten diran lez, andre topeka nai neuke ikusi.

IZAR.—Batez be laiño egunetan.

KAPI.—Laiño egunak gorputza makaldu ta astandu egiten dabe batera. Noiz joateko?

IZAR.—Ingurutik bialdu nai nazu?

KAPI.—Illabete baiño len, esan zendun.

- IZAR.—Asmo ori ekarri neban. Baiña nire gauzak illun dagoz.
- KAPI.—Erbestean bizi diranentzat urruneko negoziok beti agertzen dira illun.
- IZAR.—Nireak ez dauke kaku andirik diruz.
- KAPI.—Gizonen bat?
- IZAR.—Munduan geiegi ibilli gareanok ez gaitu gizon batek ikututen. Gizonak posporoa zarie. Ta zetarako nai dot nik posporoa, bein zigarroa biztu ondoren?
- KAPI.—Illargiaren ardatza okertzea errezago da zuek nai dozuena igartea baiño. Ez nekien pilotoarekin adizkidetasunik zendunik.
- IZAR.—Kontuz. Ezaupidea. Besterik ez.
- KAPI.—Ez nabil zirika.
- IZAR.—Fiñegi da. Drogatua bizi dala dirudi.
- KAPI.—Zegaitik?
- IZAR.—Gaurko gizartean, drogatu barik, gaitz dalako zintzo biziten.
- KAPI.—Gizarteari biraoka diarduzu?
- IZAR.—Norbaitek ez eban esan azpaldi, libre ta garbi dagonak atzamarrak jasoteko? Dana dala. Zure alabaren iltokian klabelin zuriak ipinteko garra ta zorra daukadaz.
- KAPI.—Itxastarrok illei baketan lagaten dakigu.
- IZAR.—Ta biziekin gerran egin, ez?
- KAPI.—Or konpon. Zerbait artuko dogu?
- IZAR.—Oraindik kamarerorik ez da sartu ta ugazaba bere arazoetan dabil.
- KAPI.—Egun ederrak igaro nitun kafe onetan sasoi baten.
- IZAR.—Ez ziñan otz ibilliko garai aretan. Amaika gau txori ibiltan ziran emen.
- KAPI.—Zelan dakizu?
- IZAR.—Zure arpegikera ezagun egin yatan barkoan ikusi zindudazanian.
- KAPI.—Ez. Ez eidazu olakorik esan.
- IZAR.—Eta zure emazte adarduna... Zegaitik alkarren inguruan bizi izan diran emakumeak, une baten, alkar ezagutzea baiño ez ikus-tea naiago izaten ete dogu?
- KAPI.—Nire emazteak ez zaitu ezagutzen.
- IZAR.—Geiegi.
- KAPI.—Nundik?
- IZAR.—Bizitzatik. Premiñetatik. Eta zegaitik ukatu? Argalkerietatik. Atsegiñetatik.
- KAPI.—Izar! Zeren billa zabiltz?
- IZAR.—Ezer ez.
- KAPI.—Nastatu gura nazu?
- IZAR.—Nik baiño leenago egin zenduezan.

KAPI.—Ezin ziñei edozelan itz egin. Kapitan bat naiz. Ez naiz edozein.

IZAR.—Besagaiñeko zinta eta galoiak ez dabe gizonik zintzotuten.

KAPI.—Ez dautzut motiburik emon orrenbeste konfiantzaz jarduteko.

IZAR.—Bein galtzen da konfiantzea ta bein lotsagalduten da bat. Parkatu. Bizitzako garrazkeri batzuk esaten nabil. Eztago emen ipar bigunaren ozkirrik. Eztakit zek sutu naberen. Belarri zorrotza daukat. Konbentzidu nai zaitut, kontura ekarri, «atsegiña» izan ba nitzan be... besteak be ezagutu ninduzala bide bardiñean.

KAPI.—Izar!

IZAR.—Ta naiago izango neban premiña orretan ez sartu...

V

Lengoak eta PELI

PELI.—(Agertuaz.) Egunon eta parkatu.

IZAR.—Telegrama bat?

KAPI.—Ez zaitetz jolastu.

IZAR.—Egiz. Barkoan nabillelakoan. Peli! Ekaitz egunetan zer egiten dozue itxasoan?

PELI.—Lepoz gora lo. Kapitanaren kontsejua da.

IZAR.—Andre bildurtien antzera. Beraz ekaitzean, gizonak, andren antzeko dira. Pentsaten neban. Baiña ez nekien itxasoan eulirik bizi danik.

KAPI.—Gizon guztiak ez dira bardiñak.

IZAR.—Basurtoko andre guztiak be ez dira esaten diran lakoak. Geia-gorik jakin dozu, Peli?

PELI.—Kanposantura eroan dodazan lorak, neskati bateri eskiñi dautsadaz.

IZAR.—Zegaitik? Loraen usaiñak nezkatiak aizetu ta zoratu eragiten ditue.

PELI.—Ez nekien. Eta azurrak? Zetarako bear ditue lorak? Ariñago austuteko?

IZAR.—Kapitanak naiago izaten dabe andre ezkondui eskiñi.

KAPI.—Izar! Galoien neurriari begiratu, mesedez. Nire pilotoaren aurrean zagoz. Itxurak zaindu bear dira.

IZAR.—Andre ezkonduak, batzuk... Gizon ezkonduak eta andre ezkonduak neurotikoako izaten dira ezkongabeak baiño. Ez zenkien? Zegaitik? Ez ei da berezko legea, bizi moduaren legea baiño. Bizitzako adarrak, eta ez beti zuzenak.

KAPI.—Zer dala ta ain zital.

IZAR.—Bizi gordiñaren billa ez diarduzue? Esanak mindu egiten gaitu eta egiteak ez. Baiña esanak egunez zabaltzen dira ta egiteak gabez.

KAPI.—Zetan dator ori?

IZAR.—Nik ezagutu neban gizon zorrotz bat, ez-une eta gose aldie-tan, etxeko gosea kendu nairik janari billa ibiltzen ziran andrak estu artzen zolia zana, bideetan. Baiña ederrena, itxurazkoena, bere gelara eroaten eban bildurraren indarrez eta izorratu. Nik eztakit zein dan estraperlo andiago; gosea kentzearren legeari gaiñetik egin, edo andrak izorratzea.

KAPI.—Bata ta bestea gosearen ondorenak dira.

IZAR.—Gose batzuk sortu egiten dira ta besteak biztu. Beti be gosea ta premiña lotsagabeak dira.

KAPI.—Eztakit zer esan nai dozun orrekin.

IZAR.—Igarri ez? Arritzeko da. Itxasora joan aurretik, erriko zain-dari ez ziñan ibilli?

KAPI.—Ta zegaitik niri min laban eta gaiztoak asmatutako gertaera bota?

IZAR.—Nik esan egin dot bakarrik. Ez neban uste zuretzat artuko zendunik. Zegaitik artuko zendun, arrik euki ezik? Itaun, gal-dera bat egiten laga egidazu. Zein da gizarte erreari piparra bo-taten dautsana? Esan gura dot...

KAPI.—Ez zaitez mingain zorrotz. Ziri billa?

IZAR.—Ez. Eztakit zelan asi, batez be ain zurbil jarten zareala, ain nahastu ikusi ondoren. Niretzako, gizona ta andrea, mallatuta gelditzen diran sagar bi dira. Paradisuan be ez al zan sagarra bi-tarteko? Zein usteltzen da lenago? Beia jota gelditu dana, edo gizonak jota adarrean geratzen dana?

KAPI.—Bigunena. Lizunena.

IZAR.—Eta zein da sagar biguna eta lizunena: arra ala emea?

KAPI.—Ez dakit nundik zabizan edo nora jo nai dozun.

IZAR.—Itxasontzian, Bilbora urreratzean, ez zendun jakin nai nire bizitza? Telegrama batek eten genduzan. Emen ez dago telegra-marik. Barakaldoko suen oritasunari begira barik be, nire edesti gorri eta latza agertu ta jakin erazoteko gogo bizia daukat.

PELI.—Kapitana! Emaztea begira daukazu.

KAPI.—Nun?

IZAR.—Adardun telegrama izango da ori. Ain zuzen be? Ixil gaitezen.

VI

KAPI, IZAR, PELI eta TOBA

- TOBA.—(*Atean siku.*) Zain nago.
- KAPI.—Erdu.
- TOBA.—Prisaz nabil.
- KAPI.—Norako?
- TOBA.—Esango dautzut. Etorri.
- KAPI.—Nik, norako barik, ez dakit iñora urteten.
- TOBA.—(*Garratz.*) Ondoa jota, inkallatuta gelditu zaite ortxe. Betiko, nai ba dozu. Drogen kontrabandoa darabiltzuela dirudi, ainbeste kuku batzar eta misterioz.
- IZAR.—(*Ausartuz.*) Gizonen kontrabandoa darabilgu. Ez dozu ori pentsatu? Tba ez zara zu? Laster ahaztu gara. Kapitan baten emaztea ziñalako, ez nazu agurtu nai? Ezagun gara, ez ukatu. Parkatu. Ikusi orduko zure alabearen sentimentua agertu bear neutzun. Nire alaba ba'zan lez sentidu neban bere galtzea. Ezagutzen dot zure egon ezin ta zure kezka.
- KAPI.—Ezagutzen ziñen, benetan?
- IZAR.—Nunbaiten ikusi giñan. Ikusi ta gañerakoak. Sagar usteletzaz ez dogu itz egin? Dana dala, zer jazo yakon alabari?
- KAPI.—Ez orretaz jardun.
- TOBA.—Miñik ez eidazu barriztatu, mesedez.
- KAPI.—Beretik urteten dau entzunagaz batera.
- IZAR.—Parkatu. Ez nekien alabarik zendunik be-ta. Suerte euki zendun. Nik lez. Ibilli ta ibilli... ta deskuído bat edo gertaera bat. Kasualidade bat. Ni ez naz lotsatuten nire biziagaz. Ulertu egidazu. Lotsatu bai, bizi modu aregaz. Baiña zer izan nitzan izaten, ez. Zure gizonak ez al dau esan bear nozbaiten musturrarekin edo koastarekin mollako arriak jo dituzala, edo larri ibillia dala ondoa jota? Zer egingo leuke pilotoak aitzak nun dagozan jakin ezik, edo ondar mendiak nun dagozan ikasi ezik?
- TOBA.—Prisaz nabillala esan dot.
- IZAR.—Eta senarra eroan nai? Errekaduetako paketeak erabilteko ba da, Pelik lagunduko dautzu. Zure senarrarekin nire Ameriketarako osterea gertu nai dot. Ez bildurtu. Tximurrak eta zimelak gogortuta, blindatuta ez gaituzu ikusten?
- KAPI.—Luzarorako zuaz?
- TOBA.—Eztakit. Komeni aiña. (*Joaten da. Ondoren, Izar'en kiñu bateri jarraituz, Pelik urtengo dau bere bidean.*)

VII

KAPI eta IZAR

IZAR.—Zital agertu naz nure emaztearekin. Parkatu. Ikusi orduko ez nitzan garrastu bear.

KAPI.—Nik biztu ete dautzut zitalkeriaren txingarra?

IZAR.—Ez Jakin.

KAPI.—Ontzirarte ez zaitut ezagutu. Edo ez naz konturatzen.

IZAR.—Bakar batekin ibilli ba ziña konturatuko ziñan.

KAPI.—Ba daukazu itzik akulu barik? Barkutik urten ondoren, gaur ikusi gara... Ezagutzen zendun nire Toba?

IZAR.—Sasoi baten zuk aiña edo obeto.

KAPI.—Nundik?

IZAR.—Inguru oneitatik. Minduten zara?

KAPI.—Nik Barcelonan ezagutu neban.

IZAR.—Danok eukiten dogu bizi-bideari iges egin naiko une bat. Jaso gura edo nortasuna zaintzeko deia. Argitasun bat lez. Bizi-bide gordiña da gurea. Garratza. Saldua.

KAPI.—Edozeiñenan antzeko.

IZAR.—Ez. Argi itz egin daigun.

KAPI.—Zetaz?

IZAR.—Bizi bidea jakiten.

KAPI.—Baketan laga nagizu. Osterea, biajea ez zendun gertatu nai? Ontzian itz egingo dogu.

IZAR.—Gizonak, gizon diranak, dana jakin bear dabe. Bizia ez da sortu ta erneten intzentsu artean. Nik ez daukat gizontzat, gizadian sedazko kapulla lez ikutu barik gordeta bizi nai dabena. Edo luzatuten dautsen txiketetik, izerdi barik edo nortasun barik tatarrez sortu ta tatarrez ilten dan gizona.

KAPI.—Alaxe da.

IZAR.—Sustraitik ezagutu bear da bizia. Ta sustraiak lokatza daroa. Garbitu bear dan lokatza. Ta gizonak zaina ekarten dau sortzean. Zillari lotuta. Eten bear izaten da.

KAPI.—Danok dakigu.

IZAR.—Edo ez. Ta biziari negarrez agur egiten yako. Ta negarrean garbitu. Garbitu, entzun? Eta negar malkoetan intza emon. Ta bidea billatu. Eta jaso ta jausi, indartu ta... parkatu. Parkatu, entzun? Ez dakizu parkatzea legea danik?

KAPI.—Danok dakigu.

IZAR.—Edo ez.

KAPI.—Ez nagizu illundu, argi biziteko.

IZAR.—Origaitik. Argi itz egin nai dautzut. Lagako daustazu?

- KAPI.—Nire emazteari ikutu barik.
- IZAR.—Ezin nei. Nire kakua ortik dator.
- KAPI.—Irabaziak edo negozioak txarto edo oker joan yatzuz?
- IZAR.—Zegaitik itaun ori?
- KAPI.—Askotan barruko miñak sortu eraziten ditu negoziotako kezkak.
- IZAR.—Ba dakit nun nabillen.
- KAPI.—Bein joan nitzan osagillearengana. Min neban. Min, este nautsian. Ta guntzurrunen neuralgiak zirala esan eustan osagilleak. Nik ez neban ezer sentiduten guntzurrunetan.
- IZAR.—Ez. Baiña nik sentiduten dot zerbait biotzean. Eta ez dira neuralgiak. Ez dira burutapenak. Ez dira nerbioen erruak. Kezkak dira. Barruko arra da.
- KAPI.—Kirioz, nerbioz gañezka ikusten zaitut, zuk ala uste izan ezarren. Tila pixkat eskatzea nai?
- IZAR.—Ez.
- KAPI.—Ontzian, «puentean» itz egingo dozu luze ta argi.
- IZAR.—Nik lenago argitu bear dodaz gauzak. Ni ez naz etorri diru billa. Etorri lez joan bear naz diruz. Baiña biotza nasaiaego eroan bear dot. Ta ori, ementxe, aurrez nasaitu bear dot.
- KAPI.—Egin daigun, nik eztakit noiz eta zegaitik, noizbaiten ni maibatatu ninduzula ta nire emazteak aurrea artu eutzula.
- IZAR.—Ez.
- KAPI.—Ba dakizu Euskalerrian dibortziorik ez dagola.
- IZAR.—Legez ez, nai ta bizikeran askotan egon. Legearen kateak ez ditue kontzientzien kateak estututen.
- KAPI.—Egin daigun...
- IZAR.—Egin daigun nire kontzientziak katerik ez daukala.
- KAPI.—Bai.
- IZAR.—Eta nire kontzientziak iñoren bildurrik ez daukala.
- KAPI.—Bai.
- IZAR.—Eta sentiduten dodana esateko eskubidea dodala.
- KAPI.—Ez beti.
- IZAR.—Orduan kontzientzi librerik ez dago.
- KAPI.—Ez.
- IZAR.—Zegaitik ez?
- KAPI.—Bizi-bideari begiratu bear da aurrez. Ingurueri.
- IZAR.—(Garratz.) Lau ankadun txarrien filosofia daukazu. Parkatu (ixilune laburra.)
- KAPI.—Bein Honolulura joan nitzan.
- IZAR.—Ta?
- KAPI.—Apalduten eroan ninduen.

IZAR.—Ta?

KAPI.—Paradisu baten gizara itxuratutako jatetxe bat zan.

IZAR.—Korta edo ukullua baiño ohea.

KAPI.—Emakumeak, emakume ederrak, gazteak, liraiñak, yazekoe-netan aukeratuak, sortu lez, narru gorrian, billoitz billoitzik etor-ten yakuzan janaririk atsegiñenak eskintzen, euren mamiñen iku-tuekaz gure gorputsak berotuten.

IZAR.—Ta?

KAPI.—Nire emazteagaz gogoratu nitzan. Eta nire alabarekin.

IZAR.—Ta zer?

KAPI.—Iñori eskiñita negoala eta saldu ezin neikian gizona nitzala pentsaten igaro neban jatordua.

IZAR.—Lengoak aztuta? Eta zer?

KAPI.—Nire alabea sekula ez nebala alako toki batera diruz saldu-ko, zin egin neban.

IZAR.—Diruz?

KAPI.—Anka bidun animalien sentzunez eta buruz jokatu neban.

IZAR.—Orrekin ez diñostazu ezer.

KAPI.—Ez?

IZAR.—Kontzientzia eta sentimentuak bi dira.

KAPI.—Alkarri lotuta.

IZAR.—Eta sakonera jo ezker... Bear ba da, zure nortasunaren, zure nortasun bildurtiaren jostallu lez jokatu zendun. Ez zure senti-mentuen indarrez, ingurukoen, ingurukoen zer-esan eta bildurrez baiño.

KAPI.—Beraz ni... ez naz ni.

IZAR.—Segurutik ez.

KAPI.—Parkatu. Aspertu naiz. Barkoan, kapitan lez, sayatuko naiz ibillaldi atsegiña eskintzen. Eta ingurukoen lotsa barik.

IZAR.—Ez neban nai onetara eldu. Nik nai dodana... Konturatu zai-tez. Ez gara sustraitik asi. Gaitz da benetan be.

KAPI.—Zu eta ni zimelegi gara sustrai barriak botateko. (*Asarre joa-ten da.*)

IZAR.—Kapi! Kapi!


VIII


IZAR bakarrik

IZAR.—(*Minduta.*) Zegaitik agertu ete naz ain gordin eta ain zital? Zegaitik ain ume ta ain argal, eta ain sentzunbako? Zer lortu

dot? Len baiño itsuago geratzea. Len baiño ertsiago. Eta nire itzala illundu, ta nire bizia garrastu, ta nire miña sakondu. Eta nire izatea zimeldu... zimeldu! Lengo bizimoduari eutsi nairik ba nebilken antzera, gorrotatu eta baztertu neban bizi-bide lizunaren billa ba nebillen antzera. Asarrez edo barru txikiz, gorrotoz edo iguiñez, bengantzaz edo zitalkeriz ba nebillen lez. P... zaar bat lez geratu naz, ain zuzen be amatasunaren indarrez jokatzen nabillenean, mundu zikin baten gorrotoz nabillenean! Amar urteko jasoaldi eutsi eziñari, indar barri bat emon nairik nabillenean! Kontzienzi barri batez indartu gurarik diardudanean! (*Mai baten gaiñean okertzen da, negarti.*)

Jarraituko du.





LIBURVAK

Zarra, Izkutu-kumea, kalera ⁽¹⁾

Onatx ZARRA: izenak besterik badio ere, lau-bost urteko po-xoloa. Izkutu-kume egon da orainarte, etxe-zuloan; orain berriz ara bat-batean kalera, lotsak Xoxote-ra astinduta. «Sasikoak» «garbiekin» eskubideetan berdintzeko dabiltzan ontan, etor omen datorren lege berri orrek eman ote dio, aurrez, ortarako kopeta? Ez. Ez bait-da sasikoa Zarra. Amaren irri-parrez, beste senideekin eseri du aitak pamiliko maian. «Nere andre ta seme alaberi eskeintzen diet lantxo au», —dio opari-itzetan.

Aisa igartzen zaio, ordea, bere irri-parreaz areagoko «ze-ikusia» ba duala «andreak» sein-gintza orretan. Kontu-kontari aritua zaio «bere gizonari» albotik, lumaren etorria ornitzen. —«Ez dala baietz»? , nappar-esaeran.

«Ataun-go fruttue» duzute Zarra, alde bietatik. Donostian jaioa, baizikan. Izan ere, gure ama-gaietatik nor ez doa gaur Donosti-ra, erditzera? Ba dirudi, «Donostia, gure uria» diotela ama guziek ao batez, alako «Gipuzkoa, gure uria»ren buruz buru.

(1) Ascensio Apalategui Aguirre. Zarra. Itxaropena Argitaldaria. (1965). Zarautz.

Eta gustatu, ala demontre, gure txiki orri Donostia! Zarauz-ko Itxaropenan molde-letraz ipin-apain jantzita egon-arren, 1965-etzkeror egon da etxe-barruan izkutu-kume, aitaren agindura ixil ixil, gizarterako erkintxo dalakoan-edo. Ikusi dut nik, bainan, Zarra, laubost urteko potxoloa. Ume eder, ez da ezkutagarri, egundo. Dabilela bai kalera, gure erriari euskeraz egitera, premia ba dago ta.

Egillea nor? Batxiller-aldiko lagun zaharra dut Ascensio Apalategi Agirre. Iruña-ko Istitutoan gure esamiñak ahartean erabat bukatzeke, agur egin genion elkarri. Unibersidadera jo zuan nere lagunak eta, ni nere Europa-Amerikak zearreko ibilietan nenbillela, lege-gizon egin zan, familia azi, lege-lan edo auzietan saiatu ta... lumari eragin. Nere poza, orain urtebete pasatxo, aspaldiko ikas-laguna galtzarbean liburu bi zituala azaldu zitzaidanean. «Zarra» zuan bere liburu oietako bat. Arekiko nere iritzia nai zuan.

Kanpoaldi batek eragotzi zidan adiskidearen eskaria bertan-bera betetzea. Itxoitaldi ontan ordea, kanpora jaregin diot Zarra-ri. Batxiller-ikasle batzuk, karreradun bat-edo-bestek eta alako nekazari banakak irakurri dute bitarte ontan, eta erruz gustatu danai. Astiro bein eta berriz nik neuk irakurrita, besterenik gabe, neretik derizkiot on orain liburuari.

Zer da Zarra? Erri-liburu bat, ain zuzen. Joan-aldiko, ia anti-gualeko, erri-jendearen azalpen eta erretratu. Bruxa jazten dute ia danak. Auntz-bizarra darie okotzetik banaka batzuei. Trena asiberriko garaiak dijoaz. Ezta-baidak dabilz errian, su-gurdi orri ere zaldiek daragiotela, bai ta ez. Europar lehen-gerrateko gertaria du liburuak azken-kontakizun.

Erri-jendeak ez du nondik gaillendu diruz, jakitez, graduz edo tituluz. Gustatzen zaio, alare, bere gizarte-maillan buru-jantzia azaldu, buru argiaren aztarnak jaulki, nondik-andik bere burua arras-toko gizon erakutsi. Griña orren zizkutik, nork bere nolakotasunaren eta izate-moduaren jario, zenbat esan jator eta xeblekeri, zenbat umore-aldi ta xiri-itx bota duan euskal gizonak baztarretan.

Giza-klase ortatik baso ugaria Ataun. Ortako jendearen erretaula bizi bat da liburu au. Lan eta atsedean, irripar eta negar, peri ta apustu, elizkoi eta apaizen gaizki-esale, tripazai ta goitar, fededun eta Denge ta «beste-mundukoen» bildur: bizitzako zorietañ nor bere izaeran eta tajuan ageri zaigu emen.

Umore-aldi asko du, ta ez da umore-liburu. Xeblekeri asko, ta ez parre-liburu. Orrela aita genezake beste zenbat barren-mugida, liburu ortako utsa ez dalarik. Pasadizuren batean edo bestean Pernando gogora balezaigu ere, oso bestelakoa da Zarra. Pernandok non bere xeblekeria botako, puntu ortara begira dagoz amezke-

tarraren liburuko lerrorik geienak. Emen, olakorik dexente bada ere, sail bakoitzak du berezko ta naitako meritu ta arte-lana.

Erretaula ortan, Zarra erdiko gizaundi. Inguruko irudietan nork bere arpegi, itxura, taju ta nortasuna baditu ere, Zarra-ren ardatzean biltzen dira ari-albañu guziak. Ez da alboko lagunen neurrikoa Zarra. Umeetan gizon, gizonetan gizaundi dirudi eta da. Erriaren sena, Zarra. Desegin egingo litzake erria Zarra-ren «tiñurik» gabe. Aixa estaltzen ditu erriko apaiz biak ere: Don Feliz «gizena» ta Don Juantxo «erretxiña». Erriko ezta-baidatan Zarra-ren itza da muga: «Zarra dixit». Zelantzetan sendotasuna ta gixonkerietan gizatasuna nagusi jartzeko prakaduna du erriak Zarra. Or nun liburu onen itzala. Itzal luzea, iñundikan.

Emakumaekikorik ez du liburu onek, aurre-aldeko kapitulu bat ezik. Prakadun utsen legortasunean doa ortik aurrera, orririk orri, azken-puntaraiño: antxen orratio, oturuntz giarratsuaren gozagarri, parejatxo baten maite-miñak. Artetxe idazlearen arikoa dugu emen Apalategi: emakumeari prestutasun aundiak egoztekoa, alegia.

«Bein edade batera ezkeru, —dio—, Gipuzkoa-ko etxe-koandreak, patxaran, baño ondo begiratuta, artzen du bere erabakia. Euskalerrria etzen izango Euskalerrria, etxe-koandrak izan ez balira diran bezelakoak. Askoz geiago zor dio euskaldunak etxe-koandreak, gionezkoari baño».
(25 orr.).

Presa eman zigun Iruña-ko Symposiuan Caro Barojak antigualeko gure lan-tresnak biltzeko, teknika berri onek baztatu ta desegin ditzan baiño lehen. Presaago dugu baiñan, gizona beste ezer baiño areagokoa danez, gure erri-jendearen antigualeko giza-moduak eta jokabideak jasotzeko. Erriko agureen gordailutik aizera atera ditu Apalategik gure aurrekoen irudi-zapiak. On ori zorko diogu gaur-gero idazle berriari. Atzorik gabe gaurra nola ezagutu? Gure aurreko zaharren berririk gabe, nola geron berri jakin?

Izkuntza. Muiña badu ere liburu batek baliokoa, bere izkuntza ezin genezaioke barkatu, ez utsekotzat artu, gaurko euskal idazleari. —«Ez daki iñungo euskerarik, eta igarri egiten zaio ori. Obe zukean, jakin izan balu», idazle batezaz Orixek esan. Ataun-en jaioa ez du Apalategik mesede motxa ongi idazteko. Izkuntz, ipui, folklore, esan eta abarretan aberatsa bait-da gure «otso-erria». Eta ona emen Zarra, Ataun-go euskeraren lurrin gozoa.

Lehen ere arturik gera olakorik pranko, Barandiaran-en ipuietatik-eta. Zor ori ezagutu dio (eta niketz, izan dedilla danon partetik) Barandiarani Harri ta Herri-ren egilleak. (H poema, 54-56 orr.).

Erri-aberastasun ori beren jabeeri banatzen zaie Zarra liburuan. Bakoitza bere esanaren edo egin famatuaren jabe azaltzen da. Or Pajaro ta Katarro, Von Bizar eta Don Juan Txiki, Antxarra ta Tzori-Zarra, gaitz-izen eta guzi.

Gizon jakiñetan bezela, itz eta esaera-molde jakiñetan ere maitu oi du erriak bere mundu ñabar ori. Kontakizunaren muiña eta konta-moldea bera ere ez da asko aldatuko ao batetik bestera. Apraposko era, antziñako gauzak bezela izkera bera ere lehenagoko moldetan gordetzeko. Setatsu eutsi dio emen egilleak bere erri-kera ta izkerari. Ez du endredo aundirik artu bere erara maneatu ta bes-telakotzen. Idazketa aña, izketa ematen du emen kontaerak.

Ama-izkuntza beroari bizi bizirik eusteko liburuen zerrendan ipintzen dut neretzat Zarra au. Izkuntza motz eta arlotea eman le-zake erri-euskerak, agian; baiño orrixo baizik ez derizkiot nik eus-keru luze ta asko esan-gaia: zerbait adieraztekoan, alde batetik, esaerak bere muin bizitik erne-arazten dituan, eta bestetik, buru-barruan erderatiko itzulpen traketsa egin-bearretik libra gaitzakean, euskera kutsuduna alegia.

Irar-utsuneek (betiko gure gaitz orrek) itsusitzen dute zerbait liburua. Egilleak, berriz, beretik dituan itzak iztegiko oldez eta mol-dez bear zituan idatzi, ertz-janik eta mozketarik gabe, naiz erriaren aotikakoak beren otsean eta motzean utzi izan. Auts liper batzuk baizik ez ordea, edozeiñetara ere, urre on askoren gaiñetik.

Geroko promes? Berezko merituz betea ba dakusgu ere, obetzat artzen diogu egilleari Zarra, langintza baten lehen-arri ta gero-aldi eder baten promes bezela. Euskerak ala bear, eta ala guk nai.

Zarra ortan erakutsi dituan gaitasunekin jo dezala gaur-biarkoen sailletan barna. Atera dio bizitzari ikaskizunik pranko, bera bere-tzat ibili dan bideetatik, eta abogadutzak besteenetara eraman dua-netatik. Berez ere, biarrera-begira, gizartearen aztorapenetara esnai, ezagutu izan dut aspalditik nere lagun zaharra. Aukerako talai-pos-tura, ori, bere bulkoz ixil ixil idaztera abiatu danarentzat. Barruko eldua da bokazioa. Eta orra ixilleko frutu au, idazteko makurra barrutik dan siñale garbi. Sen zolia igarri zaio idazleari, zear-min-tzo, xiri-itx, zelebrequeri ta maltzur-esanak usmaatzeo. Kontalari atsegiña. Edozein gertari kontu eder da bere luma-muturrean. Alka-rrizketa erraz eta naturala darabil. Azkeneko bi gaitasun ok aixa oartu ta jaso dizkiote goian aitatutako batxiller-ikasle irakurleek. Barru sentikorra, biotzondo unki-bera poesirako, jokabide eta esate jatorretarako. Biotz-pilpira xamur batekin du bukaera liburuak. Be-raz, ez dut uste barrua ustu-bildurrik dezakeanik idazle berri onek.


Berri-eske gagozkiolarik ere, barka genezaioke oraindik beste liburu zahar bat: emakuma-ekikoa. Alargun eman digu Zarra egilleak. Prakadunak dituan bezela, izango ditu gonadunak Ataun-ek, liburu bat osatzeko beste. Sorta bat eginda, eskeñi bezaio Zarra barkartiari, bere «atsoa» dezan. «Ez da on gizona bakarrik egoten».

Dana berria nai nioke ortik aurrerakoa aspaldiko adiskideari. Poetak esan bezela,

«soña zaar, berri gogoa;
azal orizta, muin betirakoa».

Kaso bertso orri. Erriaren kontzientzi bait-da poeta; bearraren oi. Ala Lizardi betiereko bertso orretan. Barru-barruan itsatsi dakiola idazle berriari, «aire zahar batean kantari berria» dezagun.

JOAN GOIKOETXEA



BIBLIOGRAFIA

1969-KO EUSKERAZKO LIBURUAK

Īgaz, EGAN-en 4-6 zenbakiaren 158-168 orrialdeetan argitara nuen 1963-1968 urteetako euskerazko liburuen zerrenda. Orduan esaten nuen bezala, ez da erreza argitaratutako liburu guztien berri ematea. Aurten bertan, 1969-koen lista eman nuen **Anaitasuna** aldizkariaren 182-garren zenbakian (otsailaren 15-ekoa), baina geroztik ere igazko urtez gehiago argitara direnez, oraingo honetan osatuago emanen dut. Gainera, EGAN-en hasi nuen lanari bertan jarraitzea ondo deritzat. EGAN, honetarako aukerako aldizkaria izateaz aparte, atek pronto idiki dizkidana dut.

1969-ko EGAN-en 4-6 zenbaki horren 158-159 orrialdeetan nion bezala, ez da gauza erraza argitaratzen diren liburu guztien kontaduria eroatea, beti gelditzen zaizkigulako aleren batzuen beren berriak garaiz heltzeke. Eta, alperrik ahaleginak egin, hori gertatuko zaigu kontrol bat bideratzen ez dugun artean. Esate baterako, **Anaitasuna**-n nion legez, **The British Museum** dalakoak oso ondo eratuak daduka ingeles hizkuntzan argitaratzen diren liburu guztietarik bina bertara igortzeko ohitura zabaldu zuelako. **Instituto del Libro Español**-ek ere, antzerako zerbait egiten du, baina oraindik ez du lortu Espainian argitaratzen diren denak bereganatzerik. Bai **The British Museum**-ek eta bai **Instituto Nacional del Libro Español**-ek, kataloguak argitaratu eta zabaltzen dituzte beren hizkuntzez argitaratzen diren liburuez, eta, jakina, nahi duenak bertan bilatu ahal du komeni zaiona. Guk ordea, hain liburu gutxi argitaratzen ditugularik ere, ezin antolaturik gabilta irakurleak beharrezko duen aukera hori.

Zenbait aldiz proposatu dut Euskaltzaindiak ez duela hori egin ezinik, eta **Euskera** aldizkarian urtero argitara urtean-urteko liburu guztien lista. Baina ez hemen agertzen dudana lista soila, baizik egilearen izen-deiturak, liburuaren izenburua, dituen orrialdeak, rustikaz ala enkuadernatua den (eta enkuadernatua bada, larruz ala telaz den), neurriak zabal eta luzean, argitara den saila (kolekzioa), impremeria, huria, urtea eta salneurria jarriaz, eta hoiere gainera lerro labur batzuek zer gai erabiltzen duen adieraziaz. Besterik ez. Eta azpiko lerroak kritika gabe, baizik gaia soilki adieraziz. Horrela, irakurleak hartuko luke begiratzeko ohitura, eta horrek berakin duen zabalkundeagatik, argitaratzeileak liburuaren ale bat biartzeko ohitura, eta era berean, Euskaltzaindiak euskerazko literaturaren biblioteka aberats bat lortuko luke. Hau ez da gauza gaitza.

Aipatutako EGAN-en begiratu bestelako zenbait liburu zergatik ez ditudan sartzen. Salgai jartzen ez diren hoietakoak, haurrendako gertatzen diren kuadernuzko ipui laburrak eta abar.

EGAN-go **Azken sei urteetako euskerazko liburuak** (1963-tik 1968-ra artekoak) izeneko bilketan, guk ahaleginak egin arren, huts bat baino gehiago egin genituen, eta orain zait garaia honen berri emateko. Esate baterako, 1967-ko listan sartu gabe utzi genuen **Txilida**, artezko liburu ederra, Pierre Volboudt-ek egina eta N. Etxaniz eta L. Mitxelenak euskeratua, Barcelonako Gustavo Gili, S.A.-k argitaratua; eta baita Azkue-ren **Aintziñako ipuiñak**, Zarauzko Itxaropenak 1968-an argitaratua, baina egia esan, hau, atzeratua irten zalako, zeren nekez aitzutzekoa zitzaidan neronek gertaturiko ipui bilduma zenez, eta neronen hitzaurrez gainera.

Hemendik ikusi genezake orain ere holako zerbait gertako zaigula, baina bat edo bestekin huts egin edo ahaztu arren, nahiago dugu ahalduguna bete. Isilik gordetzea baino hobea da.

Ondorean, 1969-an argitaratutako berri emanen dugu. Bertan faltako diranen berri norbaitek ematen ba digu, bihotzez eskertuko dugu.

Anaitasuna-n agertu nituen 40 aleri beste zazpi gaineratu beharra dut. Beraz, 47 libururen berriak jaso ditugu, lehenago esan bezala, ipuin laburrak eta Liturgiakoak sartu gabe.

1969

Arantza arcean, Xabier Gereño. "Kuliska Sorta". Zarautz.

Argiz argi (1947-1957), Iratzeder. Editions Ezkila. N. D. de Belloc. Urt.

California... **Ku-ku!**, Antonio María Labayen. "Kuliska Sorta". Zarautz.

Charles Perrault'en Ipuiniñak (bigarren argitalpena), Etxebarria'tar Juan

Anjel'ek euskeratua. S. Anton Katekesia. Bilbao.

Egazkiñen mundua, J. Lewellen eta I. Shapiro. Etxaniz'tar Nemesiok euskeratua. "Margo-ederdun Enziklopedia", Timun Mas, S. A. Barcelona.

Egunero hasten delako, Ramón Saizarbitoria. Lur. Bilbao-Donostia.

- Elsa Scheelen, José Luis Alvarez Enparantza "Txillardegi". Kriselu. Bilbao.
- Ene ixil-oiuak (Eta Donostiko bertso ale batzuek), Arozamena'tar Jesús María Donostiako Caja de Ahorros Municipal-ak. Izarra. Donostia.
- Españi'ko olerkariak euskeraz, Etxebarria'tar Juan Anjel. S. Anton-go Katekesia. Bilbao.
- Etxahun'en bertsoak gipuzkeraz, Yon Etxaide. Zarautz.
- Euskal Elerti 69, bilduma (saiatera: **Euskeraren inguruan**, J. San Martín; nobela: **Beste izakia**, X. Kintana; antzerti: **Historia triste bat**, S. Garmendia; **Makina**, J. M. Zumalabe, A. Santamaría eta J. A. Eizmendi; **Beste mundukoak eta zoro bat**, G. Aresti; ipui, X. Kintana, M. Azurmendi-Intxausti, P. Urkizu; poesia, **Poesía banatua**, R. Saizarbitoria, **Euskal Hilobia**, M. Azurmendi-Intxausti), Lur argitaldaria. Bilbao-Donostia.
- Euskal idazleak - Añibarro, antolatzaile: Etxebarria'tar Juan Anjel. Bilbao.
- Euskal idazleen lorategia (itz lauz), Karmelo Etxenagusia. Hegosa. Donostia.
- Euskera-Batasuna, Koldo Mitxelena eta lankideak. Irakur Sail. Donostia.
- Ezin bertzean, Fernando Aire "Xalbador". Auspoa. Tolosa.
- Ezpata zorrotza (olerkiak) - Ezkutuko aria (antzzeria), Etxebarria'tar Juan Anjel. Bilbao.
- Franzisko Iturzaeta bertsolaria, A. Zavala. Auspoa. Tolosa.
- Gu euskaldunok - I. Euskalerra zaharra, Anastasio Arrinda.
- Harri eta Herri (Piedra y Pueblo), bigarren argitalpena, G. Aresti. Kriselu. Bilbao.
- Ipar Euskal-Herria, J. M. Torrealday, T. M.—Olaso, P. Larzabal, J. B. Dirassar, P. Xarritton, D. Landart, J. Haritschelhar, R. Kanblong, J. L. Davant, D. Peillen. "Jakin-sorta". Arantzazu-Oñate.
- Ipuñiak, Hans Christian Andersen, Etxebarria'tar J. A.—ek euskeratua. San Anton-go Katekesia. Bilbao.
- Isturitzetik Tolosan barru, José Antonio Arze "Harzabal". Zarautz.
- Itsasoetan, Obras Musicales del Padre Donostia. Lekaroz.
- Izadiaren mundua, M. Refoy. Dorronsoro'tar Lukas-ek itzulia. "Margo-ederdun Enziklopedia", Timun Mas, S. A. Barcelona.
- "Jainkotxoek" eta gizagurenen mundua, Morris Schreiber. Murua'tar Ramón-ek itzulia. "Margo-ederdun Enziklopedia". Barcelona.
- Jesukristo (Kristau Fedearen sustraiak - II), Luis Villasante. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones. Donostia.
- Juan María Zubizarreta bertsolaria (1855-1905), A. Zavala. Auspoa. Tolosa.
- Juantxo txiki, Anastasio Arrinda. Zarautz.
- Kikero'ren eskutitzak, Etxebarria'tar Juan Anjel. S. Antón. Bilbao.
- Motza, Zulaika ta Ugalde bertsolariak, A. Zavala. Auspoa. Tolosa.
- Mugarra, Agustín Atutxa.
- Mundua, guztioi erakutsia, George Monlau. Mikel Atxagak euskeratua. "Margo-ederdun Enziklopedia". Barcelona.
- Nekazariaren dotrina, F. Marcos da Portela. G. Arestik euskeratua. Kriselu. Bilbao.

- Oto ta Pototo**, Anastasio Arrinda, Zarautz.
- Poema amaitu bakoak - Poemas inacabados**, Luis de Aróstegui. A. Onaindiak euskeratuak. Bilbao.
- Poemagintza**, Ibon Sarasola. Lur. Donostia.
- Politikaren atarian**, Rikardo Arregi. Lur. Donostia.
- Prantzi'ko olerkariak**, Etxebarria'tar Juan Anjel. S. Antón Katekesia. Bilbao.
- Sorkalde urrutia**, M. Sawyers eta W. Reusswig. Izuzkiza'tar Juan Jose'k euskeratua. "Margo-ederdun Enziklopedia". Barcelona.
- Txalo jo Jaunari (I)**, Arantzazuko Liturgi-taldea. Arantzazu-Oñate.
- Txapel bertsolaria**.—Euxebio Eizmendi (1893-1969), A. Zavala. Auspoa. Tolosa.
- Uhin berri** (1964-1969 poesia bilduma), J. San Martín. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, S. A. Donostia.
- Umeen Biblia**, Dr. Jakob Ecker. Kerexetak euskeratua (bizkaieraz). Bilbao.
- Umeen Biblia**, Dr. Jakob Ecker. Kerexetak eta Zugastik euskeratua (gipuzkeraz). Bilbao.
- Uste gabea**, Manuel Matxain. Auspoa. Tolosa.
- Xenpelar bertsolaria**, A. Zavala. Auspoa. Tolosa.
- Zein da errudun? eta Nobi bat bear dogu**, antzerkiak, Xabier Gereño. Euskerazaleak. Bilbao.

JUAN SAN MARTIN

PUBLICACIONES

DE LA

REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS

(Delegada del Consejo Superior de Investigaciones Científicas en Guipúzcoa)



MONOGRAFIA DE D. XAVIER MARIA DE MUNIBE, CONDE DE PEÑAFLOIDA, por Gregorio de Altube.

LA EPOPEYA DEL MAR.

por M. Ciriquiain-Gaiztarro. (Agotado).

PASADO Y FUTURO DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA, por José María de Areilza.

HISTORIA DEL MONASTERIO DE SAN TELMO, por Gonzalo Manso de Zúñiga y Churruca.

ELOGIO DE D. ALFONSO DEL VALLE DE LERSUNDI, por Joaquín de Yrizar.

BREVES RECUERDOS HISTORICOS CON OCASION DE UNA VISITA A MUNIBE, por Ignacio de Urquijo.

LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS Y LA METALURGIA A FINES DEL SIGLO XVIII, por Manuel Laborde.

REVISTAS

BOLETIN DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS.

Ejemplar suelto: 50 Ptas.

Suscripción anual (España) 200 »

» » (Extranjero) 250 »

EGAN: Ejemplar suelto: 50 Ptas.

Suscripción anual: 90 »

MUNIBE.—Revista de Ciencias Naturales
Número suelto: 30 Ptas.

Redacción y Administración: Museo de San Telmo

SAN SEBASTIAN



GRAFICAS COLON, S. L.
SAN SEBASTIAN